

**Gipuzkoako
pobrezia eta gizarte
bazterketari buruzko**

2 . Inkesta



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social

Siis Centro de Documentación y Estudios
Fundación Eguía-Careaga Fundazioa
Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa

Aurkibidea

LABURPENA	5
1. HELBURUAK, EGITURA ETA METODOLOGIA	9
1.1. Proiektuaren helburuak	9
1.2. Txostenaren egitura	9
1.3. Eginikoaren ezaugarri nagusiak	10
1.3.1. Laginketaren diseinua	10
1.3.2. Kanpo lana	11
1.3.2. Galdesorta	11
1.3.4. Emaitzak egokitzea	12
2. POBREZIA, DESBERDINTASUN ETA GIZARTE BAZTERKETA EGOERAK GIPUZKOAN	14
2.1. Pobrezia, desberdintasunak eta gizarte bazterketa	14
2.1.1. Adierazle nagusiak	14
2.1.2. Arrisku taldeak	16
2.1.3. Beste lurraldeekiko erkaketa	18
2.2. Pobrezia, desberdintasun eta gizarte bazterketa egoeren bilakaera	19
2.2.1. Adierazle nagusien bilakaera	19
2.2.2. Pobrezia eta gizarte bazterketa egoerak mantentzea	24
3. POBREZIA, BAZTERKETA ETA BIZI BALDINTZAK GIPUZKOAN	27
3.1. Hezkuntza maila, formakuntza eta hizkuntzen ezagutza	27
3.1.1. Hezkuntza maila	27
3.1.2. Egiten ari diren ikasketak eta formazio jardunak	29
3.1.3. Lehen hizkuntza eta hizkuntzen ezagutza	30
3.2. Osasun egoera eta menpekotasun egoerak	32
3.2.1. Osasun egoera	32
3.2.2. Menpekotasuna eta hala direnen zaintza	34
3.3. Jarduna eta lan baldintzak	37
3.3.1. Lanean aritzea eta lan kopurua	37
3.3.2. Soldata maila	38
3.3.3. Beste lan baldintzak	41
3.3.4. Langabezia	41
3.4. Gastua eta zorpetzea	43
3.4.1. Etxebizitzen gastua eta hila bururatzeko zailtasunak	43
3.4.2. Etxebizitza gastuak	44
3.4.3. Aurrezte ahalmena eta kredituetara jotzea	46
3.5. Diru eskasiak bizi baldintzetan eta pobrezia hautemateko moduan duen eragina	49
3.5.1. Diru eskasiaren eragina	49
3.5.2. Pobrezia hautemateko nork bakoitzak duen modua	51

3.6. Etxebizitza eskuratzea, hornikuntza maila eta bizigarritasun baldintzak	52
3.6.1. Etxebizitza eskuratzea	52
3.6.2. Etxebizitzaren eta ingurunearen baldintzak	53
3.6.3. Bizitegiaren hornikuntza maila	54
3.6.4. Metatzea	55
3.7. Gizarte harremanak eta herri bizitzan eta politikan parte hartzea	55
3.7.1. Gizarte harremanak	55
3.7.2. Herri bizitzan eta politikan parte hartzea	58
3.8. Pobreziaren aurka borrokatzeko politiken erabilera, eskaera eta eraginkortasuna	60
3.8.1. Oinarrizko gizarte zerbitzuen eta Lanbideren erabilera	60
3.8.2. Laguntza eta prestazio, ekonomikoen eskaera	61
3.8.3. DBEa senitarteen beharrei egokitzen zaien maila	62
3.8.4. Gizarte transferentzien sistemaren eta gutxieneko errenten sistemaren eragina	62
I. ERANSKINA: Pobreziaren eta gizarte bazterketaren eta desberdintasunen adierazle nagusiak Gipuzkoan	67
II. ERANSKINA: Galdetegia	96

Laburpena

Pobrezia, bazterketa eta desberdintasunak Gipuzkoan

Txosten honetan, 2014an eginiko Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketa Inkestaren (PGDI) emaitzak aurkezten dira. Estatistika lan horren bigarren argitalpena dugu honako hau, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizartekintza Sailak sustaturik, eta 2012an lehen aldiz egin zenaren jarraipena da. Inkestak aztertzen ditu, hala Gipuzkoan ematen diren pobrezia, eskasia, desberdintasun edota bazterketa egoeren hedapen maila, alor horretan erabili ohi diren adierazleak baliatuz, nola gipuzkoarren bizi baldintzak, bereziki aztertuz, pobrezia eta bazterketak egoera horretan direnen ongizatean duten eragina.

Honako hauek dira Gipuzkoan dauden pobrezia, eskasia, bazterketa eta desberdintasun egoeren hedapenari buruzko datu nagusiak:

- 2014an, gipuzkoarren %15,6 zen nolabaiteko pobrezia edo diru-sartze eskasen arrisku egoeran; guztira, 111.000tik goiti dira egoera horrek joak. Biztanleen % 5,4 –38.000 pertsona– pobrezia larriaren dira. Nolabaiteko pobrezia edo diru-sartze eskasen atalasea, hileko eta pertsonako 852 eurotan da eta pobrezia larriarena, berriz, 568 eurotan.
- Biztanleen % 5,2 eskasia material larriko egoeran da eta 60 urtez peko biztanleen % 8,4 lan eskasaren etxeetan bizi da. Lanean diren biztanleen % 6,2 nolabaiteko pobrezia edo pobrezia erlatiboaren atalasearen azpitik bizi da, hau da, langile pobreen taldean da.
- Gizarte bazterketaren eta gizarteratzearen ikuspuntutik, 2014an, biztanleen % 5,1 bazterketa egoera larrian zen eta % 8,3 bazterketa moderatuko egoeran. Gainerako biztanleetan, % 29,7 gizarteratze maila eskasaren da eta ia % 57 bete-betean gizarteraturik litzateke.
- Desberdintasunen adierazleei dagokienean, Gini koefizienta 26,3koa da. S80/S20 adierazleak, gure lurraldean, 4,0ko zifra ematen du, hau da, biztanle aberatsenen % 20aren diru sarrerak pobreenen % 20ak dituenak baino lau aldiz handiagoak dira.

Arrisku talde nagusiak

Pobrezia arrisku egoerak ez dira, noski, biztanle talde orotan berdin gertatzen:

- Denetan nabarmenena da, kasu orotan, atzerrikoek espainiar nazionalitatea dutenekin edo EAEn jaio direnekin duten alde. Lehen taldearen pobrezia edo eskasia materialaren mailak biztanleria osoarentzat kalkulaturikoak baino 3 eta 6,2 aldiz handiagoak dira.
- Handiagoak dira ere, emazteek daramatzaten etxeetan bizi direnen pobrezia, eskasia eta bazterketa mailak, bai eta haurrena ere eta baita 45 urtez pekoek daramatzaten etxeetako biztanleenak ere.
- Senitarteen osarari dagokionean, egoera hauek zabalduen dira guraso bakarrakoetan; hauen % 33tan, guraso bat eta, 18 urtez peko gutxienik haur bat bizi dira.
- Senitartekoen lan egoerari dagokionean, pobrezia maila handienak, lan adinean eta asmoan diren guztiak lanik gabe diren etxeetan gertatzen dira: pertsona horietako bi heren pasatxo dira pobrezia erlatiboan eta % 40,2 pobrezia larrian.

Beste lurraldeekin erkatzea

Beste lurraldeekin eta Gipuzkoan 2012an egin zen inkestaren emaitzekin alderatuz gero, ikus daiteke egoerak, oro har, hobera egin duela eta EAEn egoera eta Espainiar Estatuan den egoera baino hobea eta Europar Batasunaren batezbestekoaren parekoa izaten darraiel.

- Gipuzkoako egoera EAEkoa, Estatukoa, bai eta EBeko egoera orokorra baino hobea da. Salbuespen bakarra pobrezia larriarena da, EAEn kasuan zertxobait apalagoa baita (% 4,9), urte berean Gipuzkoan ikus daitekeena baino (% 5,4).

- Bilakaerari dagokionean, aztertu ditugun adierazle gehienek egoeraren nolabaiteko hobetzea adierazten dute. Pobrezia erlatiboaren edo diru sartzeko maila % 16,8koa izatetik % 15,6koa izatera pasata baita bi urteotan, 1,2 puntutan apalduz; pobrezia eta bazterketa arriskua adierazten duen AROPE adierazlearen maila ehuneko 3,2 puntutan apaldu da; lanean diren biztanleen diru sartzeko eskasiaren adierazlearena, berriz, 0,8an eta Gini adierazlea, 0,9an apaldu dira, baina S80/S20 harremana 0,2an emendatu da, halere.
- Egoera hobera doala erakusten duten neurriez gain, ikus daiteke ere bi adierazle okerrera egin dutela. Biak pobrezia eta gizarte bazterketa egoera larrienei dira loturik: pobrezia larriak 1,1 puntutan gora egin du bi urteotan eta bazterketa % 11,8tik % 13,4ra pasatu da, bi urteotan, gipuzkoarren artean. Datu horiek erakusten digute, beraz, egoeraren hobetze hura ez dela talde orotan berdin gertatzen eta, hartara, gizartearen nolabaiteko polarizatze bat gertatzen ari daitekeela *pobreziaren pobretze batekin*, non pobrenekin krisi gogorragoa bizi baitute eta susperraldia datorrenean, berriz, ez dute besteek adina profitatzen.

Pobrezia iraunkorra Gipuzkoan

Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestaren diseinuak aukera ematen digu, pobrezia eta bazterketa egoerek denboran zehar duten bilakaera – hau da, zenbat pertsona diren, aztertutako urteetan, pobrezia eta bazterketa egoeran, eta zeintzuk diren, urte bakoitzean, eragin handiena jasaten dutenak –, aztertzeaz gain, arazoa luzetara aztertze ere, laginaren gehienaren 2012tik 2014 arteko nondik norakoaren jarraipena eginez. Luzetara eginiko azterketa horren emaitzak honako hauek dira:

- Gipuzkoarren % 80 ez da, aztertutako bi urte horietako bakar batean pobre izan. Aldiz, biztanleetako % 20 inguruk pobrezia erlatiboko edo diru sartzeko eskasiako egoeraren bat bizitu du, azken lau urteotako uneren batean, bederen, eta haietarik, erdiek – hau da, biztanleen % 10 – denbora osoan izan da pobrezian. Beste %10, 2012 eta 2014 artean, pobreziatik jalgi da edo erori da pobrezian, denbora tarte horretan.
- Pobrezia iraunkorraren maila bereziki gora da emazteek daramatzaten etxeetan bizi direnen kasuan (% 12,8), 18 urtez pekoen artean eta 65 urtez goitikoetan eta, batez ere, lanean izatekoak liratekeen guztiak langabe direnen etxeetan bizi direnen kasuan (% 40,5) eta atzerriko nazionalitatea duen batek daramatzan etxeetan bizi direnen artean (% 54,7) edo atzerrian jaio den batek daramatzan etxeetan bizi direnen artean (% 46,2).
- Talde horietan gorago da ere, aldeak horren handiak ez badira ere, 2012an pobre izan ez eta 2014an badirenak. Bestalde, bertako pertsona pobreen erdiarentzat, pobrezia egoera aldi batekoa zen bitartean (2012an pobre ziren, baina 2014an jadanik ez), etorkin pobreen kasuan, aldiz, %10k besterik ez du pobrezia egoeratik ateratzen lortzen.

Gipuzkoako bizi baldintzak, pobrezia eta gizarte bazterketa

Pobreziarekin, eskasiarekin edo gizarte bazterketarekin loturiko adierazle nagusiak aztertzeaz gain, PGDIk, gipuzkoarren egoera, hainbat alorretan aztertzen du ere (hezkuntza, lanpostua, etxebizitza, gizarte harremanak, gizartean eta politikan parte hartzea, etab.) eta gertatzen diren aldeak zehazten ditu. Horrez gain, aztertzen da ere, diruzko pobrezia edo gizarte bazterketa jasaten dutenek zenbateraino bizi dituzten egoera gaitzak, oso gaitzak batzuetan, eguneroko bizitzako alor horietan ere.

Gipuzkoarren bizi baldintzei buruzko emaitza nagusiak honako hauek dira:

- 2014an, 15 eta 29 urte arteko ia 11.800 gazte ziren langabe eta formakuntza jardunik egin gabe. Egoera horrek urte tarte horretako gazte ororen % 12,1 jotzen ditu eta gizarte ahultasunaren adierazle oso argia da. EB-28aren kasuan, % 15,3 dira, batezbeste, eta Espainiar Estatuan, % 20,7.
- Gipuzkoarren % 81,7ak osasun oso ona (% 21,3) edo ona (% 60,4) duela dio, eta % 12,1ek hala-holakoa duela. Aldiz, % 5,3ek txarra, eta % 0,9k oso txarra duela diote. Oro har, osasunaren gaineko iritzia, adinan gora egin ahala txarragozten da, eta emakumeek gizonezkoek baino gehiago diote osasun txarra dutela. Nork bakoitzak, bere osasunaz duen iritzia, diruzko pobrezia egoerei estuki loturik da, gainera, gizarte bazterketakoei batez ere.
- Gipuzkoak, ezintasunen bat, eritasunen bat edota osasun arazoren bat duten eta beren etxeetan bizi diren 30.000etik gora pertsona ditu, eguneroko oinarrizko jardunak egin ezin dutenak. Beren autonomia murriztua duten ororen artean, % 79,2k besteen laguntza edo zaintzaren bat behar dute eguneroko funtsezko jardunak egiteko. Horien artean, % 96k jasotzen du laguntzaren bat eta % 4k ez du behar duen laguntza jasotzen, hau da, mila bat pertsonak.
- Egunerokoetarako laguntzaren bat jasotzen dutela diotenen artean, garrantzi handikoa da senideen laguntza informala (pertsona horien % 94,8k senideen laguntza jasotzen dute), bai eta senitatekoak edo pertsonak berak beste norbait kontratazea ere (% 36,8), batez ere, etxeko laguntza zerbitzua jasotzen dutenen kopuruaren aldean (laguntza jasotzen dutenen % 10,4). Bestalde, oso nabarmen da zaintzaren beharra dutenen artean zenbat ari diren diruzko prestazioren bat jasotzen ari (% 61,2).

- Hitz bitan, etxean laguntzaren bat jasotzen dutenen % 71,8k laguntza informalak edo partikulariki kontraturikoek emaniko laguntza besterik ez dute baliatzen. % 25,4k baliabide horietakoren bat eta etxeko laguntza zerbitzua bateratzen dituzte, eguneko zentzoren bat edota telezaintza ere baliatuz; % 2,9 besterik ez dira, eguneroko jardunetarako mugak dituztenen artean, hiru zerbitzu publiko horietakoren bat besterik baliatzen ez dituztenak.
- Lan merkatuan lanean diren biztanleen %14,4 astean 25 ordu baino gutxiagoko lanaldi murriztuanda lanean. Ehuneko hori, azken bi urteotan, zertxobait handitu bada ere –2012an, % 12,6koa zen–, bereziki gora da emazteen kasuan eta lanean ari diren adin txikieneko biztanleen kasuan. Enplegatze modu hori pobrezia eta gizarte bazterketa egoerekin estuki loturik da: pobreen artean, lanaldi murriztuaren maila % 33,8koa da eta % 26,8koa, berriz, gizarte bazterketa egoeran direnen artean.
- Hileko batezbesteko soldata garbia, 2014an, 1.531 eurokoa da eta ia ez da 2012az geroztik aldatu. Soldata gorenen eta apalenen zama erlatiboa, berriz, aldatu da 2012az geroztik; horrek, lanean diren gipuzkoarren soldata desberdintasunak handitu direla erakusten digu, bai eta lehen aipatu dugun diru sarreren polarizatzeko bidean goazela ere.
- Langabezia egoerei dagokienean, iraupen luzeko langabezia da bilakaera okerrera izan duten adierazleetakoa bat, langabe direnen % 26 izatetik ia % 40 izatera pasatu baita. Datu horien arabera, langabezia egoerak nolabait kronifikatzen ari direla dirudi. Talde horren pobrezia erlatiboa ia % 69koa da; 12 hilabete edo gutxiago lan gabe direnen artean, aldez, % 38koa da.
- Etxebizitzari loturiko kargak (hipoteka edo alokairua) dituzten senitarteen % 20ek diru sarreren % 40 baino gehiago gastatzen dute etxebizitza ordaintzeko. Pobrezia atalaseak birkalkulatzen direnean, behin etxebizitza gastuak ordaindutakoan geratzen diren baliabideak aztertzeko, pobrezia erlatiboko maila % 25 igotzen da –hamahiru mila pertsona gehiago hartuz– eta pobrezia larriaren maila ia bikoizten da, % 4,4tik % 8,8ra pasatuz eta hamaka mila pertsona gehiago hartuz.
- Gipuzkoako etxeetako % 68k badu aurrezki zerbitzu bat, eta % 24k ez du ezusteko gastu bati aurre egiteko ahalera. Etxeetako % 6,2, zenbaki gorritan, behin baino gehiagotan izan da azken urtean; diru sarrera apalena dituztenen taldean, berriz, % 14a izan da zenbaki gorritan.
- Biztanleen % 30ak dio ezin duela oporretara, etxetik kanpora, urtean astebete bederen, joan; % 23k etxeko energia gastuak murriztu behar izan ditu, eta % 6,9k elikadura gastu oinarrikoak murriztu behar izan ditu. % 3,1ek ezin du elikatze dieta egokia egin eta % 2k ezin du bi egunez behin proteinadun janaria jan. Egoera horiek gutxitu dira 2012tik 2014 artean eta, oro har, beste herrialdeetan baino biztanle gutxiago jotzen dituzte, ehunekotan.
- Biztanleen %12k jo du Oinarrizko Gizarte Zerbitzuren batera, azken 12 hilotan eta % 23k Lanbideren bulegoetara. Emazteek edota etorkinek daramatzaten etxeetako biztanleak dira baliabide horiek gehien erabiltzen dituztenak, bai eta pobre direnak eta bazterketa egoeran direnak ere. Nolanahi dela ere, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei dagokienean, erabiltzen dituztenen % 57 ez dira pobrezia egoeran eta % 63 gizarteratuak dira.
- Gipuzkoan den diruzko prestazioen sistemak (DBE, EPO, DBL eta GLL) pobrezia % 34an apaltzen du eta pobrezia larriaren maila % 8,3tik % 5,4ra pasarazten, 20.000 pertsonari pobreziatik jalgitzeko aukera emanez.

1. ATALA

HELBURUAK, EGITURA ETA METODOLOGIA

1. Helburuak, egitura metodologia

1.1. Proiektuaren aurrekariak eta helburuak

Txosten honetan, 2014an eginiko Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketa Inkestaren (PGDI) emaitzak aurkezten dira. Estatistika lan honen bigarren argitalpena dugu honako hau, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizartekintza Sailak sustaturik, eta 2012an lehen aldiz egin zenaren jarraipena da ¹.

Oro har, honako helburu nagusi hauek ditu:

- Gipuzkoan ematen diren pobrezia eta gizarte bazterketa egoerak neurtzeko eta jarraipena egiteko gure sistema propio bat sortzeko oinarriak jartzea, horren bitartez, bi urtez behin bil ditzagun egoera horien neurketa eta jarraipena egiteko gure inguruko herrialdeek baliatzen dituzten adierazleak.
- Gipuzkoan gertatzen diren pobrezia eta gizarte bazterketa egoeren gaineko informazio zehatz eta desagregatua eskaintzea, bai eta norbanakoen ezaugarrien arabera (sexua, adina, lanpostua, jatorria, etab.) eta senitarteen ezaugarrien arabera, egoera horiek zenbatetan ematen diren azaltzea.
- Bildutako informaziotik abiatuz eta gure lurraldean, pobrezia eta gizarte bazterketaren alorrean lan egiten duten erakunde publiko nola pribatuekin elkarlanean, EAEn pobrezia eta gizarte bazterketari aurka egiteko egiten diren politikak hobetzeko gomendioak eta orientabideak proposatzea.

1.2. Txostenaren egitura

Txostenaren edukia laburpen bat, hiru atal eta bi eranskinetan antolatua da.

Laburpena, ikerketa honen lehen orrietan da ageri. Bertan, 2014ko *Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestaren* emaitza nagusiak biltzen dira, bai eta orain dela bi urte egin zen inkestarekin alderatuz azaltzen diren joera nagusiak ere.

Sarrerako lehen atal honetan, operazioaren helburuak aurkezten dira, aurrekariak azaltzen eta ezaugarri teknikoak eta inkesta egiteko erabili den metodologia ere zehazten.

Bigarren atalean, diruzko pobrezia, eskasia material, gizarte bazterketa eta desberdintasun egoerak Gipuzkoan duten gertatze maila azaltzen du orokorrean, hori neurtzeko eskura ditugun adierazle nagusiak baliatuz. Aldi berean, aurkitu diren magnitude nagusien bilakaera aztertzen da ere, pobrezia eta bazterketak gizarte talde desberdinetan nola eragiten duten erakutsiz eta Europako beste herrialdeetako egoerekin alderatuz.

Hirugarren atalean, gipuzkoarrek hezkuntzari, osasun egoerari eta mendekotasunari dagokienean dituzten bizi baldintzak aztertzen dira, bai eta langabezia egoerak, enplegu eta lan baldintzak, senitarteen gastu eta zorpe-tze mailak, pobrezia nork bakoitzak hautemateko duen modua, etxebizitza eskuratzeko ahala eta etxebizitzaren baldintzak, gizarte harremanak eta gizarte bizitzan parte hartzea eta pobrezia aurka egiteko politiken erabilte eta eskatze maila eta politika horiek duten eraginkortasuna. Atal honek gipuzkoarren artean, soziodemografiako zenbait oinarriko aldagaien arabera gertatzen diren aldeak lantzen ditu bereziki, eta norbanakoak eta senitarteak pobrezia eta gizarte bazterketaren dimentsioetan kokatzen ditu.

Gehigarri gisa, ikerketa honetan, bi eranskin daude ere. Lehen eranskinean, pobrezia, gizarte bazterketa eta desberdintasunak neurtzeko erabili diren adierazle nagusiek eskaini dituzten emaitzak sistematikoki azaltzen dira. Azkenik, II. Eranskinean, Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestaren 2014ko argitalpenari dagokion galdetegia dator.

¹ SIIS-Dokumentazioa eta Ikerketa Zentroa (2013) *Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012. Emaitzen txostena*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikaren Saila.

1.3. Eginikoaren ezaugarri nagusiak

Zati honetan, 2014ko Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestaren ezaugarri tekniko eta metodologiko nagusiak azaltzen dira

1.3.1. Laginketaren diseinua

Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestan baliatu dugun lagina SIIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroak eskatu eta Euskal Estatistika Institutuak (EUSTAT) egin zuen, 2014ko ekainean.

Laginaren esparrua

Lagina hautatzeko erabilitako esparrua Gipuzkoako Lurralde Historikoko etxebizitza okupatuek osatzen dute. Laginaren esparruaren abiapuntua 2012ko laginerako erabili zena izan da eta Eustat-en 2010eko Etxebizitza Direktorio eta Biztanleria Erregistroak, laginaren sekzioetan (bi etapako laginketa), jadanik seinatu zuten arabera, gutxienez pertsona bat bizi zen famili etxebizitzak bakarrik aukeratu dira.

Laginaren hedapena

2012ko lagina bi etapen arabera diseinatua zen; lehen etapen sekzioak agertuz, eta bigarren etapen, berriz, etxebizitzak. 2014ko edizioan, lehen etapako sekzioak mantendu ditugu, bai eta inkesta egin zaien etxebizitzak ere.

1. taula: Lagin etxebizitzak, eskualdeka banaturik, 2012an eta 2014an

	Lagineko etxebizitzak (2012)	Gehituriko etxebizitzak (2014)	Lagineko etxebizitzak (2014)
Bidaso Beherea	142	0	142
Debarrena	124	0	124
Debagoiena	124	0	124
Donostialdea (hiriburua gabe)	202	134	336
Donostia	216	122	338
Goierrri	132	0	132
Tolosaldea	116	0	116
Urola Kosta	134	0	134
Guztira	1.190	256	1.446

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2014.

Gehigarri gisa, bi eskualdetako -Donostialdea eta Donostia- lagina, 256 unitateetaraino handitu zen. Bi kasutan, sekzio bakoitzean, inkesta egin beharreko etxebizitzaren kopurua handitu zen, 8tik (edo 10) –2012ko laginketa diseinuan eginik- 14tara batean eta 13tara bestean. Lehen 1. taula lagineko etxebizitzak, 2012an eta 2014an.

Handitze horri dagokionean, honako ezaugarri hauek hartu ziren kontuan, laginketaren diseinuan:

- **Esleipena:**

Laginaren lehen etapen hautaturiko sekzio bakoitzera, 13 eta 14 etxebizitza artean hautatu ziren, Donostialdean eta Donostian.

- **Zozketa:**

Etxebizitzaren zozketa, sekzio bakoitzaren barnean, ausazko zozketa arruntez egin zen.

- **Oreka:**

Etxebizitzak hautatzeko, berriz ere Kuboaren Metodoa erabili zen, lagina, lehen etapen erabili ziren aldagai berberen gainean orekatuz, honako aldagai hauetatik abiatuz:

- Gizabanakoak: gizabanako kopurua eskualde bakoitzean.
- Sexua: gizonezko eta emakumezkoen kopurua.
- Adina: 34 urtez peko gizabanakoen kopurua, 35-44 urte bitartekoena, 45-54 urtekoena, 55-64 urtekoena eta 65 urtetik gorakoena.
- Nazionalitatea: Bertako nazionalitate dunen eta atzerritarren kopurua.
- Familiaren neurria: egoiliar bakarreko etxebizitzak, 2 egoiliarretakoak, 3-4 egoiliarretakoak edo 5 egoiliar baino gehiagokoak.

2. taula: 2012an eta 2014an DBEa hartzen zuten lagineko etxebizitzak, eskualdeka banaturik

	2012an inkesta egin zitzaizen DBE etxebizitzak	2014ko DBE etxebizitza berriak	2014ko DBE lagin etxebizitzak, guztira
Bidaso Beherea	10	1	11
Debarrena	2	8	10
Debagoiena	8	0	8
Donostialdea (hiriburua gabe)	8	15	23
Donostia	6	21	27
Goierrri	7	0	7
Tolosaldea	1	5	6
Urola Kosta	6	3	9
Guztira	48	53	101

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2014.

Horrez gain, lagina, DBEa hartzen duten senitardeen azpilagin batez handitu zen ere (ikus 22. taula). Horren helburua zen, DBEa hartzen duten 100 bat etxebizitzetako azpilagin bat izatea, non, alde batetik, sartzen baitira, 2012an jadanik inkesta egin zitzaizen 48 etxebizitzak eta, beste aldetik, DBEren hartzaile diren etxebizitza berri zenbait .

Horretarako, diseinaturiko azpilaginean, bi irizpide hartu ziren kontuan: nazionalitatea eta egoitzaren eskualdea, laginerako esparru gisa Lanbidek 2014ko martxorako eman zituen datuak.

Ordezkoak

Kasu guztietan, hala Eustat-ek eginiko laginean nola ad hoc prestatuturiko DBEa hartzen duten senitarteen azpilaginean, ordezko eta erreserbako bana aukeratu ziren, titular zen etxebizitza bakoitzerako. Eustat-ek prestatuturiko laginaren kasuan, ordezkoak eta erreserbakoak, lehen etapan hautaturiko errolda-sekzio bakoitzaren barnean atera ziren, geografikoki eta estatistikoki hurbil izatea kontuan harturik.

Laginaren akats maila

Ausazko laginketa arruntaren kasuan, % 95eko konfiantza mailako eta bariantza maximoko tarteentzat ($P = Q$), laginketaren akats maila \pm % 2,52koa da, lagin osorako.

1.3.2. Landa lana

Landa lana, azterketa soziologikoen EMAIKER kabineak egin du. Aurtengo inkestarako informazioaren bilketa, 2014ko irailaren 22an hasi zen eta azaroaren 28an bururatu; hartara, landa lana hamar bat astekoa izan zen.

Landa lantaldea osatu dute arduradun batek, landa lanaren prozesuaren koordinatzaile batek eta 18 inkestataitzailek.

Inkestak balioduntzerakoan, honako kontrol hauek egin ziren:

- Landa lanaren arduradunek bete ziren galdetegi guztiak ikuskatu zituzten. Horretarako, logika eta koherentzia kontrolak egin ziren, bai eta akatsen hautematekoak eta kontraesanen eta informazio gabezien kontrolak ere, kasu horiek informazio biltzaileekin batera aztertuz.
- Telefono bidezko kontrolak. 613 etxebizitzetara deitu genuen, hau da, inkesta eginiko etxeen % 40,7ra.
- Informatika kontrolak, grabaturiko datuen koherentzia balioduntzeko.

Guztira, 1.507 etxebizitzari egin zitzaizen inkesta. 2012an inkesta egin zitzaizen 1.191 etxebizitzetatik, oraingoan 924 etxebizitzek erantzun zuten guztira (% 77,6k). Gainerakoetan, edo jadanik ez ziren lehengo pertsona berberak han bizi (% 3,5), edo ez zuten erantzun nahi izan eta beste batzuei egin zitzaizen inkesta (% 18,9).

3. taula: Lagineko etxebizitzak eskualdeka banaturik, 2014ko panelean

	Lagineko etxebizitzak (2012)				Gehituriko etxebizitzak (2014)	DBE azpilagineko etxebizitzak (2014)	Guztira
	Panel osoa	Aldaturiko panela	Desagerturiko panela	Ordezkatuturiko panela	Berriak	Berriak	
Bidaso Beherea	82	20	9	33	--	1	145
Debarrena	84	12	5	24	--	8	133
Debagoiena	73	24	2	25	--	--	124
Donostialdea (hiriburua gabe)	128	34	9	31	135	15	352
Donostia	137	24	5	50	122	20	358
Goierri	91	18	2	21	--	--	132
Tolosaldea	76	15	7	18	--	5	121
Urola Kosta	93	13	3	29	--	4	142
Guztira	764	160	42	231	257	53	1.507

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta2014.

1.3.3. Galdetegia

Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestaren bigarren aldi honetan erabili dugun galdetegiak 114² galdera zituen guztira, gaikako 11 modulutan banatuak. Galdetegia elkarren oso desberdin diren bi bloketan zen antolatuturik: lehenengoan, azterketa unitate

tea senitartea osatzen duten pertsonak dira eta, hartara, galdera bakoitza haietako bakoitzari zuzentzen zaio; bigarren blokean, berriz, azterketa unitatea senitartea da eta, talde osoarentzat, galdera bakarra da. Dokumentu honen I. Eranskinean, 2014ko Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestaren galdetegia dator.

2014an erabili dugun galdetegia 2012an erabili zenaren oso antzekoa da; hartara, pobrezia eta gizarte bazterketaren ikuspuntu dimentsioan itza mantentzen du eta, horrela, senitarteen eta haietako kideen egoera ekonomiko eta materialen gaineko ohiko galderez gain, badira gizarte bazterketa neurtzeko beste dimentsioak ere,

²Galdetegia 126. galdera arte zenbaturik bada ere, estuki harturik, 114 galdera besterik ez du. Hori hala egin da galdera berdinak galdetegiaren bi aldietan aurkitzeko lehengo zenbakiak gorde direlako. Horrela eginik, 2012ko galdetegiak zekartzan eta 2014koan kenduak izan diren galderen zenbakiak ez dira oraingo inkestan erabili. Aldi berean, 2014ko galdetegiaren sartu diren galdera berriak izendatzeko hizki bat eman zaie.

hala nola hezkuntzari, osasunari, gizarte harremani edota gizarte bizitzan eta politikan parte hartzeari loturik direnak. Hona hemen galdetegiak zekartzan gaikako moduluen eta galderen zerrenda:

- A. Senitartearen eta kide direnen ezaugarri soziodemografikoak: P1etik p16 arteko galderak.
- B. Hezkuntza maila, ikasketak, ama-hizkuntza eta hizkuntzen ikasketa: P17-P22 galderak.
- C. Osasuna eta autonomia: P23-P34 galderak.
- D. Jardutea, enplegua eta formakuntza: P35-P48 galderak.
- E. Senitartearen diru sarrerak: P49-P62 galderak.
- F. Gastuak eta senitartearen egoera ekonomikoa: P63-P87 galderak.
- G. Etxebizitza nagusiaren ezaugarriak: P89-P99 galderak.
- H. Gizarte harremanak eta herri bizitzan eta politikan parte hartzea: P100-P104 galderak.
- I. Pobreziaren aurkako politikak: P108-P114 galderak.
- J. Energiaren erabilera etxean: P119-P122 galderak.
- K. Denboraren erabilerak: P123-P126 galderak.

Galdetegiak bi zatitan banaturik izanez -lehenean senide bakoitzari zuzenduriko galderak direlarik, eta bigarrenean, senitarteari osotasunean-, lehen zatia A modulutik E moduluraino, bai eta K modulua ere hartzen ditu (1etik 62. eraino eta 125, 126 galderak), eta bigarren zatia gainerako modulua: F, G, H, I eta J (63tik 122. eraino).

Egungo galdetegiak, 2012koarekin alderatuz gero, aldatuta nagusia denboraren erabilerei eta adin txikikoak edota mendeko pertsonak zaintzeari loturiko galderak dakartzan gai-modulu bat ekartzea da. Modulu horrek dakartzan galdera asko eta asko Eustat-ek eginiko *Denbora aurrekontuen Inkesta* delakoaren galderen bilketa txikia dira. Galdesorta horren datuak ustiatuz agertzen diren emaitzak beste ikerketa batean datoz: *Gipuzkoarren denbora erabilerak eta pobrezia-erakiko harremana, 2014* izenekoan, hain zuzen.

Oro har, esan behar da ere, Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestaren galdetegiak egiteko baliatu ditugun iturriak honako hauek izan direla:

- Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren estatistika organo bereak egina.
- Bizi Baldintzei buruzko Inkesta (Encuesta de Condiciones de Vida), Espainiako Estatistika Institutu Nazionalak egina.
- “Encuesta sobre Integración Social y Necesidades Sociales” izeneko inkesta, FOESSA Fundazioak egina.

1.3.4. Emaitzen egokitzea

Egokitzailak kalkulatzeko prozedurak bi fase izan ditu.

Lehena, Eustat-ek hastapenean eginiko lehen doitzearekin bat dator. Fase horretan, Ranking Ratio doitze metodoaren bidez, gizabanako zein etxebizitza kopuruen egokitzapena egin zuen aldi berean. Doikuntzako aldagai hauek erabili dira: sexua, adina eta nazionalitatea, norbanakoen aldagaiei dagokienez; eta familiar- en neurria eta DBEaren hartzaile izan ala ez, familiar- i loturiko aldagaiei kasuan. Kalibratzea, INSEE-k prestaturiko CALMAR (*calage sur marges*) makroaren bidez egin zen.

Egokitzapenaren bigarren faserako, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Berezkoaren aholkularitza izan dugu; organo horrek, lehengo ponderatzailea abiapuntu harturik prestaturiko beste ponderatzaile bat proposatu zuen. Funtsean, lehengo kalibratzean sortu ziren bi arazoak izan ziren, alde batetik, lanean ziren kideak zituzten senitarteak gutxiegi balioestea –batez ere bi kide edo gehiago lanean zituztenak- eta DBE biztanleriari buruzko emaitza egokitueta desoreka bat, DBE biztanleriari dagokionean, hala 2014ko PGBItik ateratako datuei dagokienez nola egokitu gabeko edatutan.

Lehen arazoa konpondu asmoz, Eustat-en CALMAR kalibratze prozesua kopia zen, baina modeloan, lanean zirenen kopuruaren aldagaia sartuz. Bigarren arazoan, DBE senitarteen lagin bakar baten ideia hartu zen kontuan, informazioa Lanbideren garai horretako datutara doitzu eta, barnean, bi lurralde multzo besterik ez bereiziz (Donostialdea eta gainerakoa).

2. ATALA

POBREZIA, DESBERDINTASUN ETA GIZARTE BAZTERKETA EGOERAK GIPUZKOAN

2. Pobrezia, desberdintasunak eta gizarte bazterketa Gipuzkoan

2.1. Pobrezia, desberdintasunak eta gizarte bazterketa

2.1.1. Adierazle nagusiak

Hurrengo taulak adierazten digu, Gipuzkoa osorako, 2014 urtean, ikerketa honetan aztertzen ditugun pobrezia, eskasia material, gizarte bazterketa eta desberdintasun egoeretako bat edo gehiagotan ziren senitardeen kopurua. Taulak, egoeretako bakoitzak duen eragina erakusten digu, orokorrean, gero, hurrengo orrialdeetan, banan-banan eta sakonago aztertutak izango direlarik. Horren osagarri, adierazle horietako bakoitza –hala Gipuzkoan duen eraginari dagokionean nola erkaketa, bilakaera eta gurutzaketak kontuan hartuz- txosten honen I. Eranskinean kontsulta daiteke.

Hemen aurkezten ditugun emaitzak, 2014ko Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestatik atera ditugu eta testuinguru jakin bati dagozkio, 2008an hasi zen krisi ekonomikoarena, hain zuzen ere, haren

eragina agertzen ari baitzaigu, ez soilik pobrezia egoera zenbaiten zabaltzean, baizik eta gizarte bazterketa prozesu zenbaiten areagotzean, eta, oro har, biztanleriaren bizi baldintzen aldaketan ere bai.

Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketa Inkestak ematen dituen datuen arabera, 2014an, biztanleen % 15,6 –hau da, 111.600 pertsona baino zertxobait gehiago- pobrezia erlatiboan edo diru sarrera apalekin ziren, hau da, Eurostat-ek ezarritako irizpideen arabera, biztanle guztien batezbesteko diru sarreraren % 60an finkaturiko atalasearen azpiko diru sarrerak zituzten. Baldin eta atalase hori hartu beharrean –batez ere ongizate gabeko eta errenta apaletako egoerak azaltzen baititue- rreferentziarako batezbesteko errentaren % 40a hartzen bada, emaitzak esaten digu biztanleen % 5,4 dela –hau da, pobrezia erlatiboan zirenen herena edo- pobrezia larriko egoeraren atalasearen pean. Gure lurraldean, hori, 38.700 bat pertsona dira.

1. taula: Pobrezia, gizarte bazterketa eta desberdintasunaren adierazle nagusiak. Gipuzkoa 2014
(Tasa eta ukituak diren pertsona eta senitardeen kopurua)

		Pertsonak		Senitardeak	
		Tasa (Biztanle ororen arteko %)	Ukituriko pertsona kopurua	Tasa (Senitarte ororen arteko %)	Ukituriko senitarte kopurua
EU-SILC adierazleak	Pobrezia erlatiboa edo diru sarrera apalak	15,6	111.655	15,6	44.470
	Pobrezia larria	5,4	38.743	4,4	12.424
	Eskasia material larria	5,2	36.834	5,2	14.778
	Lan intentsitate apala	8,4	60.099	10,9	31.170
	Pobrezia eta bazterketa (AROPE)	19,5	139.539	19,2	54.752
PGDI adierazleak	Pobrezia erlatiboa, lanean den biztanlerian	6,2	17.564	--	--
	Pobrezia	5,8	41.625	5,9	16.922
FOESSA adierazleak	Ongizate eza	12,5	89.348	14,6	41.620
	Guztiz gizarteratua	56,8	405.856	57,5	164.085
	Halamoduz gizarteratua	29,7	212.389	28,9	82.535
	Bazterketa moderatua	8,3	59.421	8,3	23.641
Desberdintasun adierazleak	Bazterketa larria	5,1	36.326	5,3	15.024
	Gini indizea		26,3		--
Diru sarreraren adierazleak (euro/hilean)	S80/S20		4,0		--
	Batezbesteko errenta baliokidea		1.420,6		--
	Pobrezia erlatiboaren atalasea		852,4		--
	Pobrezia larriaren atalasea		568,3		--

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2014.

Bi adierazle horiek ongi uler daitezzen, kontuan hartu behar da, 2014an, pertsona heldu bakarrek etxe bantentzat, batezbesteko errenta baliagarria, hilean 1.420,6 eurokoa zela; bi pertsona heldu eta 14 urtez peko beste biko senitatearena, berriz, 2.983,3 eurokoa zen³. Kopuru horietatik abiatuz kalkulatu dira pobrezia atalaseak, hau da, Gipuzkoan, pertsona bakarrarentzat, hilean 852,4 eurokoa, pobrezia erlatiboaren kasuan, eta hilean 568,3 eurokoa, pobrezia larriaren kasuan.

2. taula: Diru sarrera apalen eta pobrezia larriaren atalaseak, Eurostat metodoaren arabera. Gipuzkoa 2014
(Euro/hilean)

	Pobrezia erlatiboa edo diru sarrera apalak	Pobrezia larria
1 pertsona	852,4	568,3
2 pertsona	1.278,6	852,4
3 pertsona	1.534,3	1.022,9
4 pertsona	1.790,0	1.193,3
5 pertsona	2.045,7	1.363,8

Oharra: kalkuluak egiterakoan, bigarren kasuan, bi pertsona helduko senitateak hartu da kontuan, eta hurrengoetan, bi pertsona heldu eta 14 urtez peko osaturiko senitateak.

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014.

Erabili ditugun adierazleetako beste bati dagokionean, hau da, eskasia material larriarenari dagokionean, egoera horretan dira gipuzkoarren % 5,2; hau da, 36.800 pertsonak ezin dute, diru arazoengatik, bederatziz gauzez osaturiko zerrenda bateko lau eskuratu. Kontuan hartu ditugun gauza horiek eta gipuzkoarren nola eragiten duten, 3. taulan dira adieraziak.

3. taula: Eskasia material larria. Gipuzkoa 2014
(Tasa eta ukituriko pertsonak)

	Tasa (%)	Pertsona kopurua
Etxebizitzari dagozkion gastuak ordaintzen atzeratu dira	4,5	31.832
Etxebizitzan ezin dute hotzbero egokia izan	8,4	59.894
Ezin diete ezusteko gastuei aurre egin (800 €)	24,2	172.454
Ezin dute haragi, oilasko edo arrain janari bat egin, astean 3 aldiz bederen	2,0	14.182
Ezin dute urtean astebeteko oporraldia egin	29,8	213.004
Ezin dute autoa izan	12,9	92.104
Ezin dute ikuzgailua izan	0,0	353
Ezin dute telebista izan	0,3	2.313
Ezin dute telefonoa izan	0,0	332
+ Eskasia material larria (gutxienik 4 item)	5,2	36.834

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2014.

³ Senitatearen errenta, kontsumo baliokideko unitateen arabera errenta baliokidea bihurtzeko, OCDEren baliokidetza eskala erabiltzen da, zuzendu ostean. Metodo horren bidez, senitate baten kontsumo unitateak kalkulatzeko, kide bakoitzari ematen zaion pizuaen batuketa egiten da: 1 senitatearen lehen pertsona helduari, 0,5 gainerako helduei eta 0,3, berriz, 14 urtez peko. Halatan, bada, senitate bakoitzaren kontsumo unitatearen arabera diru sarrerak izango dira, senitateak osorik hartuz gertatzen diren diru sarrera guztiak, kontsumo unitateen kopuruaren artean zatituz ateratzen dena.

Bestalde, emaitzek erakusten digute ere 60 urtez peko gipuzkoarren % 8,4 lan intentsitate apaleko senitateetan bizi dela –18 eta 59 urte arteko helduak lan egin zezaketen denbora osoaren % 20an baino gutxiago lan egin duten senitateak–, eta lanean direnen % 6,2 pobrezia erlatiboko egoeran direla eta, hartara, langile pobretzat har daitezkeela.

Laburtuz, orain arte aztertu ditugun adierazleen arabera, ikus daiteke gipuzkoarren ia % 20 - pobrezia eta gizarte bazterketaren AROPE adierazlearen arabera- honako hiru egoera hauetako batean bederen dela: pobrezia erlatiboa, eskasia material larria edo lan intentsitate apala.

Bestalde, PGDI metodologiak abiatuz prestaturiko pobrezia adierazleei begiratu gero –hori egiteko, 2014ko PGDItik sorturiko EAE osorako atalaseak hartu ditugu–, emaitzek erakusten digute pobrezia arriskuak, gure lurraldean, biztanleen % 5,8 ukituriko lukeela, hau da, 41.600 bat pertsona eta ia 17.000 senitate liriteke, horren arabera, oinarritzko beharrak ase ezinean. Ongizate gabeko egoeran liriteke, berriz, biztanleen % 12,5, hau da, 89.000 bat pertsona, oinarritzko beharrak ase bai, baina gizartearen beharrezkotzat hartzen diren bizi-modu, ohitura eta jardueretan parte hartzeko adina baliabidegabe.

FOESSA Fundazioak garaturiko kalkulu metodologiaren bidez prestaturiko bazterketa adierazleei dagokionean, ⁴, 2014an, biztanleen % 5,1 –36.300 bat pertsona, 15.000 senitateetako kide direnak– bazterketa larriko egoeran liriteke eta % 8,3 bazterketa moderatuko egoeran; horrekin, bada, bazterketa mota bi horietako batean diren pertsonen ehunekoa % 13,4 litzateke. Gainerako biztanleak honela banaturik dira: % 29,7 halamoduzko gizarteratze egoeran da eta % 57 bete-bete gizarteraturik.

Desberdintasunen adierazleei dagokionean, Gini indizea 26,3koa da, 0tik 100era bitarteko eskala batean, non 0 erabateko berdintasuna den (pertsona guztiek diru sarrera berdina dituzte) eta 100 erabateko desberdinkeria (pertsona batek diru sarrera guztiak ditu eta gainerakoek batere ez). Era berean, S80/S20 adierazleak –diru sarrera handienak dituzten biztanleen %20ren errenta diru sarrera txikiak dituzten biztanleen %20aren errentarekin lotzen dituenak– gure lurralderako 4ko zifra ematen du, hau da, diru gehien duten biztanleen %20ak dituen diru sarrerak diru gutxien dutenen diru sarrerak baino lau aldiz handiagoak dira.

⁴ Metodologia horri buruzko eta Gipuzkoan, dimentsio eta adierazleei dagokionean 2014an lortu emaitzei buruzko informazio zehatzago lortzeko, ikerketa honen I. Eranskina ikus, 3.1, 3.2 eta 3.3 fitxetan.

2.1.2. Arrisku taldeak

Honako taula honek aurreko epigrafean aztertu ditugun adierazten arteko hiruren balioak biltzen ditu –pobrezia larria, pobrezia erlatiboa edo diru sarrera apalak eta eskasia material larria–, zenbait ezaugarri hala pertsonen (sexua, adina, nazionalitatea eta jaiolekua) nola senitarteei (erreferente den pertsonaren sexua eta adina, senitartearen osaera eta lanarekiko harremana) dagozkienetan oinarrituriko funtsezko soslai soziodemografiko zenbaitetarako.

Lortu ditugun emaitzetatik, argi agertzen da, kasu guztietan, atzerritarren (atzerriko nazionalitatea dutenak edo Estatutik kanpo jaiok) eta Espainiako nazionalitate dutenen edo EAEn jaiok direnen artean den aldea. Hautatzen den adierazlearen arabera, gizarte talde honen pobrezia tasak, maila guztietan, edo eskasia materialeko tasak, biztanle ororentzakoak baino 3 eta 6,2 aldiz handiagoak dira. Datu horiek erakusten digute atzerriko nazionalitatea duten etorkinen bizi baldintzen hondatzea; talde horrek, 2000 urtearen hastapenean hasi zen lan migrazio jario handiaren ondorioz, gaur egun, gipuzkoarren % 6,5 inguru osatzen du.

Zertxobait goragoak dira ere emakumeen pobrezia eta eskasia materialaren tasak, batez ere, emazte batek daraman etxeko biztanleenak; senitarte horiek pertsona bakarrekoak izan ohi dira (mota horretako senitarteen % 48 dira) edo emaztea eta seme-alabak dituzten senitartek dira (% 29). Senitarte horien % 23, gizonezko bategen daramatzanen % 13,4ren aldean, pobrezia erlatibo-ko egoeran dira.

Haur pobrezia tasa edo, bestela esanda, pobrezia erlatiboan edo diru sarrera apaleko senitartean bizi diren 18 urtez pekoen ehunekoa, 2014an, % 19,2koa da, hau da, biztanleria osoarentzat dena baino 3,6 ehuneko dira (% 8,8, biztanleria osoaren % 5,4aren aldean), bai eta eskasia materiala ere (% 6,8%, % 5,2ren aldean). Datu hauek, 45 urtez peko pertsonen daramatzaten senitarteen egoerarekin lot daitezke, zeinetan pobrezia larria edo eskasia materiala biztanleria osoarena baino gorago da ere, eta bereziki gorago, erreferente gisa 65 urtetik gorako pertsona duten senitarteen bano.

4. taula: Pobrezia eta eskasia materialaren adierazle nagusiak, biztanleria osoan, pertsonen eta senitarteen zenbait ezaugarriaren arabera. Gipuzkoa 2014

		Zeharkako banaketa (%)				Banaketa zuta (%)				
		Diruzko pobrezia			Eskasia material larria	Diruzko pobrezia			Eskasia material larria	Guztira
		Pobrezia larria	Pobrezia erlatiboa	Pobrezia erlatibo eza		Pobrezia larria	Pobrezia erlatiboa	Pobrezia erlatibo eza		
Sexua	Gizona	5,1	14,0	86,0	5,2	46,0	43,8	49,8	48,8	48,8
	Emaztea	5,7	17,2	82,8	5,2	54,0	56,2	50,2	51,2	51,2
Pertsona nagusiaren sexua	Gizona	5,0	13,4	86,6	4,2	71,4	66,0	78,8	62,3	76,8
	Emaztea	6,7	22,9	77,1	8,4	28,6	34,0	21,2	37,7	23,2
Adina	<18	8,8	19,2	80,8	6,8	28,1	21,3	16,6	23,0	17,4
	18-44	6,8	15,5	84,5	6,3	42,4	33,9	34,1	41,5	34,0
	45-64	4,2	13,8	86,2	4,4	21,3	24,4	28,2	23,6	27,6
	65 eta hortik gora	2,1	15,2	84,8	2,9	8,3	20,4	21,1	11,9	21,0
Pertsona nagusiaren adina	<45	9,1	16,2	83,8	8,0	52,2	32,5	31,0	48,3	31,3
	45-64	3,6	14,8	85,2	3,3	26,9	38,7	41,3	26,5	40,9
	65 eta hortik gora	4,1	16,2	83,8	4,7	20,9	28,8	27,7	25,1	27,9
Nazionalitatea	Espainiakoa	3,5	13,1	86,9	3,7	60,2	78,5	96,3	66,9	93,5
	Atzerrikoa	33,4	52,1	47,9	26,4	39,8	21,5	3,7	33,1	6,5
Jaiolekua	EAE	3,7	12,6	87,4	3,6	54,3	63,5	82,0	55,0	79,1
	Estatuan	3,3	17,7	82,3	4,7	8,4	15,7	13,6	12,6	13,9
	Estatutik at	29,1	46,6	53,4	24,0	37,3	20,8	4,4	32,5	7,0
Senitartea	Pertsona bakarrekoa	4,3	20,0	80,0	7,7	7,7	12,5	9,3	14,6	9,8
	Bikotea seme-alabarik gabe	3,0	11,9	88,1	3,0	10,7	14,9	20,3	11,3	19,5
	Bikotea seme-alabekin	5,8	14,0	86,0	4,1	60,6	50,3	57,4	45,2	56,3
	Guraso bakarrekoa	7,9	27,2	72,8	10,2	15,8	18,9	9,4	21,5	10,9
	Beste	8,0	15,0	85,0	10,9	5,2	3,4	3,6	7,5	3,5
Lanarekin duten harremana Lanarekin duten harremana	Lanerako diren guztiak edo erdia baino gehiago lanean ari	1,0	5,5	94,5	1,5	11,7	22,3	70,9	18,1	63,3
	Lanerako diren erdia edo gutxiago lanean ari	9,6	34,9	65,1	9,7	21,0	26,6	9,2	22,5	11,9
	Lanerakoen artean inor ez lanean	40,2	67,0	33,0	37,1	50,9	29,5	2,7	49,5	6,9
	Inor ez lanerako	5,0	18,8	81,2	2,9	16,4	21,6	17,3	9,9	17,9
Guztira		5,4	15,6	84,4	5,2	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2014.

Senitarteen osarari dagokionean, egoera gaitzago horiek zabalduen diren senitarreak guraso bakarrekoko dira; senitarreak horiek % 33an, guraso bat eta 18 urtez peko gutxienik seme-alabaren batez osatuak dira. Hala ere senitarreetan, biztanleen ia % 11 bizi da eta pobrezia erlatiboan diren guztien % 19 dira eta eskasia material larrian diren ia % 22a.

Era berean, senitarreak lanarekin duten harremanari dagokionean, pobrezia tasa gorenak dituzte lan egiteko adin eta moduan diren guztiak lan gabe dituzten senitarreak: pertsona horien ia bi herenak pobrezia erlatiboan dira eta % 40,2 pobrezia larrian.

Biztanleak, FOESSA Fundazioak garatu duen metodologiak adierazten duen gizarteratze/baztertze mailaren arabera sailkatzerakoan, berriz, 5. taularen emaitzek erakusten digute ezen, pobreziarekin eta eskasia materialarekin gertatzen zen bezala, bazterketa larriko prozesuak estuki loturik direla, ez soilik biztanleen jatorriari, baizik eta baita senitarreak, enpleguari dagokionean duten egoerarekin eta senitarreen osarearekin ere.

Estatutik at jaio diren artean, gizarte bazterketa, bere maila guztiak kontuan hartuz, % 42koa da. Talde horretan, erabateko gizarteratze maila %22koa besterik ez da; biztanleria osoa kontuan hartuz, aldiz, ia % 57koa

da. Bazterketa egoerak oraindik ere hedatuagoak dira lan adinean diren senide guztiak lan gabe dituzten senitarreetan: horietan bizi diren % 26,7 bazterketa larrian da eta erabateko gizarteratzea % 4koa besterik ez da. Bazterketa tasa apalagoak badituzte ere, norbait lan gabe dituzten senitarreak ere bazterketa tasa gora samarrak dituzte.

Familiaren osarari dagokionean, bazterketa tasa gorenak pertsona bakarrekoko senitarreak eta guraso bakarrekoko familek dituzte; senitarreak horietako pertsonen % 20 inguru dira bazterketa larrian edo moderatuan. Beste muturrean lireratek seme-alabarik gabeko bikote batez osaturiko senitarreak, haien bazterketa tasa % 8,8koa besterik ez baita.

Pobrezia kasuan ikusi denaz bestela, bazterketaren kasuan, sexu eta adin aldagaiak, esanguratsuak badira ere, ez dituzte hain desberdintasun gordinak ekartzen gizarte taldeen artean. Halarik ere, bazterketa gutxiago ematen da erreferente gisa gizon bat duten senitarreetan eta 65 urtetik gorakoekin artean.

5. taula: Biztanleen banaketa, gizarteratze/baztertze mailaren arabera, pertsonen eta senitarreen zenbait ezaugarri kontuan hartuz. Gipuzkoa 2014

		Zeharkako banaketa (%)				Banaketa zuta (%)				
		Gizarteratzea	Halamoduzko gizarteratzea	Bazterketa moderatua	Bazterketa larria	Gizarteratzea	Halamoduzko gizarteratzea	Bazterketa moderatua	Bazterketa larria	Guztira
Sexua	Gizona	56,6	30,1	8,6	4,6	48,7	49,5	50,3	44,6	48,8
	Emaztea	57,0	29,4	8,1	5,5	51,3	50,5	49,7	55,4	51,2
Pertsona nagusiaren sexua	Gizona	56,8	30,3	8,6	4,4	76,8	78,1	79,2	66,1	76,8
	Emaztea	57,0	28,1	7,5	7,4	23,2	21,9	20,8	33,9	23,2
Adina	<18	54,5	32,1	7,6	5,9	16,6	18,7	15,8	20,1	17,4
	18-44	51,6	32,1	10,2	6,0	30,9	36,8	41,9	40,1	34,0
	45-64	58,1	28,4	8,7	4,8	28,2	26,3	28,8	26,0	27,6
	65 eta hortik gora	65,5	25,8	5,4	3,3	24,2	18,2	13,5	13,8	21,0
Pertsona nagusiaren adina	<45	49,9	33,7	9,6	6,9	27,4	35,4	36,0	42,2	31,3
	45-64	58,1	29,0	8,1	4,8	41,8	39,8	40,0	38,6	40,9
Nazionalitatea	65 eta hortik gora	62,8	26,5	7,2	3,5	30,8	24,8	24,0	19,3	27,9
	Espainiakoa	59,2	29,6	7,2	4,0	97,5	93,2	80,4	73,1	93,5
Jaiolekua	Atzerrikoa	22,1	31,5	25,2	21,2	2,5	6,8	19,6	26,9	6,5
	EAE	58,9	29,9	7,3	3,9	82,0	79,5	69,7	60,7	79,1
	Estatuan	60,1	28,3	7,2	4,4	14,7	13,2	12,1	11,9	13,9
Senitarreak	Estatutik at	27,2	31,0	21,8	20,0	3,3	7,3	18,2	27,4	7,0
	Pertsona bakarrekoko	54,8	25,7	11,4	8,1	9,5	8,5	13,4	15,7	9,8
	Bikotea seme-alabarik gabe	66,3	24,9	6,1	2,7	22,7	16,3	14,3	10,3	19,5
	Bikotea seme-alabekin	55,2	32,0	7,7	5,0	54,7	60,6	52,2	55,7	56,3
	Guraso bakarrekoko	50,3	30,2	12,3	7,1	9,6	11,1	16,1	15,3	10,9
Lanarekin duten harremana	Beste	56,2	30,0	9,5	4,4	3,5	3,6	4,0	3,0	3,5
	Lanerako diren guztiak edo erdia baino gehiago lanean ari	67,0	25,4	5,3	2,2	74,6	54,1	40,3	27,8	63,3
	Lanerako diren erdia edo gutxiago lanean ari	19,7	56,4	14,3	9,6	4,1	22,6	20,5	22,5	11,9
	Lanerakoekin artean inor ez lanean	4,0	36,6	32,7	26,7	,5	8,5	27,0	36,2	6,9
Guztira	Inor ez lanerako	65,8	24,7	5,7	3,8	20,8	14,9	12,2	13,5	17,9
		56,8	29,7	8,3	5,1	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta2014.

2.1.3. Beste lurraldeekiko erkaketa

Gipuzkoako 2014ko egoera, aztertu ditugun adierazle gehienei dagokienean, EAEnarekin erka daiteke – 2014ko Gizarte Beharren Inkestaren PGDI-Pobrezia modulutik eta 2013ko FOESSAren Gizarteratze eta Gizarte Beharren Inkestatik (EINS) abiatuz–, Espainiar Estatuarenarekin eta Europar Batasunarenarekin –azken kasu honetan, 2014ko eta 2013ko datuetatik, Bizi Baldintzen Inkestatik aterata lehenak eta Europar Batasunaren Errenta eta Bizi Baldintzen gaineko Estatistiketatik (EU-SILC) besteak.

Gipuzkoaren egoera EAEnarekin PGDIren datuetatik abiatuz erkatzeari dagokienean, kontuan hartuz PGDIren landa lana uda baino lehen egin zela eta GPGBIrena, berriz, 2014ko irail eta azaro artean, bildu ditugun adierazle gehienek erakusten digute gure lurraldearen egoera hobea dela oraindik ere. Gipuzkoak duen batezbesteko errenta baliokidea EAEna baino % 5 gora goa da eta, horrez gain, pobrezia erlatiboko kasu gutxiago du (% 15,6 Gipuzkoan eta % 18,5 EAEn) eta diru sarrerei loturiko desberdintasun egoera zertxobait gutxiago, EAEn, oro har, direnak baino. Gure lurraldean, txikiagoak dira ere mantentzearen dimentsioko pobrezia egoerak. Guztiarekin ere, zifra hori kontu handiz hartu behar da, horren kalkulatzeko, PGDIk EAE osorako ematen dituen atalaseak baliatu baitira; hala egin delarik, oso litekeena da egoera horiek gure lurraldean duen eragina gutxietsiak izatea.

Oro har, lurralde esparru desberdinak kontuan harturik – autonomia esparrua, Estatukoa eta Europakoa–, baliatu diren adierazleek azaltzen duten egoera hobea da Gipuzkoan, gainerako esparruetan baino. Salbuespen bakarra pobrezia larriaren kasua da, EAEn kasuan (% 4,9) urte berean Gipuzkoan hautemanikoa (% 5,4) baino apalagoa baita. Pobrezia larria gehiagotan ematez gain, EAEn diren alde nagusietako beste bat da, Gipuzkoan, pobrezia arriskuan direnen herena pobrezia larrian ere dela (gauza bera gertatzen da EB-15aren kasuan) eta Euskadiren kasuan, aldiz, ehuneko hori ia laurdena besterik ez dela. Bestalde, Espainiaren kasuan, ia erdia da ehuneko hori.

Biztanleen gizarteratze/baztertzeko mailari loturiko emaitzei so eginez gero, ikus daiteke erabateko gizarteratzea askoz gehiago ematen dela Gipuzkoan, ez soilik Espainian baino, ezpada EAEn baino ere; bazterketa egoerak, berriz, bai nolabaitekoa bai eta larria ere, nabarmen goragoak dira Espainian EAEn eta Gipuzkoan baino.

Azkenik, esan daiteke adierazle horiek Gipuzkoaren kasuan ematen dituzten emaitzak –gure lurraldean zertxobait hobeak badira ere–, askoz hurbilago direla EB-15ekoetatik Estatukoetatik baino. Nabarmenenak pobrezia larriari eta bazterketa larriari loturiko emaitzak dira, Espainian biztanleen ia % 10 jotzen baitituzte egoera horiek, eta Gipuzkoan, aldiz, % 5a pasatxo.

6. taula: Pobrezia, eskasia material, Gizarte bazterketa eta desberdintasun adierazle nagusiak. Gipuzkoa, EAE, Espainia eta EB-15
(Biztanleria osoaren gaineko tasak)

		Gipuzkoa 2014	EAE 2014	Espainia 2014	Europar Batasuna EB-15 2013
EU-SILC adierazleak	Pobrezia erlatiboa edo diru sarrera apalak	15,6	18,5	22,2	16,4
	Pobrezia larria	5,4	4,9	10,6	5,5
	Eskasia material larria	5,2	5,2	7,1	7,3
	Lan intentsitate apala	8,4	12,0	17,1	11,5
	Pobrezia eta bazterketa (AROE)	19,5	22,7	29,2	23,1
PGDI adierazleak	Pobrezia erlatiboa, lanean den biztanlerian	6,2	--	12,6	8,6
	Pobrezia	5,8	8,2	--	--
FOESSA adierazleak	Ongizate eza	12,5	21,9	--	--
	Guztiz gizarteratua	56,8	38,1	34,3	--
	Halamoduz gizarteratua	29,7	45,3	40,6	--
	Bazterketa moderatua	8,3	11,4	14,2	--
Desberdintasun adierazleak	Bazterketa larria	5,1	5,2	10,9	--
	Gini indizea	26,3	27,1	34,7	30,4
Diru sarreren adierazleak (euro/hilean)	S80/S20	4,0	4,2	6,8	4,9
	Batezbesteko errenta baliokidea	1.420,6	1.353,2	1.105,7	--
	Pobrezia erlatiboaren atalasea	852,4	811,9	663,4	--
	Pobrezia larriaren atalasea	568,3	541,3	442,3	--

Oharra: EAE eta Espainiako datu oro 2014koak dira, salbu FOESSA adierazleak, 2013koak baitira.

Iturriak: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta2014; Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Berezkoa. Gizarte Beharren gaineko Inkesta, 2014. PGDI-Pobrezia Modulua; INE. Encuesta de Condiciones de Vida; Eurostat. EU-SILC (European Union Statistics on Income and Living Conditions); LORENZO GILSANZ, F. (koord.) (2014). VII Informe sobre Exclusión y Desarrollo Social en España. Madrid: FOESSA Fundazioa, Cáritas Española Editores; FLORES MARTOS, R. eta URBICH, T. (koord.)(2014) Informe sobre exclusión y desarrollo social en el País Vasco.FOESSA Fundazioa.

2.2. Pobrezia, desberdintasun eta gizarte bazterketa egoeren bilakaera

Gipuzkoako 2012ko eta 2014ko Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestaren bi aldietan lortu diren emaitzetatik abiatuz, pobrezia, gizarte bazterketa edo desberdintasun egoerak bi ikuspuntutatik azter daitezke: lehenik, bi laginak zein bere aldetik hartuz azter daitezke; horrela jakin daiteke zenbateraino aldatu den biztanleen egoera azken bi urteotan. Azterketarako beste ikuspuntu bat izan daiteke 2012ko inkestan parte hartu zuten eta 2014an berriz ere parte hartu duten senitarteen bilakaera aztertzea -924 guztira, hau da, 2012ko laginaren % 77-. Bi ikuspuntuak baliatuz, azter daiteke, ez soilik gipuzkoar gizartearen bi urteotako bilakaera, bi argazki finkoen bitartez, baina baita bi urteotan familia lagin handi batek, luzeran ikusirik, egin duen ibilbidea ere.

2.2.1. Adierazle nagusien bilakaera

Lehen ikuspuntutik, aztertu ditugun adierazle gehienek, 7. taulan ikus daitekeen bezala, egoera zertxobait hobetu dela erakusten digute. Pobrezia erlatiboaren edo diru sarrera apalen tasa % 16,8koa izatetik % 15,6koa izatera pasa da bi urteotan, hau da, 1,2 puntutan apaldu da; pobrezia eta bazterketa arriskuaren AROPE tasa 3,2 puntutan apaldu da; lanean direnen diru sarrera apalena, berriz, 0,8 puntutan, eta Gini indizea 0,9 puntutan, nahiz eta S80/S20 harremana 0,2 puntutan emendatu den. Diru sarreraren adierazleei dagokienez, egoera nola edo hala mantentzen dela ikusten da, senitarteen batezbesteko errenta % 1,2 emendatu delarik. Aldaketa oso arinak dira denak, baina gipuzkoarren bizi baldintzen nolabaiteko hobekuntzaren ideia ematen dute.

Bilakaera ona erakusten diguten neurriez gain, bi adierazle okerrera egiten dutela ikus daiteke ere; biak pobrezia eta gizarte bazterketa egoera larriekin loturik dira: pobrezia larriaren adierazlea da bat, 1,1 puntu gora egiten baitu, bi urteotan, eta bazterketa adierazlea bestea, zeina, maila larrikoa eta maila moderatukoa batera kontuan hartuz gero, bi urteotan, gipuzkoarren % 11,8 hartzetik % 13,4 hartzera pasatu baita. Datu horiek uzten digute pentsatzera ezen, egoerak egin duen hobetzeak ez dituela kolektibo guztiak berdinduz eta biztanleen artean nolabaiteko polarizazioa gertatzen ari dela, arrisku edo prekarietate egoeran diren taldeak eta pobrezia eta bazterketa egoera larriak bizitzen ari diren taldeak barnean sarturik.

Gipuzkoan, zenbait adierazletan ikus daitekeen hobetzea ez dator bat Gizarte Beharren Inkestaren PGDI-Pobrezia moduloak EAerako, aldi berean (2012/2014), erakusten duen okertzearekin. Halere, zehaztu behar da Gipuzkoako inkesta egin zenean langabezia tasa orokorrak murrizten hasiak zirela, Gipuzkoan bederen, eta hartara, ekonomiaren nolabaiteko hobetzea gertatzen ari zela. Esan behar da ere, Gipuzkoari dagokionean, PGDI-k egoeraren okertze oso moderatua erakusten zuela, nolahi dela ere, EAerena baino askoz apalagoa. Halatan, adibidez, Autonomia Erkidegoan, oro har, mantentze pobrezia tasa, PGDI-aren arabera, % 7,3tik % 8,2ra pasatzen zen bitartean, Gipuzkoan, berriz, % 6,3tik % 6,6ra pasatzen zen. Benetako ongizate ezaren adierazlearen beraren kasuan ere, Gipuzkoan, 2012 eta 2014 artean, apaldu egiten da (% 8,2tik % 7,7ra) eta apaltze hori ez da Araban edo Bizkaiaren gertatzen. Horregatik guztiagatik, oro har, esan daiteke bi inkestak, PGDI eta GPGBI, 2014rako, nolabaiteko hobetzea erakusten ari direla, gure lurralderako, eta hori ez dela gertatzen, oraingoz bederen, EAE bere osotasunean harturik.

7. taula: Pobrezia, gizarte bazterketa eta desberdintasun adierazle nagusien bilakaera. Gipuzkoa 2014

		Pertsonak				Senitarreak			
		2012	2014	Bilakaera		2012	2014	Bilakaera	
				Aldea.	Bilak.			Aldea.	Bilak.
EU-SILC adierazleak	Pobrezia erlatiboa edo diru sarrera apalak	16,8	15,6	-1,2	▼	17,6	15,6	-2,0	▼
	Pobrezia larria	4,3	5,4	+1,1	▲	4,0	4,4	+0,4	▲
	Eskasia material larria	5,2	5,2	--	=	6,1	5,2	-0,9	▼
	Lan intentsitate apala	9,3	8,4	-0,9	▼	13,0	10,9	-2,1	▼
	Pobrezia eta bazterketa (ARPE)	22,7	19,5	-3,2	▼	22,9	19,2	-3,7	▼
	Pobrezia erlatiboa, lanean den biztanlerian	7,0	6,2	-0,8	▼	--	--	--	--
FOESSA adierazleak	Pobrezia	58,4	56,8	-1,6	▼	57,7	57,5	-0,2	=
	Ongizate eza	29,7	29,7	--	=	29,9	28,9	-1,0	▼
	Guztiz gizarteratua	7,0	8,3	+1,3	▲	7,1	8,3	+1,2	▲
Desberdintasun adierazleak	Halamoduz gizarteratua	4,8	5,1	+0,3	▲	5,3	5,3	--	=
	Bazterketa moderatua	27,2	26,3	-0,9	▼	--	--	--	--
Diru sarreraren adierazleak (euro/hilean)	Bazterketa larria	3,8	4,0	+0,2	=	--	--	--	--
	Gini indizea	1.404,2	1.420,6	+16,4	▲	--	--	--	--
	S80/S20	842,5	852,4	+9,9	▲	--	--	--	--
	Batezbesteko errenta baliokidea	561,7	568,3	+6,6	▲	--	--	--	--

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012-2014.


Horiek horrela, azalpen zehatzagoa behar da, ulertuko badugu zergatik, denbora tarte honetan, pobrezia erlatiboan izan den murrizketarekin batera, pobrezia larriak zertxobait gora egin duen.

Kontuan hartuz ezen pobrezia larriaren adierazleak neurtzen duela, erabateko pobrezia baino gehiago, biztanleen osotasunarekin alderatuz, diru sarrera oso apalak dituztenen kopurua, batez ere, pentsa daiteke adierazle hori gora egitera eraman duten prozesuetako bat izan daitekeela, krisi ekonomikoa gainditzten haste-ko testuinguru batean, biztanleetako batzuk, diru sarre-
rak, enpleguaren bidez, hobetzen ari direla. Horrek, alde batetik, eta langabe segitzen dutenek langabezia babe-
seko diru sarrerak galduz diru sartze eskasagoak iza-
teak, beste aldetik, ekar dezakete azken talde hori, batezbesteko diru sarrerak gora egin duten testuinguru batean, besteekiko egoera okerragoan direla azaltzea.

Izan ere, GPGBIren emaitzek lana dutenen kopuruaren emendatze txiki bat adierazten dute, 2012 eta 2014 artean, hau da, lan egiten dutenen kopurua % 1,7 emendatu da. Horrez gain, aldi berean, lan gabe direnen kopurua 7.500etik gora pertsonetan gutxitu da, baina 3 puntutan emendatu da, aldiz, lan gabe eta langabezia laguntzarik gabe direnen ehunekoa. Ikuspuntu horretatik uler daiteke zergatik murriztu den zertxobait pobrezia erlatiboaren adierazlea, lana lortzen dutenen egoerak hobera egiten baitu, bai eta zergatik emendatu den pobrezia larria, biztanlerian orokorrean gertatu den diru sarreraren batezbesteko mailak zertxobait gora egin due-
lako, hain zuzen ere.

Hastapena besterik ez bada ere eta oso arina izanik ere, datu hauek pentsatzera eraman gaitzakete gizarte polarizazio prozesu bat, pobrezia erlatiboaren pobretze prozesu bat abian dela. Izan ere, Gipuzkoan, pobrezia larrian direnen kopurua emendatzeaz gain, pobrezian ez direnen kopu-
rue ere emendatu da, baina tarteko zatia txikiago egin da, hau da, pobrezia larrian izan gabe, diru sarrera apa-
lak dituztenen zatia (ikus 1. grafikoa). Hau da, muturreko egoerak zertxobait emendatu dira.

1. grafikoa: Biztanleak pobrezia/pobrezia eza eskalan banatzearen bilakaera. Gipuzkoa 2012-2014



Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkes-
ta2012-2014.

Joera hori ikus daiteke ere biztanleriaren batezbesteko diru sarrerak hamar zati berdinean edo deziletan banatuz gero (ikus 8. taula). Hala eginez gero, ikus daiteke ba-
tezbesteko diru sarreratik beherako diru sarrerak dituz-
ten taldeen barnean –1etik 5era bitarteko dezila–, 2012 eta 2014 artean, diru sarreretan behera egiten duen bakarra dezil apalenekoa dela (gizartearen %10 po-
breena).

8. taula: Biztanleen batezbesteko errenta baliokidearen bilakaera, diru sarreraren dezilen arabera. Gipuzkoa 2012-2014 (Euro/hileko)

	2012	2014	Bilakaera (%etan)
1. dezila	602	560	-7,0%
2. dezila	800	833	4,2%
3. dezila	973	1.019	4,7%
4. dezila	1.169	1.193	2,1%
5. dezila	1.308	1.346	2,9%
6. dezila	1.500	1.501	0,1%
7. dezila	1.698	1.650	-2,8%
8. dezila	1.905	1.935	1,6%
9. dezila	2.167	2.243	3,5%
10. dezila	2.807	2.911	3,7%
Guztira	1.404	1.421	1,2%

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkes-
ta2012-2014.

Aldaketa erlatibo garrantzitsua ageri da, aldiz, 2. eta 3. deziletako batezbesteko diru sarreretan (diru sarrera apalak dituzten pertsonenak, gehienak pobrezia erlati-
boan dira, baina ez larrian), eta 9. eta 10. deziletan, hau da, diru sarrera gorenak dituzten % 20 biztanleenetan.


Horren ondorioz, esan ote daiteke diru sarreraren arabera gizarte desberdintasunak emendatu direla Gipuz-
koan? Nolabaiteko gizarte polarizazioa gertatzen hasi dela pentsaraz dezaketen datuak badira ere, orain aipa-
tu berri ditugunak kasu, oraindik oso goiz da horrelako ondoriara heltzeko.

Bide horretan, hori neurtzeko baliatzen diren adierazleek – Giniren koefizientea eta S80/S20 erlazioa– ez dute hori argi uzten. Izan ere, Giniren koefizientearen arabera –errentaren arabera banaturiko biztanleriaren zama metatuaren eta biztanleria horrek duen errentaren zama metatuaren arteko erlazioa azaltzen duen adierazlea–, desberdintasuna zer edo zer gutxitu da (27,2tik, 2012an 26,3ra, 2014an), baina pentsa daiteke hori ger-
tatu dela pobrezia erlatiboaren atalasean ziren gizarte talde zenbaitek 2012an zuten egoera hobetu dutelako.

Diru sarrera handienak dituzten biztanleen % 20aren guztizko errenta diru sarrera apalena dituzten biztan-
leen % 20aren guztizko errentarekin lotzen duen S80/S20 adierazleari dagokionean, emaitzek alderan-
tzizko bilakaera adierazten dutela dirudi, ordea.

2012 eta 2014 artean, adierazle hau 3,8tik 4ra pasatu da; horrek uzten du pentsatzera orain lehen baino handiagoa dela gure gizarteko biztanle aberatsenen eta pobreenen arteko arrakala. Halarik ere, aldi honetarako ageri den aldea guztiz ñiminoa da, diru sarrera guztiak biztanleen kintiletan banatzeari buruzko hurrengo grafikoak erakusten duen moduan. 2012an, errenta gutxien zuen gipuzkoarren % 20ak errentaren % 9a zuen guztira, eta diru sarrera handienak zituen % 20ak, berriz, errenta osoaren ia % 34a zuen. 2014an, ehuneko horiek % 8,8 eta % 34,8koak dira.

2. grafikoa: Guztizko diru sarreren bilakaera, biztanleen kintiletan. Gipuzkoa 2012-2014



Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta2012-2014.

Epigrafe honen hastapenean aipatu dugun bezala, pobrezia larriaz gain, bazterketa egoerak ere (ez horrenbeste bazterketa larria nola, batez ere, moderatua) zertxobait emendatu dira gure lurraldean.

9. taula: Gizarte bazterketaren moduren bat bizi duten pertsonen ehunekoaren bilakaera. Gipuzkoa 2012-2014

	2012	2014	Bilakaera
Lanetik baztertua	19,2	13,2	▼
Kontsumotik baztertua	1,8	2,4	▲
Politikatik baztertua	7,5	10,3	▲
Heziketatik baztertua	2,6	1,6	▼
Etxebizitza bazterketa	24,2	26,5	▲
Osasunetik baztertua	6,2	5,7	▼
Gizarte gatazka	3,9	3,9	=
Gizartetik bakartua	0,8	0,8	=

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta2012-2014.

Gizarte bazterketaren maila bakoitza aztertzen denean, FOESSA metodologia erabiliz (ikus 9. taula), ikus daiteke okerren doazenak kontsumoari, politika alorrari eta etxebizitzari loturikoak direla. Lehenari dagokionean, (7. eta 8. adierazleen bitartez eraikia) emendatze hori muturreko pobrezia egoeran diren senitarteetan (diru sarren % 30eko atalasetik pekoak) bizi diren pertsonen kopuruan gertaturiko emendatzeari loturik litzateke, batez ere, talde hori, denbora tarte horretan, % 1,7tik % 2,4ra pasatu baita. Ardatz politikoari loturiko bazterketaren emendatzea –biztanleen % 7,5etik % 10,3ra pasatzen baita eta 9 eta 10 adierazleetan ikus daiteke– gertatu da senitarte gehiagok adierazi duelako ez dutela inongo elkarte edo gizarte erakundetan parte hartzen edota ez dutela, normalean, hauteskunde politikoetan parte hartzen. Azkenik, etxebizitzari loturiko bazterketa dela eta (dimensio hori 14tik 21 bitarteko adierazleen bidez kalkulatu da), aldi honetan emendatu den neurri bakarra etxean hezeguneak, itoteak edota leihoetan eta ateetan ustel uneak izatearena izan da, % 9,1 izatetik % 13,2 izatera pasa baita.

10. taula: Gizarte bazterketako FOESSA adierazleen bilakaera. Gipuzkoa 2012-2014
(Biztanleria osoaren gaineko ehunekoak)

	2012	2014		2012	2014
1. Pertsona nagusia lan gabe, urtebetez edo luzeago.	5,4	3,4	19. Ingurune andeatuetan diren etxebizitzetan bizi diren senitarteak	1,5	1,7
2. Pertsona nagusia kontratu gabeko lanean	0,3	0,3	20. Arkitektura oztopoak dituzten etxebizitzak	8,9	5,0
3. Pertsona nagusia segurantzako sozialik gabe lanean.	1,3	0,7	21. Gastu gehiegi dituzten etxebizitzak	5,6	5,7
4. Landunik edo pentsiodunik gabeko senitartea	2,9	3,8	22. Osasun babesik ez duen norbait duten senitarteak	0,5	0,1
5. Lan formakuntzarik gabeko langabeak dituzten senitarteak	15,9	9,7	23. Gosea pasa duten edo pasatzen duten senitarteak	0,9	1,1
6. Lanerakoak lirakeen guztiak langabe dituen senitartea	1,0	1,6	24. Denek dute ezintasunen bat, eritasunen bat edo mendekotasunen bat	1,3	1,2
7. Muturreko pobrezian diren senitarteak (% 30)	1,7	2,4	25. Laguntzarik gabe diren mendekoak dituzten senitarteak	0,1	0,2
8. Oinarritzko ondasunen bat falta duten senitarteak	0,3	0,0	26. Medikua erangana ez doazen eriak dituzten senitarteak	0,6	0,4
9. EBtik kanpoko atzerritar +18koak dituzten senitarteak	4,2	4,1	27. Botiken edo janariaren gastua murrizten duten senitarteak	3,9	3,6
10. Hauteskunde/elkarteetan parte hartzen ez duten senitarteak	3,4	6,6	28. Norbaitek tratu txarrak jasan edo jasaten ditu	1,2	0,7
11. Eskolara gabeko 3-15 urte bitartekoak dituzten senitarteak	0,1	0,3	29. Kideen artean harremanak gaiztoturik diren senitarteak	0,7	1,5
12. Ikasketarik gabeko 16-64 urtekoak dituzten senitarteak	2,0	0,9	30. Zerbaiten mende izateko arazoren bat duten senitarteak	2,0	1,9
13. 65+ urtetik gorako analfabetoren bat duten senitarteak	0,5	0,5	31. Norbait nerabe-ama, kiderik gabe	0,0	0,3
14. Azpibizitzetan bizi diren senitarteak	--	--	32. Justiziarekin arazoak dituzten senitarteak	0,8	0,4
15. Eskasia larriak dituzten etxebizitzetan bizi diren senitarteak	2,9	2,8	33. Sostengurik ez duten pertsonak dituzten senitarteak	0,5	0,5
16. Hezetasuna duten etxebizitzetan bizi diren senitarteak	9,1	13,2	34. Auzoekin oso harreman gaiztoak dituzten senitarteak	0,3	0,4
17. Metatze larria (<15 m ² baliagarri pertsonako)	5,1	4,9	35. Norbait erakundetan dituzten senitarteak	0,0	0,0
18. Etxebizitza segurtasunik gabe daukan senitartea	0,1	0,2	Senitarteak, guztira	100,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta2012-2014.

Egoerak bilakaera bera egin du biztanle talde ororentzat? Generoaren ikuspuntutik, denak seinatzen du emazteentzat emendatu direla pobrezia egoerak zertxobait, bai eta bazterketakoak ere. Joera hori ez da argia, baldin eta senitarteko erreferente den pertsonaren sexuari begiratzen badiogu. Kasu horretan, pobrezia erlatiboko egoeretan, emazte batek daramatzan etxeetan bizi direnen zama espezifikoa emendatze bat gertatu da; bazterketa egoeren artean, aldiz, gizonen daramatzan senitartekok dute gehien okertu beren egoera.

Adinaren ikuspuntutik eta batez ere egoera larrienak – pobrezia-egoerak, batez ere- azaltzen dituzten adierazleetan, egoera, adin txikikoentzat okertzen da. Nolanahi dela ere, pentsa daiteke pobrezia larriaren adierazleak okerrera egitea loturik dela, neurri handi batetan, etorkinen egoeraren okertzearekin, eta pobrezia erlatiboaren adierazleak hobera egitea argiagoa izango zela, atzerriko nazionalitatea dutenen egoerak okerrera egin ez balu. Guztiarekin ere, adin txikikoentzat emendatu da pobrezia larriaren diren artean, lehen, egoera horretan zirenen % 25 izatera heltzen ez baziren, orain % 28,1 baitira, biztanleria osoan duten zama espezifikoa % 17,4koa besterik ez bada ere.

Nabarmen emendatzen dira ere, lehen aipatu dugun bezala, pobrezia larriko egoerak (baina ez pobrezia erlatibokoak) atzerriko nazionalitatea dutenen artean. Guztiarekin ere, hoberako bilakaera da eskasia materiala eta gizarte bazterketako egoeretan. Bi adierazle emaitzak, talde horrentzat, 6 eta 9 punturen artean gutxitzen dira, nahiz eta biak oraindik oso goian izan: atzerrikoentzat laurden luzea bizi da eskasia materiala duten senitartekoen eta ia erdia da, oraindik ere, gizarte bazterketaren graduak batean. Bestalde, EAEn jaiotakoentzat, aldaketak ez dira horren nabarmenak izan, aztertutik adierazle ia guztiak –pobrezia erlatibokoak ez, bertakoentzat %14koa izatetik %12,6 izatera pasa baita bi urteotan- zer edo zer okerrago badira ere.

Familiaren osakerari dagokionean, aipatzekoa da, pobrezia larriko egoeretan, emendatu dela bikote heldua eta seme-alabez osaturiko senitarteen zama espezifikoa: 2012tik 2014ra, horrelako senitartekoen diren pertsonak, pobrezia larriaren diren senitarte ororen arteko % 4,1 izatetik % 5,8 izatera pasa dira; hori seguruenik loturik da haurren pobrezia larriaren emendatzearekin.

11. taula: Pobrezia, eskasia eta gizarte bazterketaren adierazle nagusien banaketa, pertsonen eta senitarteen zenbait ezaugarriaren arabera. Gipuzkoa 2014
(Banaketa zuta %)

		Diruzko pobrezia				Eskasia materiala eta bazterketa				Guztira	
		Pobrezia larria		Pobrezia erlatiboa		Eskasia material larria		Bazterketa moderatu eta larria			
		2012	2014	2012	2014	2012	2014	2012	2014	2012	2014
Sexua	Gizona	50,2	46,0	48,4	43,8	47,5	48,8	50,8	48,1	48,7	48,8
	Emaztea	49,8	54,0	51,6	56,2	52,5	51,2	49,2	51,9	51,3	51,2
Pertsona nagusiaren sexua	Gizona	70,2	71,4	70,6	66,0	63,4	62,3	61,4	74,3	77,5	76,8
	Emaztea	29,8	28,6	29,4	34,0	36,6	37,7	38,6	25,7	22,5	23,2
Adina	<18	24,9	28,1	22,1	21,3	27,6	23,0	16,8	17,4	17,6	17,4
	18-44	37,2	42,4	33,1	33,9	38,3	41,5	39,1	41,2	34,9	34,0
	45-64	25,6	21,3	21,1	24,4	25,4	23,6	26,3	27,7	27,3	27,6
	65 eta hortik gora	12,3	8,3	23,7	20,4	8,7	11,9	17,8	13,6	20,2	21,0
Pertsona nagusiaren adina	<45	37,4	52,2	36,2	32,5	55,4	48,3	34,0	38,3	31,9	31,3
	45-64	47,1	26,9	32,8	38,7	32,4	26,5	41,2	39,5	42,7	40,9
	65 eta hortik gora	15,5	20,9	31,1	28,8	12,2	25,1	24,8	22,2	25,4	27,9
Nazionalitatea	Espainiakoa	66,2	60,2	79,0	78,5	52,7	66,9	68,9	77,7	93,0	93,5
	Atzerrikoa	33,8	39,8	21,0	21,5	47,3	33,1	31,1	22,3	7,0	6,5
Jaiolekua	EAE	46,7	54,3	63,1	63,5	42,7	55,0	48,9	66,3	76,2	79,1
	Estatuan	20,8	8,4	16,4	15,7	11,1	12,6	20,4	12,0	16,5	13,9
	Estatutik at	32,5	37,3	20,4	20,8	46,2	32,5	30,7	21,7	7,3	7,0
	Pertsona bakarrekoa	7,3	7,7	12,1	12,5	17,5	14,6	13,7	14,3	8,4	9,8
Senitartea	Bikotea seme-alabarik gabe	11,7	10,7	18,5	14,9	6,5	11,3	16,6	12,8	19,1	19,5
	Bikotea seme-alabekin	56,9	60,6	50,7	50,3	49,8	45,2	45,7	53,5	59,5	56,3
	Guraso bakarrekoa	23,0	15,8	16,8	18,9	24,9	21,5	18,3	15,8	8,4	10,9
	Beste	1,1	5,2	1,9	3,4	1,3	7,5	5,7	3,7	4,6	3,5
Lanarekin duten harremana	Lanerako diren guztiak edo erdia baino gehiago lanean ari	15,1	11,7	31,2	22,3	34,7	18,1	31,1	35,6	59,7	63,3
	Lanerako diren erdia edo gutxiago lanean ari	18,7	21,0	18,5	26,6	24,9	22,5	25,4	21,2	16,0	11,9
Lanarekin duten harremana	Lanerako diren artean inor ez lanean	56,5	50,9	28,3	29,5	30,9	49,5	29,9	30,5	7,2	6,9
	Inor ez lanerako	9,7	16,4	21,9	21,6	9,4	9,9	13,6	12,7	17,0	17,9
Guztira		100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Biztanleria osoaren %		4,3	5,4	16,8	15,6	5,2	5,2	11,8	13,4	100,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2014.

Azkenik, familiak duen lan egoeraren ikuspuntutik, egoera hobetu zaie lanerako izan litezkeen guztiak lanean ari diren senitarteetan, baina okerrera egin du, lanerako litezkeen baina lanik ez duten pertsonak dituzten senitarteentzat, nahiz eta, termino absolutetan, talde hori ere, 2012an baino txikiagoa den orain. Bereziki nabarmen egin du okerrera lana dutenak eta ez dutenak elkarrekin bizi diren familien egoerak, haien kasuan, pobrezia adierazleek nabarmen gora egin dute; pobrezia larrikoak % 5etik % 9,6ra igo dira eta pobrezia erlatibokoak % 19,4tik % 34,9ra; aldi berean, batezbesteko diru sarrera baliokidea ia % 9an gutxitu da (1.283 euro/hilekotik 1.168tara). Familia horien osuera, urte bate-tik bestera alda bazitekeen ere, gerta daiteke ere lan merkatuaren okertze bat izatea, ez horrenbeste lanpostuak sortzeari dagokionean, nola sorturiko lanpostuen kalitateari dagokionean.

Eman diren aldaketak balioztatzeko beste modu bat, biztanleen batezbesteko diru sarreraren bilakaera aztertzea izan daiteke. Alor horretan, 12. taulan ikus daitezkeen moduan, bi urteotan batezbesteko errenta baliokidearen gaineko datuek ere -% 1,2koa biztanleria osoa hartuz- uzten dute pentsatzera egoera ia biztanle guztientzat hobetu dela eta alde batera geratu direla, soilik, jadanik egoera txarragoan ziren taldeak.

12. taula: Biztanleen batezbesteko errenta baliokidearen bilakaera, zenbait ezaugarriren arabera. Gipuzkoa 2012-2014

		2012	2014	Bilakaera
Nazionalitatea	Espainiakoak	1.435	1.440	0,4%
	Atzerrikoak	833	800	-4,0%
Pobrezia	Larria	467	432	-7,3%
	Erlatiboa, ez larria	737	735	-0,3%
	Ez da	1.565	1.542	-1,5%
Senitartearen diru sarrera baliokideak kintilka	1. kintila	714	727	1,8%
	2. kintila	1.060	1.112	4,8%
	3. kintila	1.400	1.421	1,5%
	4. kintila	1.787	1.794	0,4%
	5. kintila	2.367	2.460	3,9%
Guztira		1.404	1.421	1,2%

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta2014.

Atzerriko nazionalitatea dutenak eta pobrezia larriko egoeran direnak, nahiz eta zertxobait murriztu den ere pobrezia erlatiboko egoeran ez direnen batezbesteko errenta baliokidea (talde horien neurria aldatu delako izan daiteke). Nolanahi den ere, hala atzerritarrentzat nola pobrezia larriko egoeran direnentzat, 2012ko batezbesteko errenta baliokidea 2014koa baino dexente handiagoa zen. Errenta kintilei so eginiez, bigarrenaren eta bosgarrenaren errenta mailak igo dira gehien.

13. taula: Pobrezia, eskasia eta gizarte bazterketa adierazle nagusien banaketa, pertsonen eta senitartearen zenbait ezaugarriren arabera. Gipuzkoa 2014
(Zeharkako banaketa %)

		Diruzko pobrezia				Eskasia materiala eta bazterketa			
		Pobrezia larria		Pobrezia erlatiboa		Eskasia material larria		Bazterketa moderatu eta larria	
		2012	2014	2012	2014	2012	2014	2012	2014
Sexua	Gizona	4,5	5,1	16,7	14,0	5,0	5,2	12,3	13,2
	Emaztea	4,2	5,7	16,9	17,2	5,3	5,2	11,4	13,6
Pertsona nagusiaren sexua	Gizona	3,9	5,0	15,3	13,4	4,2	4,2	9,4	13,0
	Emaztea	5,7	6,7	22,0	22,9	8,4	8,4	20,3	14,9
Adina	<18	6,1	8,8	21,1	19,2	8,1	6,8	11,3	13,5
	18-44	4,6	6,8	16,0	15,5	5,7	6,3	13,2	16,2
	45-64	4,1	4,2	13,0	13,8	4,8	4,4	11,4	13,5
	65 eta hortik gora	2,6	2,1	19,8	15,2	2,2	2,9	10,5	8,7
Pertsona nagusiaren adina	<45	5,1	9,1	19,1	16,2	9,0	8,0	12,6	16,4
	45-64	4,8	3,6	12,9	14,8	3,9	3,3	11,4	13,0
	65 eta hortik gora	2,6	4,1	20,6	16,2	2,5	4,7	11,6	10,7
Nazionalitatea	Espainiakoak	3,1	3,5	14,3	13,1	2,9	3,7	8,8	11,1
	Atzerrikoak	21,0	33,4	50,7	52,1	35,1	26,4	52,8	46,4
Jaiolekua	EAE	2,7	3,7	14,0	12,6	2,9	3,6	7,6	11,2
	Estatuan	5,4	3,3	16,7	17,7	3,5	4,7	14,6	11,6
	Estatutik at	19,2	29,1	47,1	46,6	32,6	24,0	49,6	41,8
	Pertsona bakarrekoa	3,7	4,3	24,2	20,0	10,7	7,7	19,2	19,5
Senitartearen	Bikotea seme-alabarik gabe	2,6	3,0	16,3	11,9	1,8	3,0	10,3	8,8
	Bikotea seme-alabekin	4,1	5,8	14,4	14,0	4,3	4,1	9,1	12,7
	Guraso bakarrekoa	11,8	7,9	33,5	27,2	15,2	10,2	25,6	19,5
	Beste	1,1	8,0	7,0	15,0	1,5	10,9	14,7	13,8
Lanarekin duten harremana	Lanerako diren guztiak edo erdia baino gehiago lanean ari	1,1	1,0	8,8	5,5	3,0	1,5	6,2	7,5
	Lanerako diren erdia edo gutxiago lanean ari	5,0	9,6	19,4	34,9	8,0	9,7	18,8	23,9
Lanarekin duten harremana	Lanerakoan artean inor ez lanean	33,8	40,2	66,1	67,0	22,1	37,1	49,0	59,4
	Inor ez lanerako	2,5	5,0	21,7	18,8	2,9	2,9	9,4	9,5
Guztira		4,3	5,4	16,8	15,6	5,2	5,2	11,8	13,4

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta2014.

2.2.2. Pobrezia eta gizarte bazterketa egoerak mantentzea

Inkestaren bi aldietan, 2012an eta 2014an, inkesta egin zaien familien nondik norakoa aztertzek zenbait muga baditu ere, interes handiko datuak eskaintzen ditu, Gipuzkoan pobrezia eta gizarte bazterketako egoerak mantentzeari dagokionean.

14. taula: Biztanleriaren banaketa pobrezia erlatiboa mantentzeari dagokionean. Gipuzkoa 2012-2014 (luzerako lagina)

		2014		
		Bada	Ez da	Guztira
<i>Zutabeen %</i>				
Pobrezia erlatiboa 2012	Bada	67,4	7,6	15,5
	Ez da	32,6	92,4	84,5
	Guztira	100,0	100,0	100,0
<i>Lerroen %</i>				
Pobrezia erlatiboa 2012	Bada	57,7	42,3	100,0
	Ez da	5,1	94,9	100,0
	Guztira	13,3	86,7	100,0
<i>taularen %</i>				
Pobrezia erlatiboa 2012	Bada	9,0	6,6	15,5
	Ez da	4,3	80,2	84,5
	Guztira	13,3	86,7	100,0


Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012-2014.

Horri dagokionean, 14. taulak argi erakusten du Gipuzkoako biztanleria lau taldetan banaturik dela:

- 2012an pobrezia erlatiboan izan eta 2014an ere hala diren pertsonak –hau da, iraunkorki diru sarrera apaleko edo pobre diren pertsonak –biztanleen % 9 dira eta, gutxi gorabehera, 2012an pobre zirenen %58a.
- 2012an pobre izan eta 2014an ez direnak –hau da, tarte horretan pobrezia irhes egin diotenak– biztanleen % dira eta, gutxi gorabehera, 2012an pobre zirenen % 42; hortatik atera daiteke 2012an pobre ziren hamar pertsonetatik lau ez direla jadanik pobre 2014an.
- 2012an pobre izan ez eta 2014an pobre direnak biztanleen % 4,3 dira eta gaur egun pobrezian direnen heren bat inguru. Bestela esanda: gaur egun pobre direnen heren bat ez ziren 2012an pobre.
- Azkenik, biztanleen % 80,2 ez da aztertzen ari garen denbora tarte horretan inoiz pobre izan.

Esandakotik atera daiteke gipuzkoarren % 20 inguru pobrezia erlatiboko edo diru sarrera apaleko egoeran bizitu dela uneren batean bederen, azken lau urteotan eta haietarik, erdia denbora tarte horretan beti izan dela pobrezia egoeran. Beste erdia edo 2012tik 2014 arteko tartean, pobrezia irhes egin dio edo, alderantziz, pobrezia harrapatu du denbora tarte horretan.

3. grafikoa: Biztanleriaren banaketa, pobrezia erlatiboa mantentzeari dagokionean. Gipuzkoa 2012-2014 (luzerako lagina)




Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012-2014.

Gipuzkoarren egoera azaldu dugunaren berdina da, pobrezia edo siru sarrera urriak aztertu ordez, bazterketa larriko eta moderatuko egoerak aztertzen baditugu, oro har. Luzerako laginak erakusten duen moduan, biztanleen % 82,7k ez du halako egoerarik bizi aztertu ditugun urteetan eta % 3,1ek etengabe bizitu ditu.

Aipatu behar da ere, 2012an bazterketa egoeran zirenen bi heren ez direla jadanik 2014an –hau da, azterturiko biztanleen % 6,2–, baina, aldi berean, gipuzkoarren % 8a erori da, azken bi urteotan, bazterketa egoeran.

4. grafikoa: Biztanleriaren banaketa, bazterketa mantentzeari dagokionean (larria edo moderatua) Gipuzkoa 2012-2014 (luzerako lagina)



Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012-2014.

15. taula: Biztanleriaren banaketa, gizarte-ratze/baztertze eskalan duten egoeraren arabera. Gipuzkoa 2012-2014 (luzerako lagina)

2012	2014				
	[1]	[2]	[3]	[4]	Guztira
[1] Gizarteratua	43,4	11,7	3,1	0,8	59,0
[2] Halamoduz gizarteratua	14,3	13,3	2,0	2,1	31,7
[3] Bazterketa moderatua	2,2	2,3	0,6	0,8	5,9
[4] Bazterketa larria	1,0	0,6	0,8	0,8	3,3
Guztira	60,9	27,9	6,6	4,6	100,0

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta2012-2014.

Era berean, jaso ditugun emaitzetatik ikus daiteke 2012an gizarteratze bi mailetakoren batean zen biztanleria oso trinkoa dela: pertsona horien % 90 inguru edo gizarteraturik jarraitzen dute edo erabat gizarteratuta izatearen eta halamoduz gizarteratuta izatearen artean mugitzen dira, alde batera nola bestera. Halarik ere, azkoz mugikorrakoak dira gizarte bazterketako egoerak, bere maila orotan eta, bereziki bazterketa moderatukoak: 2012an bazterketa moderatua bizi zuten pertsonen % 24,3 besterik ez diraute bazterketaren ardatzean (hala moderatuan nola larrian), eta orain dela bi urte bazterketa larrian zirenen artean, berriz, gizarteratu direnak (erabat edo halamoduz) % 50,4 dira.

Pobrezia erlatiboan sartu, atera eta mantentzearen emaitzak laginaren ezaugarri soziodemografikoen arabera aztertuz gero, hiru elementu interesgarri azaltzen zaizkigu (ikus, 16. taula).

Pobrezia iraunkorreko tasa bereziki gora da emazteek daramatzaten etxeetan bizi direnen artean (% 12,8), 18 urtez pekoen artean eta 65 urtez gorakoen artean eta, batez ere, lan egiteko moduan diren guztiak lan gabe dituzten etxeetan (% 40,5) eta atzerriko nazionalitatea dutenek daramatzaten etxeetan bizi direnen artean (% 54,7) edo atzerrian jaiotakoak daramatzaten etxeetan (% 46,2). Talde horietan guztietan gorago da ere, aldeak horren handiak ez izan arren, 2012an pobre izan ez eta 2014an pobre izatera heldu direnen ehunekoa.

Alde nabarmenak ageri dira ere, bertakoen eta etorkinen artean, 2012an bederen pobrezian izan eta ez izatera pasatzeko aukerari dagokionean: lehen esan dugu 2012an pobrezian zirenen % 42,3 ez direla hala jadanik 2014an, baina EAEn jaiotakoak artean, ehuneko hori % 48,6koa da, baina atzerrian jaiotakoak artean, berriz, % 10ekoa besterik ez da. Langabezia direnen etxeetako biztanleen kasuan ere ehuneko apala da: % 16,4.

Datu horiek guztiek erakusten dute atzerritarrak bereziki agertzen direla pobrezian diren taldeetan eta bereziki pobrezia iraunkorrean direnen artean. Hartara, atzerrian jaiotakoak, luzerako laginean parte hartu duten familien % 4,8 dira, baino pobrezia iraunkorrean direnen % 24,6.

16. taula: Pobrezia erlatiboan den biztanleriaren banaketa, pertsonen eta senitarteen zenbait ezaugarriaren arabera, 2014an. Gipuzkoa 2012-2014 (luzerako lagina)

		Zeharkako banaketa (%)				Banaketa zuta (%)					
		Pobrezia iraunkorra	Pobrezia uztea	Pobrezian sartzea	Pobrezia eza	Pobrezia iraunkorra	Pobrezia uztea	Pobrezian sartzea	Pobrezia eza	Guztira	
Sexua	Gizona	8,4	6,4	4,1	81,1	46,0	48,1	46,1	49,7	49,1	
	Emaztea	9,5	6,7	4,6	79,2	54,0	51,9	53,9	50,3	50,9	
Pertsona nagusiaren sexua	Gizona	7,8	5,8	4,5	81,8	67,0	68,4	80,1	78,5	76,9	
	Emaztea	12,8	9,0	3,7	74,5	33,0	31,6	19,9	21,5	23,1	
Adina	<18	10,4	6,6	5,1	77,9	18,3	15,9	18,4	15,2	15,7	
	18-44	9,5	7,7	3,5	79,3	34,0	37,2	25,7	31,6	31,9	
	45-64	6,5	5,2	6,4	82,0	22,1	24,1	44,8	31,2	30,5	
	65 eta hortik gora	10,5	6,8	2,2	80,5	25,6	22,8	11,1	22,0	21,9	
Pertsona nagusiaren adina	<45	7,1	6,6	4,2	82,1	76,1	96,3	94,0	98,4	96,1	
	45-64	54,7	6,3	6,6	32,4	23,9	3,7	6,0	1,6	3,9	
Jaiolekua	65 eta hortik gora	7,0	6,6	3,7	82,7	62,6	80,7	69,2	83,1	80,5	
	Nazionalitatea	Espainiakoa	7,8	6,9	6,4	78,9	12,8	15,5	21,8	14,5	14,7
	Atzerrikoa	46,2	5,1	8,1	40,5	24,6	3,7	9,0	2,4	4,8	
Jaiolekua	EAE	14,5	6,4	4,7	74,5	14,4	8,6	9,6	8,3	8,9	
	Estatuan	6,5	6,8	3,3	83,4	13,4	19,1	13,9	19,1	18,4	
	Estatutik at	8,5	5,7	4,5	81,3	55,6	51,1	61,8	59,6	58,8	
	Pertsona bakarrekoa	12,5	12,0	5,7	69,8	14,4	18,8	13,7	9,0	10,3	
	Bikotea seme-alabarik gabe	5,4	4,4	1,2	89,1	2,2	2,4	1,0	4,0	3,6	
Lanarekin duten harremana	Lanerako diren guztiak edo erdia baino gehiago lanean ari	3,6	6,2	1,4	88,8	26,2	62,4	21,8	72,8	65,8	
	Lanerako direnen erdia edo gutxiago lanean ari	21,4	5,3	18,9	54,4	26,6	9,0	48,7	7,6	11,1	
	Lanerako diren artean inor ez lanean	40,5	8,0	16,6	34,9	24,1	6,4	20,4	2,3	5,3	
	Inor ez lanerako	11,7	8,2	2,2	77,9	23,2	22,1	9,1	17,3	17,8	
Guztira		9,0	6,6	4,3	80,2	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta2014.

3. ATALA

POBREZIA, BAZTERKETA ETA BIZI BALDINTZAK

3. Pobrezia, bazterketa eta bizi baldintzak Gipuzkoan

Atal honetan, gipuzkoarren bizi baldintzen inguruko zenbait dimentsio aztertzen dira. Horretarako, ongizatearen alor nagusiei -nola diren hezkuntzaren alorra, lanarena, etxebizitzarena, gizarte harremanena edota herriko bizitzan eta gizarte bizitzan parte hartzearena- loturiko zenbait adierazle hautatu dugu.

Datu horietatik abiatuz, bikoitza da atal honen helburua. Lehenik, gipuzkoarrek alor horietan duten egoera ezagutu nahi dugu eta horiei dagokienean, oinarritzko ezau-garri soziodemografiko zenbaiten arabera -nola diren, batez ere, sexua, adina eta nazionalitatea-, gizartearen diren aldeak erakutsi. Bigarrenik, aurreko atalean, diruzko pobrezia eta bazterketa egoerak atzemateko baliatu ditugun adierazle nagusietatik abiatuz, atal honetan, ezagutu nahi dugu zenbateraino diruzko pobrezian edo gizarte bazterketako prozesuetan diren pertsonak bizi dituzten gainerakoek baino egoera gaizto gehiago, larriak ere izan daitezkeenak, diru sarreren mailari loturik izan beharko ez liratekeenak.

Gipuzkoarrak pobrezia egoeraren edota gizarte bazterketa egoeraren arabera sailkatzeko erabili diren alda-gaiak hautatzerakoan, honako adierazle hauek hartu ditugu kontuan:

- pobrezia erlatiboaren edo diru sarrera apalen tasa, hau da, batezbesteko errentaren % 60az peko errenta baliokidea duten senitateetako kideen ehuneko;
- gizarte bazterketa tasa, FOESSA Fundazioak garaturiko gizarte bazterketa indizearen arabera kalkulatua; indize horrek lau kategoria seinatzen ditu: erabateko gizarteratzea, halamoduzko gizarteratzea, bazterketa moderatua eta bazterketa larria.

Emaitzak interpretatzerakoan, kontuan hartu behar dira metodologiazko bi muga garrantzitsu. Alde batetik, kontuan hartu behar da *Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta* (GPGBI) ez dela bereziki zuzendua atal honetan aztertzen ditugun elementuetara eta, hartara, ezin direla, noski, sakon aztertu atal honetan aztertu nahi ditugun alorretako batzuk. Era berean, kontuan hartu behar da ere nolabaiteko alborapena ere badela, aztertzen diren gaietan, zeren, GPGBIa pobrezia eta bazterketari buruzko inkesta izanik, galdetegiak, bi egoera horiei estuki loturik direla uste diren gaiak lantzen baititu, batez ere. Areago oraindik, zenbait kasutan, adierazleak berak eraikitzerakoan

kontuan hartu diren gauzak dira horiek. Bestalde, berriz ere esan behar da laginak berak badituela mugak, duen neurriengatik eta pobrezia eta bazterketa egoerak mugatuki direlako horretan; horrek, lortu dituen emaitzen azterketa sakonago edo zehatzagorako bidea ixten digu.

3.1. Hezkuntza maila, formakuntza eta hizkuntzen ezagutza

3.1.1. Hezkuntza maila

Azken 25 urteotan, oso aldaketa handiak gertatu dira gipuzkoarren hezkuntza egituran. Biztanleen eta Etxebizitzaren Erroldetatik atera daitezkeen datuen arabera, 1986tik 2011ra, gehienez lehen mailako ikasketak egin dituzten pertsonak, pasatu dira biztanleen % 71 izatetik % 43 izatera, eta goi mailako ikasketak dituztenak, berriz, % 8,1tik % 21,3ra emendatu dira⁵.

GPGBI-k 2014. urterako ematen dituen datu orokorrak kopuru horiekin bat datoz. Lorturiko ikasketak maila gorenari dagokionean, 25 urtetik gorako gipuzkoarrak honela banaturik dira: % 44,5k lehen mailako ikasketak besterik ez du egin, % 33,4k bigarren mailako ikasketak ditu, eta % 22,1ek unibertsitate ikasketak egin ditu. Argi bada ere, azken hamarkadotan, aurrerapen handiak egin direla biztanleriaren zati handien heziketa maila goratzeari dagokionean, esan behar da ere, maila horiek Europakoetatik oso urrun direla, batez ere, lehen mailako ikasketak besterik egin ez dutenen ehuneko oraindik oso handiagatik. Eurostat-en datuei jarraiki, EB-28an, oro har, 18 urtetik gorakoen % 29,2 dira lehen mailako ikasketak besterik egin ez dutenak; bigarren mailako ikasketak egin dituztenak, berriz, % 46,3 dira eta unibertsitate ikasketak egin dituztenak % 24,5⁶.

⁵ Datu hauek Eustat-ek Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Erroldetatik argitara ematen duen informazioetik atera ditugu. Zehazki, ikasle ez diren 25 urtez gorakoetat ari dira eta pertsona batek egin eta utzi duen -edo ikasketak hori bururatu duelako edo bururatu gabe utzi duelako- ikasketak maila gorena adierazten dute.

⁶ Eurostat (2013). [EU-SILC](#).

17. taula: 25 urtetik gorakoen banaketa, egin duen ikasketa maila gorenari begiratzuz, zenbait aldagaien arabera. Gipuzkoa 2014

		Zeharkako banaketa (%)			Banaketa zuta (%)			
		Ikasketarik gabe edo lehen mailakoak	Bigarren mailakoak	Unibertsitatekoak	Ikasketarik gabe edo lehen mailakoak	Bigarren mailakoak	Unibertsitatekoak	Guztira
Sexua*	Gizona	43,5	38,4	18,2	46,8	55,1	39,4	47,9
	Emaztea	45,5	28,8	25,7	53,2	44,9	60,6	52,1
Adina*	25-34	19,3	45,0	35,7	6,3	19,7	23,6	14,6
	35-44	22,9	45,3	31,8	11,3	30,0	31,7	22,1
	45-54	36,7	38,0	25,3	16,0	22,1	22,2	19,4
	55-64	50,7	30,8	18,4	18,8	15,2	13,8	16,5
	65 edo hortik gora	77,3	15,7	7,0	47,5	12,9	8,6	27,4
Nazionalitatea	Espainiakoa	44,1	33,6	22,3	93,1	94,5	94,5	93,9
	Atzerrikoa	50,4	29,9	19,7	6,9	5,5	5,5	6,1
Pobrezia erlatiboa*	Bada	65,0	27,5	7,4	20,8	11,7	4,8	14,2
	Ez da	41,1	34,3	24,6	79,2	88,3	95,2	85,8
Gizarte bazterketa*	Erabat gizarteraturik	42,3	33,9	23,8	55,0	58,8	62,2	57,9
	Halamoduz gizarteraturik	45,3	33,8	20,8	29,8	29,7	27,5	29,2
	Bazterketa moderatua	45,1	30,3	24,5	8,6	7,7	9,4	8,5
	Bazterketa larria	66,9	28,8	4,4	6,7	3,8	0,9	4,5
Guztira		44,5	33,4	22,1	100,0	100,0	100,0	100,0

* Alde estatistikoki adierazgarriak dira, CHI-cuadrado probaren arabera, $p < 0.05$ entzat.

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta2014.

Ikasketa maila, bestalde, estuki lotua da oinarrizko aldagai soziodemografikoekin, nola diren sexua eta adina. 17. taulan ikus daitekeenez, Gipuzkoan guztiz ñiminoak dira gizonezko eta emakumezkoen arteko aldeak, oinarrizko ikasketa mailari dagokionean, eta, batez ere, bigarren mailan eta unibertsitate mailan nabarmentzen dira. Emakumezkoek gizonezkoek baino unibertsitate ikasketa tasa goragoa dute (% 25,7 emakumezkoek eta % 18,2 gizonezkoek), baina gizonezkoetan gorago da gehienez bigarren mailako ikasketak egin dituztenak (% 38,4 gizonezkoek eta % 28,8 emakumezkoek). Bestalde, adinak alderantzizko erlazioan da lortu den ikasketa mailarekin, hau da, zenbat eta adina bera goa izan, gorago da ikasketa maila gora lortu dutenen ehunekoa.

Aipatu behar da ere, ez dela estatistikoki adierazgarri den alderik aurkitu, inkesta egin zaien pertsonen nazionalitatearen eta lorturiko ikasketa maila gorenaren artean. Datu horiek, ordea, adinaren baldintzapean dira. Hartara, emaitzak 25etik 64 urte bitarteko biztanleak hartuz gero –adin horretatik gora, oso atzerritar gutxi da eta oso gora da, bestalde, ikasketarik gabekoen edo lehen mailako ikasketak soilik dituztenen zama erlatiboak, emaitzak nabarmen aldatzen dira. 25etik 64 urte bitartekoak hartuz gero, gehienez lehen mailako ikasketak egin dituztenen kopurua, atzerritarren artean, % 50 ingurukoa da, eta atzerritar ez direnen artean, aldiz, % 31,5ekoa. Goi mailako ikasketei dagokienez, berriz, adin horretakoaren artean, halako ikasketak bururatu dituztenen kopurua % 27,3koa da, oro har, eta atzerriko nazionalitatea dutenen artean, berriz, % 20,6koa.

Sexuarekin eta adinarekin nabarmen loturik izateaz gain, heziketa maila estuki loturik da ere, hala pobrezia-ekin nola gizarte bazterketarekin. Lotura hori, neurri handi batean, prestakuntza egokia ez izateak lanerako gaitasuna murrizten duelako eta lanetik baztertua izateko arriskua handitzen duelako da. GPGBI-ren datuen arabera, pobrezia erlatiboan direnen artean, lehen mai

lako ikasketak besterik ez dutenak % 65 dira eta biztanleria osorako, ehuneko hori, % 44,5koa da⁷. Bazterketa egoeran direnen artean ere berdin gertatzen da. Halere, alde horiek ez dira ematen bazterketa moderatua bizi dutenen artean (% 45,1), baizik eta, batez ere, bazterketa larrian direnen artean, non, gehienez lehen mailako ikasketak burutu dituztenen ehunekoa ia % 67koa baita.

⁷ Pobrezia-aren eta formakuntza mailaren arteko erlazioa oso argi agertzen da ere senitateko pertsona nagusiaren ikasketa maila gorena aztertzen denean. Horrek ematen dituen datuak 17. taulak ageri dituzten oso antzekoak dira. Pobrezian direnen % 65,7 gehienez lehen mailako ikasketak egin dituen norbaitek daramatzen etxeetan bizi dira. Aldiz, pertsona nagusitzat unibertsitate ikasketak egin dituen norbaitek dituzten senitateetako kideen % 4,5 besterik ez da pobrezian.

18. taula: Ikasketaren bat edo formakuntzaren bat egiten ari direnen 25 urtetik gorakoen banaketa, zenbait aldagairen arabera. Gipuzkoa 2014

		Zeharkako banaketa (%)			Banaketa zuta (%)		
		Formakuntzan ari da	Ez da formakuntzan ari	Guztira	Formakuntzan ari da	Ez da formakuntzan ari	Guztira
Sexua	Gizona	16,4	83,6	100,0	52,4	47,2	47,9
	Emaztea	13,7	86,3	100,0	47,6	52,8	52,1
Adina*	25-34	35,0	65,0	100,0	34,1	11,2	14,6
	35-44	20,9	79,1	100,0	30,7	20,5	22,1
	45-54	15,5	84,5	100,0	20,0	19,3	19,4
	55-64	9,2	90,8	100,0	10,1	17,6	16,5
	65 edo hortik gora	2,7	97,3	100,0	5,0	31,3	27,4
Nazionalitatea*	Espainiakoa	14,4	85,6	100,0	90,0	94,6	93,9
	Atzerrikoa	24,5	75,5	100,0	10,0	5,4	6,1
Ordainduriko lanarekiko harremana*	Lanean	18,0	82,0	100,0	63,9	51,2	53,1
	Lan gabe	35,2	64,8	100,0	21,5	7,0	9,2
	Ikasle	100,0	0,0	100,0	7,1	0,0	1,1
	Lanerako ez	3,1	96,9	100,0	7,5	41,8	36,6
Pobrezia erlatiboa	Bada	16,3	83,7	100,0	15,4	14,0	14,2
	Ez da	14,8	85,2	100,0	84,6	86,0	85,8
Gizarte bazterketa*	Erabat gizarteraturik	13,6	86,4	100,0	52,5	58,8	57,9
	Halamoduz gizarteraturik	14,5	85,5	100,0	28,2	29,4	29,2
	Bazterketa moderatua	23,6	76,4	100,0	13,3	7,6	8,5
	Bazterketa larria	20,1	79,9	100,0	6,0	4,2	4,5
Guztira		15,0	85,0	100,0	100,0	100,0	100,0

* Aldeak badira, estatistikoki adierazgarriak, CHI-cuadrado probaren arabera, $p < 0.05$ sentzat.

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta2014.

3.1.2. Egiten ari diren ikasketak, eta formakuntza jardunetan parte hartzea

Nahiz eta 24 urteak bete dituzten gehieneko ikasketak maila baliagarri gerta daitekeen ikasle ez diren lanerako gaitasun edo egokitzapenez ohartzeko, kon-tuan hartu behar da ere lan bizitza osoan zehar egiten den formakuntza gure gizartean hartzen ari den garrantzi gero eta handiagoa. 18. taulak laburbiltzen ditu gai hau neurtzeko, beren lan gaitasuna hobetzeko asmoz, nolabaiteko ikasketak (formalak nola informalak) egiten ari diren 24 urtez gorako pertsonak zenbatzen dituen adierazle batez lortu diren emaitzak.

GPGBIren 2014. urterako emaitzek erakusten digute 25 urtez gorako gipuzkoarren % 15ak parte hartu duela, 2014/2015 ikasturtean, heziketa edo formakuntza jardunetan. Ehuneko hori 2012an lortu zenaren oso antzekoa da (% 15,9), apalxeagoa izanik ere. 25 urteak beterik ere formakuntzan jarraitzen dutenen artean – 82.231 pertsona inguru– ditugu, alde batetik, enpresak sustaturiko formakuntza ikastaroak egin dituztenak (guztien %39,8), beste aldetik, lan gabe direnei zuzendurik diren Lanbideren, Lantegi Eskolen edo antzekoen ikastaroetan parte hartu dutenak (% 18,5) eta 2014/2015 ikastaroan, beren lan gaitasuna hobetzeko bestelako ikastaroak egin dituztenak (oposizioak pres-tatzea, hizkuntzak ikastea, informatika, etab.) (% 23,7) edo unibertsitate ikasketak, masterrak edo doktoretza programak egin dituztenak (% 9).

Argi da formakuntza jardunetan diren artean gazte asko dela (guztien % 64,8 45 urtez pekoak dira). Izan ere, 18. taulak azaltzen duen moduan, formakuntza jardunetan parte hartu dutenen kopurua, elkarrizketa egin zaien pertsonen adina jaistearekin batera doa gora.

Nabarmen handiagoa da ere formakuntza jardunetan aritzen diren kopurua, lan gabe diren artean (% 35,2) eta atzerriko nazionalitatea dutenen artean (% 24,5). Era berean, lanean diren artean ere, biztanleria osoa harturik den ehuneko baina handiagoa da formakuntza jardunetan ari diren ehuneko (% 18). Azkenik, ez da estatistikoki adierazgarri den alderik ikusten gizon eta emazteen artean, gai honi dagokionean.

Ez da alde nabarmenik ere azaltzen, diruzko pobrezia- ren eta formakuntza jardunetan aritzearen artean. Hala egoera horretan diren nola ez diren artean, antzekoa da formakuntza jardunetan den parte hartze maila. Lotura handiagoa ikusten da, berriz, aldagai horren eta gizarte bazterketaren artean. Kasu horretan, formakuntzan jarraitzen duten pertsonen ehuneko nabarmen handiago da bazterketa (moderatu nola larri) egoeran diren artean, gizarteraturik diren artean baina, seguruenik, bazterketa egoeran diren taldean, lan gabe diren pertsona gehiago edota atzerriar gehi-ago delako eta, lehen ikusi dugun moduan, horiek gehi-ago parte hartzen dutelako formakuntza jardunetan.

15 urtetik 29 urte bitarteko gipuzkoar gazteen % 12,1 lan gabe da eta ez da inolako formakuntzarik egiten ari

GPGBIren datuei jarraiki, 2014an, 15 urtetik 29 urte bitarteko ia 11.800 gazte ziren lan gabe eta ez ziren inolako formakuntzarik egiten ari. Egoera horrek adin horretako gazteen % 12,1 jotzen ditu eta gizarte ahultasuneko adierazle argia da.

Pertsonen ezaugarrien ikuspuntutik, ikusten da egoera hori gehixeago ematen dela gizonezkoen artean, atzerritarren artean eta lehen edo bigarren mailako ikasketak besterik burutu ez dituzten gazteen artean. Dena den, erlazio nabarmena pobrezia eta gizarte bazterketa aldagaiekin ematen da. Egoera horretan diren gazte guztien artean, % 54,2 pobrezia erlatiboan dira (adin horretako gazte guztien arteko pobrezia maila % 22,2koa den bitartean) eta % 37,9, berriz, gizarte bazterketa egoeran dira.

Gipuzkoan, "ezez"en fenomenoaren (ez lanik, ez ikasi ez eta formakuntzan ari) maila, Europar Batasunean ematen denaren oso antzekoa da (% 15,3) eta Espainian ematen dena (% 20,7) baino askoz apalagoa, zeren Espainia - Grezia, Italia, Bulgaria eta Kroazia bezala-, EB-28en artean, egoera horretan diren gazteen tasa gorenak (% 20tik gora) dituztenen artean baita.


19. taula: Ez ikasi eta ez lan egiten ez duten 15 eta 29 urte arteko gazteen tasa, aldagai zenbaiten arabera. Gipuzkoa 2014

		Tasa (%)	Banaketa zuta (%)		Ukituriko pertsona kopurua
			Ezez gazteak	Guztira	
Sexua	Gizona	13,0	56,3	52,7	6.646
	Emaztea	11,2	43,7	47,3	5.152
Nazionalitatea	Espainiakoa	11,2	78,5	85,2	9.266
	Atzerrikoa	17,5	21,5	14,8	2.532
Buruturiko gehieneko ikasketa maila	Lehen mailakoak	13,8	11,3	9,9	1.328
	Bigarren mailakoak	13,7	64,2	57,1	7.571
	Goi mailakoak	9,1	24,6	33,0	2.899
Pobrezia erlatibo*	Bada	29,6	54,2	22,2	6.394
	Ez da	7,1	45,8	77,8	5.403
Gizarte bazterketa*	Bada	21,4	37,9	21,5	4.476
	Ez da	9,6	62,1	78,5	7.322
Guztira		12,1	100,0	100,0	11.798

* Aldeak badira, estatistikoki adierazgarriak, CHI-cuadrado probaren arabera, p<0.05entzat

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta2014.

5. grafikoa: Ez ikasi ez eta lan egiten ez duten 15-19 urte arteko gazteen tasa. Lurralden arteko erkaketa. 2014



FEBntes: Eurostat (2014) [EU-SILC](#); Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta2014.

3.1.3. Lehen hizkuntza eta hizkuntzen ezagutza

Hala Eustat-en Biztanleriaren eta Etxebizitzen Errolden emaitzek nola, batez ere, Eusko Jaurlaritzak bost urtetik behin egiten duen Inkesta Soziolinguistikarenek, aldian behin ematen digute, gure lurraldeko hizkuntza ofizial eta ez ofizialen transmisioaren eta erabileraren panoramika zehatza. Halere, lehen hizkuntzari nola beste hizkuntzak ezagutzeari dagokienean, GPGBIak aukera ematen digu ikusteko zenbateraino haien ezagutza eta erabilera loturik diren pobrezia eta gizarte bazterketa egoerekin, gure lurraldean.

Ikuspuntu orokor batetik ikusita, GPGBIak 2014rako ematen dituen datuek erakusten digute 3 urtetik gorako gipuzkoarren % 32,8k euskara duela lehen hizkuntza⁸,

⁸ Lehen hizkuntza edo ama hizkuntza da edo dira umeez beren haurtzaroan, gurasoengandik jasotzen dituzten lehen hizkuntzak.

% 53,4k gaztelania, % 9,2k biak eta % 4,6k beste hizkuntza batzuk.

3 urtetik gorako gipuzkoarren lehen hizkuntza aztertzean, aipagarri gertatzen da adinaren arabera alde nabarmenak gertatzen direla. Hartara, ikus daiteke (ikus 20. taula) adin txikiagokoek, 3 eta 17 urte artekoek, dutela euskararen transmisio maila gorena, hala lehen hizkuntza bakar gisa (% 36,7) nola lehen hizkuntza gisa, gaztelaniarekin batera (% 19,6). Aldeak oso nabarmenak dira, noski, elkarrizketaturiko nazionalitatea kontuan hartuz gero (haien erdiak baino gehiagok dituzte euskara edo gaztelania ez diren beste hizkuntzak lehen hizkuntza gisa) eta ia ez da alderik generoari dagokionean.

20. taula: 3 urtetik gorako biztanleen banaketa, lehen hizkuntzari dagokionean, zenbait aldagairen arabera. Gipuzkoa 2014

		Zeharkako banaketa (%)				Banaketa zuta (%)				
		Euskara	Euskara eta gaztelania	Gaztelania	Besterik	Euskara	Euskara eta gaztelania	Gaztelania	Besterik	Guztira
Sexua	Gizona	32,9	9,6	53,3	4,2	49,1	50,9	48,8	44,3	48,9
	Emaztea	32,7	8,8	53,4	5,1	50,9	49,1	51,2	55,7	51,1
Adina*	<=17	36,7	19,6	40,9	2,8	16,1	30,7	11,0	8,6	14,4
	18-34	30,0	11,9	50,9	7,2	16,2	23,0	16,9	27,3	17,7
	35-54	30,5	6,8	56,7	6,0	30,7	24,6	35,1	42,6	33,0
	55 edo hortik gora	34,8	5,7	56,7	2,9	37,0	21,7	37,1	21,5	34,9
Nazionalitatea*	Espainiakoa	35,1	9,8	53,9	1,2	100,0	99,8	94,4	23,5	93,4
	Atzerrikoa	0,2	0,3	45,4	54,1	0,0	0,2	5,6	76,5	6,6
Pobrezia erlatiboa*	Bada	18,1	8,4	58,2	15,3	8,7	14,5	17,3	52,2	15,8
Gizarte bazterketa*	Ez da	35,6	9,3	52,5	2,6	91,3	85,5	82,7	47,8	84,2
	Bada	12,7	10,5	60,9	15,9	5,2	15,4	15,3	46,0	13,4
Guztira	Ez da	35,9	9,0	52,2	2,9	94,8	84,6	84,7	54,0	86,6
	Guztira	32,8	9,2	53,4	4,6	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

* Aldeak badira, estatistikoki adierazgarriak, CHI-cuadrado probaren arabera, $p < 0.05$ sentzat
Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta2014.

Argigarri dira ere ama hizkuntzaren eta pobrezia edota gizarte bazterketa egoeren arteko harremana aztertzean sortu zaizkigun datuak. Horrela, datuek erakusten digute ezen, hala pobrezia nola gizarte bazterketaren kasuan, egoera horiek nabarmen gutxiago ematen direla lehen hizkuntza gisa euskara dutenen artean eta, haien artean, bereziki apala dela tasa hori, euskara lehen hizkuntza bakar gisa dutenen artean. Horien kasuan, euskara lehen hizkuntza bakar gisa dutenen 3 urtetik gorako biztanleen % 8,7 besterik ez dira diruzko pobrezia egoeran (adin horretako biztanle ororen % 15,8 delarik egoera horretan), eta % 5,2% besterik ez da gizarte bazterketa egoeran (orokorrean: % 13,4 direlarik).

Lehen hizkuntzaz at, beste hizkuntzak ezagutzeak ere alde handiak ekartzen ditu, biztanleen ezaugarri sozio-demografiko nagusiak kontuan hartzen direnean.

GPGBIn, lehen hizkuntza beste hizkuntzen ezagutzarekin bateratzean lortzen diren emaitzek erakusten dizkigute (21. taularen azken lerroari dagokion zeharkako banaketak erakusten duen moduan) honako datu interesgarri hauek:

- 16 urteko edo hortik gorako gipuzkoarren % 58 elebidun gisa aurkezten da, hala gaztelaniaz nola euskaraz mintzatzeko gai sentitzen den bezainbatean. Haien bi herenek (16 urteko edo hortik gorako gipuzkoarren % 38,8) bi hizkuntza horiek besterik ez dute ezagutzen, eta gainerakoek (16 urteko edo hortik gorako gipuzkoarren % 19,1) bi hizkuntza ofizialez gain, beste hizkuntzaren bat behintzat ezagutzen dute.
- Bestalde, 16 urteko edo hortik gorako gipuzkoarren % 29,4k dio gaztelaniaz bakarrik mintza daitekeela.

- Aldi berean, beste % 11,6 bat, gaztelaniadun izateaz gain (gaztelania haren lehen hizkuntza izan ala ez) gaztelaniaz beste hizkuntzaren batean ere mintza omen daiteke (baina ez euskaraz).
- Azkenik, gipuzkoarren %1 baino zertxobait gutxiago ez litzateke sail horietako bakar batean ere sartuko. Horien artean, euskaraz mintza daitezkeenak eta gaztelaniaz ez eta EAEn ofizial diren bi hizkuntzetako bakar batean ere mintza ez daitezkeenak.

Aldagai hori biztanleriaren ezaugarri soziodemografiko nagusien arabera aztertzean, ikus daiteke hizkuntza gaitasun murriztagoa dutenen artean (hau da, soilik gaztelaniaz mintza daitezkeenak) adin goragoko pertsonak eta lanerako ez direnak agertzen zaizkigula (haien % 42 inguruk ez daki gaztelaniaz beste hizkuntzarik eta 16 urteko edo hortik gorako biztanle guztien artean % 29,4 dira).

Beste muturrean, euskaraz eta gaztelaniaz jakiteaz gain, beste hirugarren hizkuntzaz bederen mintza daitezkeenak ditugu. Egoera horretan dira 16 urteko edo hortik gorako hamar gipuzkoarren arteko ia bi pertsona; egoera hori askoz gehiago ematen da gazteen artean (16 eta 35 urte artekoen % 41,5) eta ikasleen artean.

Nazionalitateari dagokionean, soilik atzerriko nazionalitatea dutenen % 2,9 litzateke egoera horretan. Gainera, biztanleria osoaren % 58 har daiteke elebiduntzat, baina Gipuzkoan bizi diren atzerriarren % 4,6k besterik ez daki euskaraz eta gaztelaniaz.

**21. taula: 16 urteko edo hortik gorako gipuzkoarren banaketa, hizkuntzen ezagutzari dagokionean, zenbait aldagai-
ren arabera. Gipuzkoa 2014**

		Zeharkako banaketa (%)					Banaketa zuta (%)					
		1	2	3	4	5	1	2	3	4	5	Guztira
Sexua	Gizona	30,4	38,7	17,8	12,2	1,0	49,9	48,1	44,8	50,4	48,8	48,3
	Emaztea	28,5	39,0	20,4	11,2	0,9	50,1	51,9	55,2	49,6	51,2	51,7
Adina*	<35	9,7	32,5	41,5	15,2	1,1	7,2	18,4	47,5	28,6	25,1	21,9
	35-54	27,6	39,6	19,3	12,5	0,9	35,7	38,7	38,3	40,8	36,9	38,0
	55 edo hortik gora	41,9	41,5	6,8	8,9	0,9	57,1	42,9	14,3	30,6	37,9	40,1
Nazionalitatea*	Espainiakoa	29,8	41,6	20,4	7,5	0,7	94,1	99,7	98,9	60,1	72,6	93,0
	Atzerrikoa	24,9	1,7	2,9	66,8	3,7	5,9	0,3	1,1	39,9	27,4	7,0
Ordainduriko lanarekiko harremana	Lanean	24,3	40,7	23,5	11,3	0,2	41,4	52,6	61,5	48,4	11,5	50,1
	Lan gabe	31,0	29,8	16,9	20,2	2,1	9,4	6,8	7,9	15,5	19,5	8,9
	Ikasle	5,5	24,3	57,4	10,5	2,3	1,3	4,5	21,4	6,4	17,3	7,1
	Lanerako ez	41,7	41,4	5,2	10,2	1,5	47,9	36,1	9,2	29,6	51,8	33,8
Pobrezia erlatiboa*	Bada	36,3	30,1	10,6	20,1	2,9	18,7	11,8	8,4	26,3	46,0	15,2
	Ez da	28,2	40,4	20,7	10,1	0,6	81,3	88,2	91,6	73,7	54,0	84,8
Gizarte bazterketata*	Bada	31,1	23,2	19,3	24,5	1,9	14,1	8,0	13,4	28,0	26,4	13,3
	Ez da	29,2	41,2	19,1	9,7	0,8	85,9	92,0	86,6	72,0	73,6	86,7
Guztira		29,4	38,8	19,1	11,6	0,9	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Oharrak: (1) Soilik gaztelania; (2) Soilik euskara eta gaztelania; (3) Euskara, gaztelania eta beste hizkuntzaren bat bederen (4) Soilik gaztelania gehi euskara ez den beste hizkuntzaren bat bederen; (5) Beste egoerak.

* Aldeak badira, estatistikoki adierazgarriak, CHI-cuadrado probaren arabera, p<0.05entzat

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta2014.

Gipuzkoa den lurralde elebidunean, nolako harremana da hizkuntzen ezagutzaren eta pobrezia-aren eta gizarte bazterketaren artean?

Diruari dagokionean, datuek uzten dute pentsatzera atzerriko beste hizkuntzak ezagutzeaz at, EAEko bi hizkuntza ofizialetatik bakarra besterik ez ezagutzea (kasurako, gaztelania) gainerako inguruabarrak baino lotuago dela pobrezia egoeretara. Atera ditugun datuetatik ikus daiteke, pobrezia erlatiboan direnen artean, gaztelania bai baina euskara ezagutzen ez dutenen ehunekoa % 56,4koa dela eta 16 urteko edo hortik gorako biztanleria osoaren artean, berriz, % 41ekoa besterik ez da. Antzeko zerbait gertatzen da gizarte bazterketako egoeran direnekin, baina berezitasun bat bada, zeren biztanleria talde horren barnean, gutxienik hirueledun direnen zama erlatiboa biztanleria osoaren berdina baita.


3.2. Osasun egoera eta mendekotasun egoerak

Gero eta gehiago, pobrezia eta bazterketa ikerketek osasun gaiak sartu ohi dituzte beren azterketetan. Hori hala egiten da pobrezia ez delako jadanik soilik diruaren esparruari loturik ikusten; gero eta gehiago ikusten da ongizate egokia lortzeko bidea diren ondasun eta zerbitzu zenbait ez izateari edo ezin eskuratzeari loturik. Osasunaren kasuan, asko idatzia da jadanik eta horrek guztiak erakutsi digu harreman estua dela pobrezia-aren, desberdintasun sozioekonomikoen eta osasunean diren desberdintasunen artean, baina baita ere osasunaren eta pobrezia-aren arteko eragina elkarren eragina dela.

3.2.1. Osasun egoera

2014an, gipuzkoarren % 81,7k esan zuen oso osasun ona (% 21,3) edo osasun ona (% 60,4) zuela, eta % 12,1k hala-holako osasuna zuela. Aldiz, % 5,3k osasun txarra duela uste du eta % 0,9k oso txarra duela⁹.

6. grafikoa: Biztanleriaren banaketa, beren osasun mailaz duten iritzia-aren arabera. Gipuzkoa 2014



Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta2014.

⁹ Datu horiek, neurri handi batean, 2013ko Euskal Herriko Osasunari buruzko Inkestak Gipuzkoarako eskaintzen dituenekin bat datoz. Inkesta horren arabera, 15 urteko edo hortik gorako gipuzkoarren % 19,4k dio oso osasun ona duela, % 61,6k osasun ona duela, % 15,1ek hala holako osasuna duela, % 3,2k osasun txarra duela eta % 0,k oso osasun txarra duela.

22. taula: Biztanleriaren banaketa, beren osasun mailaz duten iritziari dagokionean, zenbait aldagairen arabera. Gipuzkoa 2014

		Zeharkako banaketa (%)				Banaketa zuta (%)			
		Ona edo oso ona	Hala-holakoa	Txarra edo oso txarra	Guztira	Ona edo oso ona	Hala-holakoa	Txarra edo oso txarra	Guztira
Sexua*	Gizona	83,6	11,4	5,1	100,0	49,9	46,0	39,8	48,8
	Emaztea	80,0	12,7	7,3	100,0	50,1	54,0	60,2	51,2
Adina*	<18	97,8	1,9	0,4	100,0	20,8	2,7	1,0	17,4
	18-34	94,0	5,7	0,2	100,0	19,7	8,1	0,7	17,1
	35-49	88,7	8,3	3,0	100,0	26,5	16,9	11,8	24,5
	50-64	78,9	14,7	6,4	100,0	19,4	24,5	20,5	20,1
	65 edo hortik gora	53,0	27,4	19,6	100,0	13,6	47,8	66,0	21,0
Nazionalitate*	Espainiakoa	81,3	12,1	6,6	100,0	93,1	93,9	99,0	93,5
	Atzerrikoa	87,6	11,4	1,0	100,0	6,9	6,1	1,0	6,5
Pobrezia erlatiboa*	Bada	79,1	13,4	7,5	100,0	15,1	17,4	18,9	15,6
	Ez da	82,2	11,8	6,0	100,0	84,9	82,6	81,1	84,4
Gizarte bazterketa*	Erabateko gizarteratzea	84,3	11,5	4,2	100,0	58,6	54,2	38,6	56,8
	Halamoduzko gizarteratzea	79,0	12,9	8,1	100,0	28,8	31,9	38,6	29,7
	Bazterketa moderatua	80,7	11,4	7,9	100,0	8,2	7,8	10,6	8,3
	Bazterketa larria	70,8	14,3	14,9	100,0	4,4	6,0	12,2	5,1
Guztira		81,7	12,1	6,2	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

* Aldeak badira, estatistikoki adierazgarriak, CHI-cuadrado probaren arabera, $p < 0.05$ sentzat

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2014.

Oro har, ezin da esan 2012tik hona funtsezko aldaketarik izan denik. Osasun ona edo oso ona dutela diotenen kopurua % 83 izatetik % 81,7 izatera pasatu da, eta osasuna hala-holakoa, txarra edo oso txarra dutela diotenak % 18,3 dira orain, 2012an % 17 zirenean.

Oro har, esan daiteke beren osasunaz duten iritzia adinarekin okertzen doala – 65 urte edo hortik gora dutenen artean, duten osasuna txartzat edo oso txartzat hartzen dutenen kopurua biztanleria osoarena baino 3,2 bider handiagoa da– eta emakumeek gizonezkoek baino gehiagotan aipatzen dutela osasun txarra dutela. Horretan, aldeak bereziki nabarmenak dira 65 urte edo hortik gorakoetan. Adin tarte horretan, osasun txarra edo oso txarra dutela dioten emazteen kopurua % 21,9koa da eta gizonezkoa, aldiz, % 16,3koa.

Gertakari hori jadanik hautemana dute gure inguruan egiten diren Osasun Inkestetan eta hainbat arrazoi izan dezake¹⁰. Besteak beste, gizonezkoek duten bizimoduaren ondorioz, goiz hiltzeko arriskua dakarten eritasunak izan ohi dituztela eta emakumezkoek, aldiz, hiltzen ez baina ezintasunak dakartzaten eritasunak izan ohi dituztela gehiago. Beste arrazoi bat izan daiteke gizonezkoek osasun zerbitzuekin harremanik ez izatea da, emakumezkoek baino zailago baitaie laguntza eskatzea¹¹.

Alde adierazgarriak dira ere, norik bere osasunaren balioztatzerakoan, nazionalitatearen arabera. Atzerriko nazionalitatea dutenen % 1ek besterik ez du esaten osasun txarra edo oso txarra duela, eta kopuru hori, Espainiako nazionalitatea dutenen artean, % 6,6koa da. Egia da, halere, hori, neurri batean, atzerriko nazionalitatekoen adin txikiagoatik dela (ia erdia 35 urtez pekoak dira, eta atzerrikoak ez direnen artean, aldiz, 0 eta 34 urte artekoak % 33 inguruan dira), baina horrez gain, bada atzerrikoek osasuna hobeki ikusten dutela ere. Laginak gaia behar bezala aztertze behar bezain handia ez bada ere, lortu diren emaitzek uzten dute pentsatzera atzerrikoek, adin tarte orotan, ez dutela beren osasuna atzerriko ez direnek ikusten duten bezain gaizki ikusten. Datu horiek bat datoz INEk 2011-2012rako eginiko Encuesta Nacional de Salud delakoak dakartzenekin eta baliteke atzerrikoen osasun egoera benetan hobea adierazle izatea, baina baita kultura desberdinen baloratze molde desberdinak adieraztea ere.

Nork bere osasuna balioztatze modua oso loturik da diruzko pobrezia eta, batez ere, gizarte bazterketako egoerarekin ere. 22. taulan ikus daitekeenez, gizarte bazterketako egoeran direnen ia % 15ek osasun txarra edo oso txarra dutela diote, eta erabat gizarteraturik direnen artean, aldiz, % 4,2koa besterik ez da.

¹⁰ 65 urtetik gorako biztanleen artean, norik bere osasuna hautematera-koan gertatzen diren generoko desberdintasunak 2013ko Euskal Herriko Osasun Inkestan ere agertu ziren. Era berean, horiek aztertu berri ditu honako artikulua honek: Morcillo, V. et al. [Desigualdades en la salud autopercibida de la población Española mayor de 65 urte](#). *Gaceta Sanitaria*, volumen 28 (6), 2014, págs.511-521.

¹¹ GPGBIren emaitzek hipotesi horretan aurrera egiteko aukera ematen ez diguten arren, argigarri gerta daiteke, dena den, estatistikoki adierazgarriak diren aldeak izatea 65 urte edo hortik gorako gizon eta emazteen artean, azken urtean osasun baliabideak erabiltzeari dagokionean. GPGBIaren arabera, 65 urte edo hortik gorako emazteen % 5,9 ak bakarrik dio azken urtean ez dela osasun etxe batera joan (anbulatorio, ospitale, kontsulta pribatu, etab.), baina adin bereko gizonen artean, aldiz, % 11,8 dira.

15 urteko edo hortik gorako hamar gipuzkoarren arteko ia bik erretzen du egunero

15 urteko edo hortik gorako gipuzkoarren %19,6k dio, 2014an, egunero erre ohi duela. Kopuru hori ia ez da aldatu 2012ko GPGBIrekiko (% 20,9) eta bat dator ere Euskal Herriko Osasunari buruzko Inkestak 2013rako eskaintzen duenarekin (%20,7); horrek adierazten digu 118.000 pertsona ditugula lurraldean, egunean bost zigarreta edo gehiago erretzen dituztenak.

Gure ingurunean egin diren epidemiologia ikerketetan, hainbatetan erran den bezala, egunero tabakoa erretzea oraindik ere ohikoagoa da gizonezkoen artean emakumeen artean baino: gizonezkoen % 23,1ek erretzen du eta emakumeen % 16,3k. Aldi berean, helduen artean hedaturik samar den kontsumoa da –oro har, 25-64 urteen artekoen laurden batek edo erretzen du egunero– baina oso urria, aldiz, adin goragokoen artean. Nazionalitateak ez du alde estatistikoki adierazgarririk ekartzen, baina emaitzek uzten dute pentsatzera atzeritarren artean ez dela horren zabaldua eguneroko kontsumo hori.

Ia ez da aldaketarik ikusten, biztanleria pobrezia egoeraren arabera aztertuz gero: pobrezia erlatiboko egoeran direnen % 18,6k erretzen du, eta hala ez direnen % 19,8k. Halere, gizarte bazterketaren kasuan, estatistikoki adierazgarriak dira, ordea, gizarteratze-baztertze eskalan direnen artean diren aldeak. Erabat gizarteratuak direnak dira gutxien kontsumitzen dutenak (% 16,2). Hortik aurrera, gero eta tabako gehiago erretzen da: egunero erretzen dute halamoduz gizarteraturik direnen % 22,7k eta bazterketa konpentsatuko egoeran direnen ia % 32k. Aldiz, bazterketa larrian direnen artean, soilik % 20,1ek erretzen du egunero.


23. taula: Tabakoa egunero erre ohi duten 15 urteko edo hortik gorako ehunekoak, zenbait aldagairen arabera. Gipuzkoa 2014

		Tasa (%)	Banaketa zuta (%)		Egunero erretzen dutenen kopurua
			Egunero erretzen	Guztira	
Sexua*	Gizona	23,1	57,1	48,4	67.733
	Emaztea	16,3	42,9	51,6	50.845
Adina*	15-24	13,9	6,7	9,5	7.951
	25-44	27,5	46,8	33,2	55.441
	45-64	24,2	40,2	32,5	47.658
	65 edo hortik gora	5,0	6,3	24,8	7.528
Nazionalitatea	Espainiakoa	19,7	93,6	93,0	111.042
	Atzerrikoa	17,9	6,4	7,0	7.535
Pobrezia erlatiboa	Bada	18,6	14,6	15,4	17.338
	Ez da	19,8	85,4	84,6	101.240
Guztira		19,6	100,0	100,0	118.577

* Aldeak badira, estatistikoki adierazgarriak, CHI-cuadrado probaren arabera, p<0.05entzat

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta2014.

7. grafikoa: Tabakoa egunero erre ohi duten 15 urteko edo hortik gorako ehunekoak, gizarteratze-baztertze mailaren arabera*. Gipuzkoa 2014



* Aldeak badira, estatistikoki adierazgarriak, CHI-cuadrado probaren arabera, p<0.05entzat.

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta2014.

3.2.2. Mendekotasuna eta hala direnen zaintza

Nahiz eta GPGBIa nagusiki pobrezia eta gizarte bazterketa egoerak neurtzeko egin den, aztertzen ditu ere –bi fenomenoen ikuspuntu dimentsioaniztari so eginez– menpeko egoerei dagozkien eta halako egoeran direnek dituzten beharrei dagozkien eta jasotzen duten laguntza motari, formal nola informalari dagozkion gaiak ere.

Lehen gaiari dagokionean, 2014ko datuek erakusten digute Gipuzkoan badirela eguneroko bizitzaren oinarriko egitekoak betetzeko zailtasun handiak sortzen dizkien edo haiek egitea erabat eragozten dien ezintasunen bat duten edo eritasun kronikoren bat edo osasun arazo larriren bat duten 30.000tik gora pertsona,

etxebizitza partikularretan bizitzen. Lortu ditugun emaitzetatik atera daiteke, beraz, gipuzkoarren % 4,2 inguruk duela beren autonomiaren murrizketaren bat edo mendekotasunen bat¹².

Emaitza hori, bestalde, orain dela bi urte lortu zenaren berdintsua da (% 4,3) eta, Gipuzkoan, balioetsiak izan

¹² Datu hauek kontu handiz erabili behar dira, alde batetik, mendekotasun arazoak dituztenen kopurua, laginari dagokionean, murrizta delako eta, beste aldetik, galdera bakar baten bitartez neurtzen delako eta galdera hori, etxebizitza bakoitzean, informatzaile batek erantzuten duelako (ez beti aipatua den pertsonak berak) eta, hartara, subjektibotasun handia gerta daiteke. Kontuan hartu behar da ere inkestak soilik etxebizitzetan bizi direnak hartzen dituela kontuan eta ez erakundeetan diren pertsonak.

diren eta zerbitzuen erabiltzaile diren pertsonen gaineko datuekin batera, mendeko biztanleen beharren eta jasozten duten artamenduaren arteko egokitzapen maila balioesteko bide ona da.

24. taula: Eguneroko oinarrizko egitekoetarako muga edo oztipoen gertatze maila, zenbait aldagairen arabera. Gipuzkoa 2014

		Gertatze maila (%)	Ukituak direnen kopurua
Sexua	Gizonak	3,8	13.309
	Emazteak	4,6	16.957
Adina*	<18	0,4	441
	18-34	1,1	1.307
	35-49	2,5	4.405
	50-64	2,7	3.845
	65-79	6,2	6.372
	80 edo hortik gora	29,9	13.895
Nazionalitatea*	Espainiakoa	4,5	30.123
	Atzerrikoa	0,3	144
Guztira		4,2	30.267

* Aldeak badira, estatistikoki adierazgarriak, CHI-cuadrado probaren arabera, $p < 0.05$ entzat

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2014.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren datuen arabera,¹³ 2014an, 33.276 pertsona ziren balioetsiak gure lurraldean. Haietatik, 26.332 pertsona (% 79) I, II edo III. mailako mendekoak ziren eta gainerakoak, balioetsiak ziren baina ez zitzaizkien mailarik aitortu. Kontuan hartu behar da, gainera, 6.741¹⁴ pertsona zirela batez ere adinekoentzako eta mendekotasunen baten dutenentzako egoitzetan artatuak, eta, familia etxeetan bizi ez zirenez, ez zirela gure ikerketa honetan kontuan hartu behar, lagin honetako parte ez baitira. Halatan, bada, alde batetik dugu nolabaiteko ezintasun edo mendekotasuna dutela dioten ia 30.300 pertsonako talde bat, eta beste aldetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak 26.500 pertsona inguru balioetsi ditu (% 87,4); horrek uzten digu pentsatzera mendeko pertsonetako gehienak jadanik balioetsiak dituztela Gipuzkoako Foru Aldundiaren gizarte zerbitzuek.

24. taulan ikus daitekeenez, pertsonen autonomiaren murrizte egoerak gehiago ematen dira emakumeen artean (% 4,6, emakumezkoetan eta % 3,8 gizonzkoetan) eta adinarekin, areagotzen joaten dira, nabarmen, nbatez ere adin gorenetan bilduz. Hartara, esan daiteke mendeko pertsonen ia erdiak (% 46) 80 urte edo gehiago dituela¹⁵. Kontuan hartzekoa da ere, ia ez dela mendekotasun arazorik atzeritarren artean; hori hala da, neurri handi batean, gure lurraldean adineko atzeritar gutxi delako¹⁶. Gaur egun, Gipuzkoan bizi diren atzeri-

tarren arteko % 2,5 besterik ez da 65 urtetik gorakoa eta % 0,5 besterik ez 80tik gorakoak¹⁷. Atzerrian jaiotzen diren gipuzkoarrak zahartu eta mendekotasun zaintzak eta artamenduak behar izaten hastetik oraindik urrun bagara ere, ez da alde batera utzi behar etorkizunean arazo horri heldu beharko diogula. Hori jadanik gertatu zaie herrialdeetan, adibidez, desberdintasun handiak agertu dira osasun eta gizarte zerbitzuak baliatzerakoan, etorkin eta adineko pertsona baldintza biak batera direnean¹⁸.

GPGBIren arabera, beren autonomian murrizketak dituzten guztien artean (30.267 pertsona), hamarretik ia zortzik (% 79,2) beste pertsonen laguntzaren bat edota artamenduren bat behar dute, eguneroko egiteko arruntak egiteko (ikus 25. taula). Halatan, bada, Gipuzkoan 24.000 pertsona inguru lirateke (biztanleen % 3,4) beren etxeetan sarturik eta artamenduren baten beharrez. Hasiera batean, jasotzen duten artamendua egokia den ala ez baloratzen hasi gabe, eguneroko bizitzako oinarrizko egitekoak betetzeko murrizketak dituzten % 96k jasotzen dute laguntzaren bat, publiko nahiz pribatua. Laguntza behar dutenen % 4 lirateke, beraz, -1.000 pertsona inguru-, horregatik edo hargatik, laguntzarik gabe. Aldi berean, esan daiteke atunonoman murrizketak dituzten eta laguntza behar duten guztien artean, ia % 25ek-6.000 pertsona inguru- ez duela mendekotasun balioespina eskatu.

Eguneroko bizitzako egitekoetan laguntzaren bat jasotzen dutela diotenei dagokienean, (ikus 8. grafikoa), aipatzekoa da senitateen laguntza informala duen garrantziak. Haien % 75,5ek senitateen laguntza jasotzen dute, hala bizikide dituztenena (% 70,4), nola hara hurbiltzen zaizkien senideena (% 24,4). Aipatzeko da ere, partikulari kontratatzen dituzten pertsonen laguntza (% 36,8), batez ere etxeko laguntza zerbitzua jasotzen dutenen kopuruarekin erkatuz gero (% 10,4). Bestalde, artamendua behar duten pertsona asko eta asko ari da diruzko laguntzaren bat jasotzen (% 61,2).

¹³ 2014ko abenduaren 31ko datuak. Informazioa osatzeko, Gipuzkoako Gizarte Behatokiaren webgunea ikus: <Behagi.eus>

¹⁴ Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Sailaren Plangintza, Hitzartze eta Prestazio Ekonomikoak emandako datuak.

¹⁵ Gipuzkoako Gizarte Behatokiak <Behagi.eus> 2014ko abenduaren 31n mendekotasun balioespina zuten pertsonen gaineko datuek erakusten dute, balioetsiak izan diren guztietatik (33.276 pertsona), % 55,7, hau da, 18.523 pertsona guztira, 80 urtetik gorakoak direla.

¹⁶ Kopuru hori zertxobait handitzen da, nazionalitatea kontuan hartu ordez, jaiotekua hartzen bada. Hala eginez gero, emaitzak erakusten diguten Estatistikatik at jaiotzen diren artean, autonomiaren murrizketa % 1,1ekoa dela ikusten da.

¹⁷ INE. Estadística del Padrón Continuo, 2014ko urtarillaren lehenean.


¹⁸ Lood, Q., Ivanoff, S.D. et al. *Health-promotion in the context of ageing and migration: a call for person-centred integrated practice*, International Journal of Integrated Care, Volume 14, 2014.

25. taula: Eguneroko bizitzako egitekoak betetzeko oztopo edota murrizketak dituztenen banaketa. Gipuzkoa 2014

	Eguneroko egitekoetan murrizketak dituztenen %	Eguneroko egitekoetan murrizketak izan eta laguntza behar dutenen %	Biztanle guztien %	Pertsona kopurua
Eguneroko egitekoetan murrizketak dituztenak	100,0	--	4,24	30.267
* Ez du besteen laguntza edo artamendurik behar	20,8	--	0,88	6.299
* Besteen laguntza edo artamendua behar du	79,2	100,0	3,36	23.968
<i>+ Mendekotasun balioespena eskatzea</i>				
- Ez du eskatu	19,6	24,8	0,83	5.946
- Eskatu du	59,5	75,2	2,52	18.021
<i>+ Laguntza jasotzea</i>				
- Ez du laguntzarik jasotzen	3,2	4,0	0,14	970
- Jasotzen du laguntza	76,0	96,0	3,22	22.998

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta2014.

8. grafikoa: Eguneroko egitekoetarako oztopo edo murrizketak izanik, laguntza behar eta jasotzen dutenen banaketa. Gipuzkoa 2014 (N=22.998)



Oharra: zerbituzen batuketak ez du % 100 ematen, pertsona berberak zerbitzu edo laguntza bat baino gehiago jaso dezakeelako.
Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta2014.

Mendekoen artamendurako zerbitzuaren diruzko laguntzak jasotzearen eta partikular bezala kontrataturiko zaintzetara jotzearen arteko harremanari dagokionean, ez da ikusi bigarren bide hori diruzko laguntzaren bat jasotzen dutenek gehiago baliatzen dutenik. Horri dagokionean, GPGBIren datuek erakusten digute partikular moduan kontrataturiko pertsonak berdin kontratatzen dituztela diruzko laguntza jasotzen dutenek nola jasotzen ez dutenek.

Laburbilduz, diruzko laguntzak alde batera utziz, 2014ko emaitzek erakusten digute etxean laguntza jasotzen dutenen % 71,8k artamendu informalak edota partikulariki kontrataturiko pertsonen artamenduak jasotzen dituztela soilik. Aldi berean, % 25,4k, baliabide horiez gain, Mendekoei Laguntzeko Zerbitzua, eguneko zentzoren bat edota telelaguntza ere erabiltzen dute, eta egunerokoak egiteko murrizketak dituzten eta laguntzak jasotzen ari direnen % 2,9 besterik ez da soilik hiru zerbitzu publikoetako bat baliatzen ari.

Baldin eta, azkenik, diruzko laguntzak hartzen baditugu kontuan, laguntza publikoak diren bezainbatean, atera-

ko litzaiguke pertsona horien % 33,6 ari direla familiaren edo pribatuki antolatutako laguntzak besterik ez jasotzen, eta % 63,5 – murrizketak jasanez eta laguntza behar izanik, laguntza jasotzen dutenen bi heren baino zertxobait gutxiago–, ari direla artamendu molde mistoa.

Baldin eta emaitza horiek 2012koekin erkatzen baditugu, ikus daiteke zertxobait apaldu dela murrizketak jasanez eta laguntza behar izanik, soilik familiaren edo bestelako artamendu pribatuak besterik jasotzen ez dutenen ehunekoa (% 39,3tik % 33,6ra) eta zertxobait emendatu, aldi berean, zuzeneko artamenduko zerbitzu publikoren bat jasotzen dutenen ehunekoa (etxeko laguntza zerbitzua, telelaguntza eta eguneko artamendua), diruzko laguntza edo artamendu informalak jaso ala ez kontuan hartu gabe (% 23tik % 28,2ra).

3.3. Lana eta lan baldintzak

3.3.1. Lanean aritzea eta lan baldintzak

GPGBIren emaitzen arabera, 2014ko amaiera aldean, Gipuzkoan, 300.400 pertsona inguruk zioten lanean ari zirela, eta ia 53.500 inguruk lan gabe zirela zioten. Azken horien artean, ia % 23k zioen ez zirela lana bilatzen ari; horrek uzten du, teknikoki, langabezian direnen kopurua 43.400 pertsonatan. Datu horien oso antzekoak dira gure lurralderako Eustat-en Biztanleria Jardueraren arabera Sailkatzeko Inkestak ematen dituen datuak, zeren, inkesta horren arabera, 2014ko azken hiruhilekoan, Gipuzkoan, 303.700 pertsona ziren lanean eta 41.700 pertsona lan gabe. 2012ko emaitzeekin erkatuz gero, zertxobait hobetu da egoera, lanean direnen kopurua % 1,7 emendatu baita. Egiten den lan kopurua alde batera utzita, lanak pobrezia aurre egiteko bermea izateari utzi dion egoera sozioekonomiko honetan, enpleguaren zenbait dimentsio aztertu behar dugu (lan kopurua, soldata maila, kontratu mota, etab.), senitarteen bizi baldintzetan nabarmen eragiten baitute orain.

Lan kopuruak senitarte baten lan maila neurtzen du, kontuan hartuz, senitartekoen artean, lanean izan litezkeenak, haietako bakoitzak, urtebetean, lan egin duen hilabete kopurua eta egin duen eguneko lanaldia. Honen ondoko taulak erakusten digu 60 urtez peko biztanleen banaketa, senitarteen lan kopuruaren arabera. Adierazle hau AROPE tasan, lan kopuru apala neurtzeko baliaitu denaren berdina da; 0tik 59 urte bitarteko biztanleak zenbait tartetan banatzen ditu, senitarteen enplegu iraunkortasunean diren aldeak adieraziz.

Senitarte baten lan kopuru handiena 1 izanik, bi pertsona helduko senitarte batean, adibidez, batek ez badu azken urtean lan egin eta besteak lanaldi murriztuan lan egin badu, bakarrik, senitarte horren lan kopurua 0,25koa litzateke.

Horiek horrela, emaitzek (ikus 26. taula) erakusten digute, lehen kolpe batean, 60 urtez peko pertsonen % 20,7 lan kopuru oso apaleko (%11,5) edo apal samarreko (% 9,2) senitarteetan bizi dela. Kopuru hori zertxobait handiagoa da emakumeen kasuan (% 22,4 emakumeak, % 19 gizonak) bai eta 45tik 59 urte bitartekoen artean. Halere, atzerrikoen artean hartzen dute zama espezifiko handiena halako senitarteek. Halatan, bada, oro har, oso lan kopuru apaleko tasa % 11,5 delarik, atzerrikoen artean, berriz, % 28,2 ingurukoa litzateke.

Adierazle horren eta gizarte bazterketako eta, batez ere, diruzko pobrezia egoeren arteko harremana ere nabarmena da. Pobrezia kasuan, ikus daiteke ezen, batezbesteko diru sarrera baliokideen %60 baino gutxiagoko diru sarrerak dituzten senitarteetako pertsonen artean, lan kopuru oso apala duten senitarteen ehuneko % 43,2koa dela. Datu horiek irakurketa bikoitza dute. Izan ere, lan kopuru apala izateak lau aldiz biderkatzen du pobrezia egoeran izateko arriskua, baina esan daiteke ere lan kopuru apala duten senitarteetako pertsonen artean, % 40 ez dela pobrezian. Hori ulertzeko bidea ematen du, neurri handi batean, pentsio, langabezia laguntza eta gutxieneko errenta sistemak duten eraginak. Gizarte bazterketaren kasuan ere, bereziki gora da lan kopuru apal duten senitarteen kopurua (% 44,3), baina kasu horretan, lan kopuru gora samar edo gora duten senitarteen kopurua askoz gorago da, diruzko pobrezia jasaten duten senitarteen kasuan baino.

26. taula: 60 urtez peko biztanleen banaketa, senitarteen lan kopuruari dagokionean, zenbait aldagairen arabera. Gipuzkoa 2014

		Zeharkako banaketa (%)				Banaketa zuta (%)				
		Oso apala <0.2	Apal samarra 0.2-0.5	Gora samarra 0.5-0.8	Oso gora 0.8-1	Oso apala <0.2	Apal samarra 0.2-0.5	Gora samarra 0.5-0.8	Oso gora 0.8-1	Guztira
Sexua	Gizona	10,4	8,6	35,2	45,8	45,7	47,6	51,1	52,2	50,6
	Emaztea	12,7	9,7	34,6	43,0	54,3	52,4	48,9	47,8	49,4
Adina*	<=17	10,9	4,9	39,7	44,6	22,4	12,6	26,9	23,8	23,7
	18-44	10,9	10,8	34,3	44,0	44,0	54,6	45,5	46,0	46,4
	45-59	12,9	10,0	32,1	44,9	33,6	32,8	27,5	30,2	29,9
Nazionalitatea*	Espainiakoa	10,0	8,1	35,4	46,5	80,0	80,8	93,1	96,2	91,8
	Atzerrikoa	28,2	21,6	29,7	20,5	20,0	19,2	6,9	3,8	8,2
Pobrezia erlatiboa*	Bada	43,2	27,3	25,5	4,0	59,9	47,6	11,6	1,4	16,0
	Ez da	5,5	5,7	36,7	52,1	40,1	52,4	88,4	98,6	84,0
Gizarte bazterketa*	Bada	44,3	10,9	29,3	15,5	56,1	17,3	12,2	5,1	14,6
	Ez da	5,9	8,9	35,9	49,3	43,9	82,7	87,8	94,9	85,4
Guztira		11,5	9,2	34,9	44,4	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

* Aldeak badira, estatistikoki adierazgarriak, CHI-cuadrado probaren arabera, $p < 0.05$ entzat
Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta2014.

Lanaldi murriztuan ari direnen pobrezia eta gizarte bazterketa tasak lanaldi osoz ari direnen tasak halako bi dira

2014an, lan merkatuan zirenen % 14,4 ari zen astean 25 ordu baino gutxiagoko lanaldi murriztuan lanean. Kopuru hori zer edo zer emendatu da azken bi urteotan -2012an, % 12,6koa zen-, eta bereziki gora da emazteen kasuan eta adin txikiagoko langileen artean. 27. taulan ikus daitekeen bezala, emazteek duten lan murriztuko tasa gizonezkoa baino bost aldiz handiagoa da (% 24,7 lehenek eta % 4,9 bigarrenek) eta 35 urteko langileen oso antzekoa da (% 24,3). Horrenbestekoa ez bada ere, atzerriko nazionalitatekoek duten lanaldi murriztuaren tasa ere (% 18,1) lanean diren guztien tasa orokorra baino gorago da.

Batez ere emazteen lanaldi moldea izateaz gain -lanaldi murriztuan ari direnen hamar pertsonetatik 8 emazteak dira-, oraindik ere lan prekarietateari oso loturik den lanaldi molde hori estuki lotua da pobrezia eta gizarte bazterketa egoerekin. GPGBIren datuek erakusten digute pobreen artean, lanaldi murriztuaren tasa % 33,8koa dela eta % 26,8koa, berriz, gizarte bazterketan direnen artean.

Lanaldi mota horren beste ezaugarria da, lanaldi murriztua, oraindik orain, gehienetan nahi ez den gauza dela (lanaldi murriztuan ari direnen % 51ek dio horren arrazoia dela ez duela lanaldi osoko beste lanik aurkitu) eta familia eta lana bateratu beharri loturik dela ere. Astean 25 ordu baino gutxiago lan egiten dutenen laurden batek dio horren arrazoia dela adin txikikoen, erien edo mendeko pertsonen zaintza egin beharra (% 19,4) edo familiari edo beren beharrei loturiko egitekoak direla (% 5,4).


27. taula: Lanaldi murriztuan ari diren 16 urteko edo hortik gorako biztanleen ehunekoa, zenbait aldagairen arabera. Gipuzkoa 2014

		Tasa (%)	Banaketa zuta (%)	
			Lanaldi murriztua	Lanean den biztanle oro
Sexua*	Gizona	4,9	17,6	51,8
	Emaztea	24,7	82,4	48,2
Adina*	<35	24,3	37,5	22,3
	35-49	11,7	37,6	46,3
	50 edo hortik gora	11,4	24,9	31,5
		11,4	24,9	31,5
Nazionalitatea*	Espainiakoa	14,2	91,5	93,2
	Atzerrikoa	18,1	8,5	6,8
Pobrezia erlatiboa*	Bada	33,8	15,6	6,7
	Ez da	13,1	84,4	93,3
Gizarte bazterketa*	Bada	26,8	17,0	9,2
	Ez da	13,2	83,0	90,8
Guztira		14,4	100,0	100,0

* Aldeak badira, estatistikoki adierazgarriak, CHI-cuadrado probaren arabera, $p < 0.05$ entzat

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014.

9. grafikoa: Lanaldi murriztuan diren batzuek azaldu dituzten arrazoiak. Gipuzkoa 2014



* Aldeak badira, estatistikoki adierazgarriak, CHI-cuadrado probaren arabera, $p < 0.05$ entzat.

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014.

3.3.2. Soldata maila


GPGBI erakusten duenez, soldatapean den biztanleriaren batezbesteko hileko soldata garbia, 2014an, 1.531 eurokoa da. Kopuru horrek enpresari eta enplegatzaile direnen ez beste lan egoerak biltzen ditu eta hala soldata arruntak nola ordainketa bereziren heineko banaketa, bai eta beregain aritzen direnen erregimenean diren diru sarrerak ere sartzen dira bertan; guztira, lanean ari direnen % 95 inguru hartzen ditu.

Azken bilakaerari dagokionean, gipuzkoarren hileko batezbesteko soldata garbia ia ez da aldatu 2012tik hona -1.524 euro¹⁹-. Bi urteotan izan den emendatzea % 0,5koa izan da. Bestalde, batezbestekoa erabili ordez, erdiko balioa erabiltzen bada²⁰, erdiko soldata 1.400 eurotan mantentzen dela ageri zaigu. Lehen datu hauek aldaketa gutxi adierazten badituzte ere, gertatu da zenbait aldaketa bi urte hauetan.

¹⁹ Kopuru hori ez da 2012ko GPGBIren txostenean agertzen denaren berdina, oraingo kalkuluan, enplegatzaile diren enpresariak kalkulatik at utzi ditugulako.

²⁰ Neurri horrek soldatapekoak bi zati berdinetan banatzen dituen puntua adierazten du, alde batean gutxien irabazten dutenak eta beste- an gehien irabazten dutenak emanez.

10. grafikoa: Soldatapeko biztanleen banaketaren bilakaera, hileko soldata garbiari begiraturaz. Gipuzkoa 2012-2014



Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014.


Erdiko joerako neurriak hartu beharrean kontuan, hala nola diren batezbestea eta erdiko balioa, soldatapeko biztanleen banaketa soldata tartean arabera aztertzen bada, ikusten da muturretan gertatu direla emendatzeak. Hau da, 2012 abiapuntu gisa hartuz, gehien eta gutxien irabazten duten langileen zama erlatiboa emendatu da.

Aldeak txikiak izanik ere, emaitzek erakusten digute 1.200 eurotik beherako soldatak dituztenak pasatu direla % 32,8 izatetik % 34,8 izatera, eta % 23,1etik % 25,4ra pasatu direla, hilean 2.000 euro edo hortik gora irabazten dutenak. Efektu zentrifugo horrek uzten digu pentsatzera lanean diren gipuzkoarren arteko soldata desberdintasunak areagotu direla.

Baieztapen hori argiago agertzen da oraindik 11. grafikoa eskaintzen dizkigun datuetan, bertan azaltzen baita erdiko soldataren bilakaera soldata kintilka. Grafikoa horrek erakusten du ezen soldata apalena duten langileen % 20en erdiko soldata % 5,2 murriztu dela eta soldata gorenak dituzten % 20ena, aldiz, % 2 emendatu dela.

GPGBIren bi argitaldiek eskaintzen dituzten emaitzak mugatuak badira ere, horietatik joera argi bat ateratzeko, badirudi, halere, gipuzkoar langileen soldata arrakala zabaldu dela azken bi urteotan. Horren argigarri, baldin eta gehien irabazten dutenen soldata gutxien irabazten dutenen soldatarekin zatituz gero, ematen duen ratioa 3,9tik 4,2ra pasatu dela ageri da.

11. grafikoa: Soldatapeko gipuzkoarren hileko erdiko soldata garbiaren bilakaera, kintilka, eta lehen eta azken kintilen arteko ratioa. Gipuzkoa 2012-2014



Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014.

28. taula: Soldatapeko biztanleen banaketa, hileko soldata garbiari dagokionean, zenbait aldagairen arabera. Gipuzkoa 2014

		Zeharkako banaketa (%)				Banaketa zuta (%)				
		<1.000	1.000-1.499	1.500-1.999	2.000 edo gehiago	<1.000	1.000-1.499	1.500-1.999	2.000 edo gehiago	Guztira
Sexua*	Gizona	12,2	27,3	27,6	32,9	27,5	46,9	64,7	66,6	51,4
	Emaztea	33,9	32,7	15,9	17,4	72,5	53,1	35,3	33,4	48,6
Adina*	<35	34,6	38,2	17,8	9,4	34,6	29,0	18,4	8,5	22,7
	35-49	17,2	31,4	24,3	27,2	35,0	48,6	51,3	49,8	46,4
	50 edo hortik gora	22,4	21,7	21,5	34,4	30,4	22,4	30,2	41,8	30,8
Nazionalitatea*	Espainiakoa	21,6	28,8	22,8	26,8	88,2	89,5	96,7	98,2	93,0
	Atzerrikoa	38,3	44,9	10,3	6,4	11,8	10,5	3,3	1,8	7,0
Ikasketa maila*	1. mailakoak	36,2	31,5	22,2	10,1	41,6	27,1	24,9	9,7	25,3
	2. mailakoak	19,8	36,4	25,3	18,5	37,3	51,3	46,5	29,2	41,4
	Goi mailakoak	13,9	19,0	19,3	47,8	21,1	21,6	28,6	61,0	33,4
Pobrezia erlatibo*	Bada	61,8	34,5	3,7	0,0	17,8	7,6	1,1	0,0	6,6
	Ez da	20,0	29,6	23,2	27,2	82,2	92,4	98,9	100,0	93,4
Gizarte bazterketa*	Bada	44,3	20,7	18,8	16,3	16,7	5,9	7,3	5,5	8,6
	Ez da	20,8	30,8	22,2	26,2	83,3	94,1	92,7	94,5	91,4
Guztira		22,8	29,9	21,9	25,4	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

* Aldeak badira, estatistikoki adierazgarriak, CHI-cuadrado probaren arabera, $p < 0.05$ entzat
Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014.

Laneko diru sarrera garbier banaketa erruz aldatzen da, biztanleen aldagai soziodemografiko nagusiak kontuan hartuz gero. Sexuak, adinak, nazionalitateak edo buruturiko ikasketa maila gorenak desberdintasun handiak ekartzen dituzte soldatetan. Halatan, adibidez, 28. taulan ikus daitekeen moduan, 1.000 eurotik beherako diru sarreraren tasa gorenak ematen dira atzerriko nazionalitatekoen artean (% 38,3, orokorrean % 22,8koa delarik), gehienez lehen mailako ikasketak egin dituztenen artean (% 36,2), 35 urtez pekoen artean (% 34,6) eta emazteen artean (% 33,9, gizonen artean % 12,2 delarik).

Diruzko pobrezia eta lanetik datozen diru sarreraren artean ere lotura estua da, noski; hartara, lanagatik, hilean 1.000 euro baino gutxiago irabazten dutenen % 80 baino gehiago pobrezia erlatiboko egoeran dira.

Alde adierazgarriak agertzen dira ere, lanean diren pertsonen soldata maila pertsona horiek gizarte bazterketa adierazlean kokaturik diren arabera aztertzean, baina, dena den, lotura hori ez da pobreziarekin dena bezain nabarmena, noski. Gizarte bazterketa egoeran diren heren baten inguruk ditu lanean diren batezbesteko diru sarreraren pareko edo handiagoko diru sarrerak, eta pobrezia erlatiboaren kasuan, aldiz, ehuneko hori % 3,7koa besterik ez da..

Lortu ditugun emaitzek, batez ere diru sarrera apalei loturik diren enplegu dimentsio zenbait zehazteko aukera ematen digute ere. Aldi baterako kontratazioak eta, batez ere, lanaldi murriztua egiteak nabarmen areagotzen dute diru sarrera apalak izateko arriskua. Zerbitzuen sektorean lan egiteak ere, industrian aritu ordez, baldintzatzen du soldata maila. Industrian lan egiten dutenen % 34ak baizik ez ditu 1.500 eurotik beherako soldata hartzen, baina hirugarren sektorean, berriz, % 59 dira.

29. taula: Soldatapekoen banaketa, hileko soldata garbiari dagokionean, enpleguari loturiko zenbait aldagairen arabera. Gipuzkoa 2014

		Zeharkako banaketa (%)				Banaketa zuta (%)				
		<1.000	1.000-1.499	1.500-1.999	2.000 edo gehiago	<1.000	1.000-1.499	1.500-1.999	2.000 edo gehiago	Guztira
Kontratu mota*	Mugagabea	15,3	27,1	24,5	33,0	51,7	68,4	86,1	92,4	74,9
	Aldi baterakoa eta beste	42,8	37,3	11,9	8,1	48,3	31,6	13,9	7,6	25,1
Lanaldi mota	murriztua (<astean 25/or.)	83,5	12,0	2,7	1,8	53,8	5,9	1,8	1,0	14,7
	Osoa	12,3	33,0	25,2	29,4	46,2	94,1	98,2	99,0	85,3
Ekonomia sektorea*	Industria	10,2	23,8	38,6	27,4	10,6	18,8	41,5	25,4	23,6
	zerbitzuak	27,7	31,3	16,5	24,6	84,8	72,8	52,3	67,5	69,7
	Gainerakoa	15,8	37,4	20,2	26,6	4,7	8,4	6,2	7,1	6,8
Guztira		22,8	29,9	21,9	25,4	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

* Aldeak badira, estatistikoki adierazgarriak, CHI-cuadrado probaren arabera, $p < 0.05$ entzat
Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014.

3.3.3. Beste lan baldintzak

GPGBIren 2014ko datuek erakusten dute, inkesta egin zaien pertsonen emaitza informazioan oinarrituz, 2014an, lanean diren gehien-gehienek Gizarte Segurantzaren kotizatzen dutela eta % 1,9 ez dela kotizatzen ari. Aldi berean, emaitzak erakusten dute ia soldatapekoen laurdenak duela aldi baterako kontratua eta % 1,1 kontratu gabe ari dela lanean. Bestalde, bilduriko informazioatik ateratzen da, orain lanean diren pertsonen % 12,3, gehienez zortzi hilabetez aritu zela lanean, inkestaren aurreko urtean, eta beste % 5,5 aritu zela lau hilabete baino gutxiago.

2012arekin erkatuz, oraingo GPGBIren emaitzen erakusten digute erruz gutxitu dela kotizatzen ez duten langileen kopurua (% 4tik % 1,9ra), bai eta zer edo zer apladu direla kontratu gabekoen langileen kopurua (% 1,4etik % 1,1era) eta azken urtean la u hilabete baino gutxiago lan egin duten langileen kopurua (% 6,1etik, 2012an, % 5,5era orain).

Oro har, lan prekarietateari loturiko egoera hauek gehien jasaten dituztenak emakumeak dira, adin txikiago pertsonak eta, batez ere, atzerriko nazionalitatekoak.

30. taula: Lanean den biztanleria zenbait aldagairen arabera banatzea. Gipuzkoa 2014
Zeharkako banaketa (%)

		Gizarte segurantzaren kotizatzea		Kontratu mota (soldatapekoak soilik)			Lanaren iraunkortasuna, azken urtean (hilabeteak)		
		Kotizatzen du	Ez du kotizatzen	Mugagabea	Aldi baterako edo beste	Kontraturik gabe	3 edo gutxiago	4-8	9 edo gehiago
Sexua	Gizona	98,5	1,5	77,8	21,6	0,6	5,2	6,5	88,3
	Emaztea	97,7	2,3	72,0	26,4	1,6	5,9	7,2	86,9
Adina	<35	97,0	3,0	51,8	47,0	1,1	12,4	13,4	74,2
	35-49	98,8	1,2	79,9	18,9	1,1	3,6	5,5	91,0
	50 edo hortik gora	97,9	2,1	86,3	12,7	1,0	3,2	3,9	93,0
Nazionalitatea	Espainiakoa	98,2	1,8	76,1	22,8	1,1	5,5	6,4	88,1
	Atzerrikoa	96,8	3,2	60,2	38,8	0,9	5,3	12,8	81,9
Gehieneko ikasketaren maila	1. mailakoak	97,4	2,6	75,3	23,0	1,8	6,8	6,3	86,9
	2. mailakoak	98,4	1,6	75,7	23,0	1,2	2,8	7,1	90,1
	Goi mailakoak	98,5	1,5	77,5	22,1	0,4	5,0	5,3	89,7
Pobrezia erlatiboa	Bada	94,6	5,4	63,9	32,4	3,7	12,4	15,5	72,1
	Ez da	98,4	1,6	75,6	23,4	0,9	4,9	6,0	89,1
Guztira		98,1	1,9	74,9	24,0	1,1	5,5	6,8	87,6

* kasuak oso urriak izanik, taula honen emaitzak kontu handiz hartu behar dira, batez ere, biztanle talde zenbaitetan, gizarte segurantzaren kotizatzen ez duten pertsonak eta kontratu gabeko soldatapekoak izateari dagokionean.

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014.

3.3.4. Langabezia


Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte bazterketa Inkestaren arabera, 2014an, 16 urteko edo hortik gorako 53.500 pertsona ziren, guztira, langabezian zirela ziotenak. Kopuru hori lanerako diren pertsona guztien % 15 eta gipuzkoar ororen % 7 da. Baldin eta langabetzat, egoera horretan direla esan duten guztiak hartu beharrean, soilik lan bila ari direnak kontuan hartuz gero, hastape-neko kopuru hori 43.400 pertsonetara jaitsiko litzateke, hau da, lanerako gai den biztanleriaren % 12. Azken bi urteotan, adierazle horrek hobera egin du, zeren 2012an, GPGBIren arabera, langabe eta lan bila zirela zioten pertsonak lanerako gai zen biztanleriaren % 14 baitziren.

Langabe direnak ongi zehazturik badira ere, beste inkesta edo erregistro berezi zenbaitek ematen dituzten datuen bidez –hala nola, Biztanleria Jardueraren arabera Saillatzeko Inkestak edo Lanbideren erroldaturiko langabezia datuak–, hemen zenbait emaitza emanen ditugu, Gipuzkoan lan gabe direnen egoeraren gainean, hala langabeziaren iraupenari dagokionean, lan baten bila aritzeari dagokionean eta formakuntza edo laguntzak jasotzeari dagokionean, nola kolektibo horren

pobrezia eta gizarte bazterketa egoeretan langabeziak duen eraginari dagokionean ere.


12. grafikoak erakusten du, langabezian direnak egoera horretan daraman denboraren arabera banatuz, lan gabe direnen % 37k 12 hilabete baino gutxiago daramatzala egoera horretan, % 23k 13 eta 24 hilabete artean daramatza, eta ia % 40ak dio bi urte baino luzeago dela langabeian. Iraupen oso luzeoko langabeziari dagokionean, hau da, lan gabe bi urte baino luzeago direnei dagokionean, GPGBIk Gipuzkoarako ematen dituen datuak Lanerako gai den Biztanleriaren Inkestak 2014ko azken hiruhilekorako ematen dituenak baino zertxobait apalagoak dira, hala EAerako ematen dituenak baino apalagoak (% 42), nola Estatu osorako ematen dituenak baino apalagoak (% 43).

12. grafikoa: Lan gabe direnen banaketa, lan bila daramaten denboraren arabera. Gipuzkoa 2014



Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014.

13. grafikoa: Lan gabe direnen banaketa, azken urtean formakuntzan aritzeari loturik. Gipuzkoa 2014



Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014.

Halere, oso iraupen luzeko langabezia, azken bi urteotan bilakaera okarren izan duten adierazleen artean da. Izan ere, 2012ko datuak kontuan hartuz gero, han, langabezia bi urte baino gehiago zeramatzatzen tasa % 26koa zen; emendatzea ia 14 puntukoa da.

Datu hauek benetan kezkarriak dira eta langabezia egoeren nolabaiteko kronifikatze bidean garela uzten digute pentsatzera. Talde horren ezaugarri dagokionean, % 62,5 gizonak dira eta % 60k, gehienez lehen mailako ikasketak burutu ditu. Gainera, % 32 berrogeita hamar edo hortik gorako pertsonak dira eta % 24 atzeritarrek dira. Talde horretan, pobrezia erlatiboaren tasa ia % 69koa da, langabezia 12 hilabete edo gutxiago daramatzaten pertsonen tasa % 38 delarik.

Formakuntzari dagokionean, GPGBiren datuek erakusten digute, lan gabe direnen % 34,3k, azken urtean, formakuntza ikastaroren bat egin duela, edo Lanbideren bidez (% 20,5) edo beste bide batez, hala nola hizkuntzak edo informatika ikastekoak, esate baterako (% 14,3), beren lan gaitasuna hobetzeko asmoz. Azken urtean ikastarorik egin ez duten langabeen artean, adin goragoko pertsonak (% 87,6) eta lehen mailako ikasketak besterik ez dutenak (% 78,6) nabarmentzen dira. Ikusten da ere formakuntza gehiago egiten dutela emazteek (% 38,4) eta, batez ere, atzeritarrek (% 46,6), baina ez da erlazio adierazgarri ikusten lan gabeko aldiak egiten den formakuntzaren eta ikerketa honetan aztergai ditugun pobrezia eta gizarte bazterketa aldagaien artean.

31. taula: Lan gabe direnen banaketa, zenbait aldagairen arabera. Gipuzkoa 2014
Zeharkako banaketa (%)

		Langabeziaren iraupena				Azken urteko formakuntza			
		<=12 hilabete		+24 hilabete		Ikastaroak egin ditu		Ez du ikastarorik egin	
		% zeharka	% zuta	% zeharka	% zuta	% zeharka	% zuta	% zeharka	% zuta
Sexua	Gizona	37,2	55,3	44,9	62,5	30,9	49,8	69,1	58,0
	Emaztea	37,1	44,7	33,2	37,5	38,4	50,2	61,6	42,0
Adina	<35	42,2	39,4	32,8	28,7	38,2	38,7	61,8	32,6
	35-49	38,3	41,6	38,2	38,9	44,4	52,3	55,6	34,2
	50 edo hortik gora	28,4	19,1	51,5	32,4	12,4	9,0	87,6	33,3
Nazionalitatea	Espainiakoa	39,3	86,8	36,8	76,3	31,6	75,6	68,4	85,4
	Atzerrikoa	27,3	13,2	52,5	23,7	46,6	24,4	53,4	14,6
Gehieneko ikasketa maila	1. mailakoak	25,8	31,2	55,3	59,1	21,4	28,2	78,6	52,0
	2. mailakoak	41,4	45,8	34,4	33,5	42,4	50,8	57,6	34,7
	Goi mailakoak	52,5	23,0	19,3	7,4	44,2	21,0	55,8	13,3
Pobrezia erlatiboa	Bada	26,6	37,9	51,3	68,6	32,0	49,5	68,0	54,9
	Ez da	49,2	62,1	26,5	31,4	36,9	50,5	63,1	45,1
Gizarte bazterketa	Bada	28,2	31,0	47,2	48,7	32,8	39,1	67,2	41,8
	Ez da	43,4	69,0	34,4	51,3	35,3	60,9	64,7	58,2
Guztira		37,2	100,0	39,6	100,0	34,3	100,0	65,7	100,0

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014.

Lan gabe direla –lan bila izan ala ez- diotenen gaineko datuek (53.500) erakusten digute ere pertsona haietarik ia % 66k diotela ez dutela hartzen, ez kontribuzio mailako prestazioa ez eta langabezia laguntza ere; % 41,3, berriz, hau da, 22.000 pertsona inguru, senitartearen pertsona nagusia direla, hau da, senitartera diru sarrera handienak ekarri ohi duena. Beste ikuspuntu batetik ere esan daiteke Gipuzkoako senitartearen % 7,7k dutela pertsona nagusizat lan gabe den norbait eta hamar kasutatik lauretan, lan gabe bi urtetik gora daramatzaten pertsonak direla. Bestalde, esan daiteke ere senitartearen % 16,4k dutela beren barnean, lan gabe den pertsona bat edo gehiago.

Erreferente den pertsona lan gabe duten senitartearen egoerari dagokionean, GPGBIren emaitzek erakusten digute zenbateraino hedatu diren pobrezia eta prekaritate egoerak. Izan ere, 32. taulak erakusten duenez, senitarte horien artean den pobrezia erlatiboaren edo diru sarrera apalen tasa, Gipuzkoako senitarteetan, oro har, ematen dena baino ia lau aldiz handiagoa da. Horren arrazoia da senitarte horien erdiko errenta balio-kidea (760 euro) senitarteetan, oro har, denaren erditsua dela.

Aldi berean, kontuan hartzen baditugu eskasia material larriko egoerak eta gizarte bazterketa larriko egoerak, emaitzek erakusten digute egoera horiek halako senitartearen ia % 30ean ematen direla.

32. taula: Pobrezia, prekaritate eta bazterketa egoeren gertatze maila, pertsona nagusia lan gabe duten senitarteetan. Gipuzkoa 2014

	Pertsona nagusia lan gabe dutenen senitarteak	Senitarte guztiak
Pobrezia erlatiboa	62,1	15,6
Pobrezia larria	29,4	4,4
Eskasia material larria	28,1	5,2
Gizarte bazterketa larria	26,6	5,4
Erdiko errenta balio-kidea	760	1.410
% senitarte ororen artean	7,7	100

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014.

Nolakoak dira senitarte horiek? Emaitzek erakusten digute % 37ren kasuan, pertsona bakarreko senitarteak direla eta % 22an, Estatutik at jaio den norbait buruan duten senitarteak direla. Presentzia handia lukete ere, senitarte horietan, guraso bakarreko senitarteek (% 15, oro har % 10,5 direlarik), bai eta 45 urtez peko pertsonak buruan dituzten senitarteek ere (% 49).


3.4. Gastua eta zorpetzea

3.4.1. Senitartearen gastua eta hila bururatzeko zailtasunak

2014ko Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestaren datuen arabera, Gipuzkoako senitartearen hileko batezbesteko gastu arrunta 1.580 eurokoa da. Kopuru hori senitartearen hileko batezbesteko diru sarrera arruntekin erkatuz gero, ateratzen den hileko gastu maila, diru sarrera ororen % 77koa da.

14. grafikoak erakusten duenez, hamar senitartetik batek besterik ez du irabazten duenaren % 50etik beherako gastu maila; laurden batek gastatuko luke, hilean, diru sarreraren %50etik % 75 artean. Aldi berean, senitarte gehienek (% 57) % 76 eta % 100 arteko gastua luke eta % 8 inguruk gastatuko luke irabazten dutena baino gehiago. Oro har, senitartearen % 65 inguruk luke ezohiko gastu edo diru sarrerak alde batera utzirik- zer edo zer aurrezteko aukera.

14. grafikoa: Senitartearen banaketa, hileko gastu mailaren arabera. Gipuzkoa 2014 (Diru sarreraren gaineko gastuaren %)



Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014.

Zenbateraino dute Gipuzkoako senitarteek hila bururatzeko zailtasunak? GPGBIren arabera, hogeita hamar senitartetik hiruk adierazten du hila bururatzeko zailtasun handiak dituztela. Zehazki, 2014an, Gipuzkoako senitartearen % 14,6k dio senitarteak gaur egun dituen diru sarrerekin, hala-hala (% 9,5) edo zailtasun handiz (% 5,1) bururatzeko dutela hila. Kopuru hori ez da bi urteotan aldatu; 2012an, hila bururatzeko zailtasun handiak zituztela zioten senitarteak % 14,8 ziren. Aldi berean, Estatu osorako, "Encuesta de Condiciones de vida" izeneko inkestak ematen duen tasa baino apalagoa da. Haien kasuan, zailtasun zerbait edo zailtasun handia adierazten duten pertsonak % 39,1 dira, eta Gipuzkoan - senitarteak hartu beharrean kontuan, pertsonak hartzen baditugu- ukituriko pertsonak % 14 besterik ez dira.

33. taula: Senitarteen banaketa, hila bururatzeko adierazi duten zailtasunari dagokionean **, erreferente den pertsonaren eta senitartearen zenbait ezaugarriren arabera. Gipuzkoa 2014

		Zeharkako banaketa (%)				Banaketa zuta (%)				
		Zailtasun handiz [1]+[2]	Zail samar [3]	Erraz samar [4]	Oso erraz [5]+[6]	Zailtasun handiz [1]+[2]	Zail samar [3]	Erraz samar [4]	Oso erraz [5]+[6]	Guztira
Sexua*	Gizona	11,6	22,9	38,7	26,7	55,8	64,8	74,8	77,0	70,1
	Emaztea	21,6	29,2	30,5	18,7	44,2	35,2	25,2	23,0	29,9
Adina*	<45	15,3	24,9	33,9	25,9	30,7	29,4	27,4	31,2	29,3
	45-64	15,9	22,5	34,9	26,7	40,1	33,3	35,4	40,3	36,8
	65 edo hortik gora	12,6	27,2	39,7	20,4	29,2	37,3	37,2	28,5	33,9
Nazionalitatea*	Espainiakoa	13,4	24,2	37,2	25,2	86,4	92,0	96,5	97,5	94,1
	Atzerrikoa	34,0	34,0	21,5	10,5	13,6	8,0	3,5	2,5	5,9
Senitartea*	Pertsona bakarrekoa	20,1	25,0	33,5	21,4	33,8	24,8	22,7	21,6	24,6
	Seme-alabarik gabeko bikotea	9,4	20,5	42,0	28,1	15,4	19,8	27,7	27,7	24,0
	Bikotea, seme-alabekin	11,5	24,9	36,7	26,8	29,9	38,3	38,6	41,9	38,1
	Guraso bakarrekoa	22,7	35,3	29,6	12,4	16,3	14,9	8,5	5,3	10,5
	Beste	22,9	18,8	29,4	28,9	4,6	2,2	2,4	3,5	2,9
Pobrezia erlatiboa*	Bada	46,6	39,1	11,7	2,6	49,7	24,6	5,0	1,6	15,6
	Ez da	8,7	22,2	40,8	28,4	50,3	75,4	95,0	98,4	84,4
Eskasia material larria*	Bada	87,5	11,0	1,5	0,0	31,0	2,3	,2	0,0	5,2
	Ez da	10,6	25,6	38,1	25,7	69,0	97,7	99,8	100,0	94,8
Gizarte bazterketa*	Bada	46,1	22,0	22,8	9,1	42,6	12,0	8,5	5,0	13,5
	Ez da	9,7	25,2	38,3	26,7	57,4	88,0	91,5	95,0	86,5
Guztira		14,6	24,8	36,2	24,3	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

* Aldeak badira, estatistikoki adierazgarriak, CHI-cuadrado probaren arabera, p<0.05sentzat

** [1] Zailtasun handiz; [2] zailtasunez; [3] zail samar; [4] erraz samar; [5] oso erraz.

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014.

34. taula: Biztanleen banaketa, hila bururatzeko adierazten duten zailtasun mailaren arabera

	Gipuzkoa 2014	Espainia 2014	EB-28 2013
Zailtasun handiz	4,8	17,5	12,2
Zailtasunez	9,2	21,6	16,7
Zail samar	24,9	28,8	28,7
Erraz samar	36,6	23,2	24,9
Erraz	22,2	8,4	13,1
Oso erraz	2,3	0,6	4,5
Guztira	100,0	100,0	100,0
Pobrezia erlatiboaren tasa	15,6	22,2	16,6
Pobrezia erlatiboko egoeran diren senitarteen bizi diren eta zailtasun handia adierazten duten pertsonen %	56,8	41,8	30,2

Iturriak: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014; INE, Encuesta de Condiciones de Vida 2014; Eurostat, EU-SILC.

Senitarte guztiek ez dute, noski, hila bururatzeko zailtasun maila bera. 33. taulan ikus daiteke, erreferentetzat emazte bat duten senitarteek eta, batez ere, atzerriko nazionalitateko norbait buru duten senitarteek gainerakoek baino askoz gehiagotan adierazten dituztela hila bururatzeko zailtasun handiak. Guraso bakarrek famulietan eta pertsona bakarrek ere hedatuago da egoera hori. Argi da, bestalde, hila bururatzeko sentitzen den zailtasuna loturik dela pobrezia erlatiboko, gizarte bazterketako eta, batez ere, eskasia materialeko egoerekin.

3.4.2. Etxebizitza gastuak


Senitarteen gastu egituraren barnean, etxebizitza nagusia mantetzeko gastua (alokairua edo hipoteka ordaintzekoak, halakorik balitz, eta energia kontsumoarenak besterik ez) senitarteen batezbesteko gastu osoaren % 21ekoa da. Kopuru hori % 29raino igotzen da, hilero hipoteka edo alokairua ordaindu behar duten senitarteak besterik ez baditugu kontuan hartzen.

Energiari loturiko gastua alde batera utziz gero²¹, 2014ko datuek erakusten digute, Gipuzkoan, senitarteen % 44,3k dutela hilero hipoteka (% 29,9) edo alokairua (% 14,4) ordaindu beharra. Hartara, Gipuzkoako senitarteen % 55,7 lirateke –etxebizitza nagusiari dagokionean, bederen– halako gastuetatik libre. 2012tik 2014ra, banaketa hori ia ez da aldatu, nahiz eta hipoteka eta alokairutan, batezbestean, ordaintzen dena zertxobait apaldu den: 2014an, hilean 537 eta 491 eurokoak dira.

²¹ Gai hori eta energia pobrezia loturiko beste batzuk, argitaratze bidean den honako ikerketa honetan aztertuko dira sakonki: *Energia pobrezia Gipuzkoan, 2014an duen eraginaren azterketa kuantitatiboa*, SIIS- Dokumentazio eta Ikerketa Zentroak, GPGBIren datuetatik abiatuz eginikoa.

Bestalde, kontuan hartzen badugu hipoteka edo alokairua ordaintzearen eta senitarteen diru sartze arruntan arteko harremana, ikusten da hipoteka edo alokairua ordaintzen duten Gipuzkoako senitarteen % 33,1k beren diru sarreraren % 20 baino gutxiago xahutzen dutela ordainketa horietan, % 47,4k % 20aren eta % 40aren artean xahutu behar dutela, eta gainerako % 19,5ek, senitartearen diru sarreraren % 40 baino gehiago ematen duela.

15. grafikoa: Hipoteka edo alokairua ordaindu behar duten senitarteen banaketa. Gipuzkoa 2014 (Hipoteka edo alokairuan gastatzen den diru sarreraren %)



Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014.

Hasieran aipatu dugun bezala, Gipuzkoan, senitarteen % 44,3k ordaindu behar du, hiler, hipoteka edo alokairuren bat. Baina, zenbateraino pentsa daiteke diruzko betebeharrak horiek halako edo holako lotura dutela aztertzen ari garen pobrezia, prekaritate edo bazterketa egoerekin?

Hasiera batean, 35. taulan ikus daitekeenez, pobrezia, eskasia eta gizarte bazterketa egoeretan erortzeko arrisku gehien duten senitarteen alokairuan bizi direnak dira. Senitarte horietan, etxebizitza ordaindua dutenentan baino askoz gorago dira pobrezia eta bazterketa egoeren tasa. Etxebizitzarako alokairua ordaindu behar duten senitarteen pobrezia erlatiboko tasa, etxebizitza ordaindua dutenena baino 1,8 aldiz gorago da eta eskasia material larriko egoerak senitarte horien % 19tan ematen dira; hipotekarik edo alokairurik ordaintzen ez duten senitartean, aldiz, % 3,2tan baizik ez da gertatzen. Aldi berean, bereziki nabarmen da pobrezia erlatiboa askoz txikiagoa dela, hipoteka ordaintzen dutenen artean, etxebizitza ordaindua dutenen artean baino. Diru sarreretan bakarrik dute egoera horiekin.

35. taula: Senitarteen banaketa, pobrezia eta bazterketa egoeren arabera, etxebizitzarako ordainketa egin behar den ala ez kontuan hartuz. Gipuzkoa 2014 (zeharkako %)

		Hipoteka	Alokairua	Batere ez
Pobrezia erlatiboa*	Bada	7,8	29,7	16,2
	Ez da	92,2	70,3	83,8
Eskasia material larria*	Bada	2,4	18,7	3,2
	Ez da	97,6	81,3	96,8
Gizarte bazterketa*	Bada	8,8	31,6	11,4
	Ez da	91,2	68,4	88,6
Guztira		100,0	100,0	100,0

* Aldeak badira, estatistikoki adierazgarriak, CHI-cuadrado probaren arabera, $p < 0.05$ entzat

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014.

Halere, senitarte askorentzat, ostatatzea den oinarritzko beharra asetzeak, dituzten hileko diru sarrerak erruz murrizten dizkienez, pobrezia, soilik senitartearen diru sarreraren maila kontuan hartuz neurtzeak benetako pobrezia egoera zenbait ezkuta dezake, etxebizitzarako gastuak senitartearen diru sarreraren zati handia hartzen duenean. Horretarako bada adierazle bat, pobrezia erlatiboarena edo diru sarrera apalena bezalakoa; pobrezia atalasea, etxebizitza gastuak diru sarreretatik kendu ostean birkalkulatzen baititu²².

36. taula: Pobrezia erlatiboaren eta pobrezia larriaren tasak, etxebizitza gastuak kendu baino lehen eta kendu ostean. Gipuzkoa 2014

		Senitartek	
		Tasa (%)	Kopurua
Pobrezia erlatiboaren tasa	Guztira	15,6	44.470
	Etxebizitza gastuak kendu ostean	20,2	57.760
	Aldea	+4,6	+13.290
Pobrezia larriaren tasa	Guztira	4,4	12.424
	Etxebizitza gastuak kendu ostean	8,3	23.737
	Aldea	+3,9	+11.313


Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014.

Adierazle horren arabera (ikus 36. taula), 2014an, 13.300 senitarte inguru –26.400 pertsona– pasako liraketeke pobrezia erlatiboan izatera, etxebizitza gastuengatik. Bestela esanda, esan daiteke ere senitarteen pobrezia erlatiboaren tasa % 15,6tik % 20,2ra igoko litzatekeela, baldin eta halako gastuei aurre egiteak diru sarretan dakarren murrizketa kontuan hartuko balitz. Adierazle horrek bide emango liguke, hastapen batean, pobreziaren atalasearen gainean diren diru sarrerak dituen, baina benetan –etxebizitzarako gastuak ordaindu ostean– atalase berri horren azpian diren diru sarrerak dituen kolektiboa atzemateko eta argira ekartzeko. Datu horiek, orain dela bi urte lotu zirenekin erkatuz gero (ikus 16. grafikoa) ikus daiteke, bi urteotan, pobrezia erlatiboaren tasa nabarmen apaldu bada ere (%)

²² Jarraian azaltzen dugun adierazlea prestatzeko, honako gastu hauek hartu dira etxebizitza gastutzat: Hipoteka bat edo bestelako maileguren bat duten jabearen kasuan, interesen eta amortizazioaren ordainketa, eta, alokairuan diren etxebizitzaren kasuan, alokairuaren ordainketa. Horrez gain, argindar, gas edo bestelako erregaien baten kontsumoak dakartzan gastuak ere hartu dira kontuan.

17,6koa zen, 2012an eta % 15,6koa 2014an), etxebizitza gastuak kendu ostean agertzen den pobrezia tasa ez dela horrenbeste apaldu; horrek uzten digu pentsatzera ezkutuko pobrezia fenomeno hori mantentzen dela nolabait.

16. grafikoa: Senitarteen pobrezia erlatiboaren tasa, etxebizitza gastuak kendu aurretik eta kendu ostean. Gipuzkoa 2012-2014



Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2012-2014.

Etxebizitza mantentzeko zenbait gasturekin loturiko ordainketetan, diru arazoengatik atzeratzea –batez ere, horrek ekar ditzakeen ondorioak kontuan hartzen bada– senitarte baten diruzko prekarietatearen adierazle argia da. Baldin eta, Gipuzkoaren kasuan, senitarte guztiak hartzen baditugu kontuan, 2014an hipoteka edo alokairua ordaintzen atzeratu direnen ehunekoa apal samarra izan da. 5.200 senitarte lirateke guztira, hau da, Gipuzkoako senitarte ororen % 1,8. Aldi berean, 2014ko emaitzek erakusten digute senitarteen % 3 atzeratu zela energia horniketari loturiko ordainketetan (ura, gasa, argindarra, etab.) edota jabego kuotak ordaintzen. Guztira, Gipuzkoako senitarteen % 4,1k – 11.700 familia inguruk– dio ordainketa horietan guztietan atzerapenen bat izan dutela, hala hipotekan, nola alokairuan, energia hornikuntzan edota jabegoan.

2012arekin erkatuz gero, egoera horiek zertxobait murriztu dira, hala etxebizitza eskuratzeko ordainketetan (hau da, hipoteka edo alokairu ordainketak), zeinetan atzerapenak dituzten senitarteen ehunekoa % 4,3tik % 1,8ra jaisten baita, nola energia hornikuntzetarako edota jabego gastuen ordainketetan, zeinetan, egoera horretan diren senitarreak % 4,1 baitziren 2012an eta % 3 besterik ez 2014an.

37. taula: Hipoteka, alokairua, hornikuntzak edota jabego gastuak ordaintzen atzeratu diren senitarteen ehunekoen bilakaera. Gipuzkoa 2012-2014

	2012		2014	
	Tasa (%)	Kopurua	Tasa (%)	Kopurua
Hipoteka	1,0	2.608	0,8	2.291
Alokairua	3,3	8.838	1,0	2.911
Hornikuntzen edota jabegoaren ordainketak	4,1	10.899	3,0	8.572
Hiruretakoren bat	6,0	16.008	4,1	11.731
Pobrezia erlatiboko egoeran izan eta atzerapenen bat aitortzen duten senitarteen %	16,2	--	12,0	--

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014.

Halako ordainketetan atzeratzearen eta senitarteen diruzko egoeraren artean den harremana oso nabarmena da. Izan ere, 37. taulan ikus daitekeenez, pobrezia erlatiboko egoeran diren senitarteen %12k dio atzeratu dela, noiz edo noiz, hipoteka, alokairu edo energia hornikuntzen ordainketetan.

3.4.3. Aurrezte ahala eta kredituetara jotzea

Gipuzkoako senitarte guztien % 68,7k dio, 2014an, baduela zer edo zer aurrezturik. Hamar senitartetatik hiruk baino gehiagok dio, aldiz, ez duela halakorik, horretaz galdetzen zaionean. Azken bi urteotan, egoera hori ez da ia aldatu, baina zer edo zer gutxitu da aurrezkerik gabeko senitarteen ehunekoa, % 34,2tik, 2012an, % 31,3ra, 2014an.

Bildu ditugun erantzunei begira, Gipuzkoako senitarte ororen ia % 41ek du, beste diru sarrerarik gabe gertatuko balitz, egungo gastu maila hilabete batetik hamabi hilabete artean mantentzeko aukera emango liokeen aurrezki (ikus 38. taula). Aldi berean, % 14,6k, aurrezkiak baliatuz, urtebete eta bi urte bitarte irau lezake; senitarteen % 13k aurrezki handi samarrak lituzke, diru sarrerarik gabe bi urte baino luzeago mantentzeko adinakoak.

Pentsa zitekeen bezala, aurrezkiak eskura izatea estuki loturik da aztertu ditugun aldagai soziodemografiko guztiekin. Pobrezia erlatiboko, gizarte bazterketako eta, batez ere, eskasia material larriko egoera guztiekin ere oso lotua da, bestalde.

38. taula: Senitarteen ehunekoa, duten aurrezki mailari dagokionean, egungo gastua, beste diru sarrerarik izan ezean, zenbat hilabetez mantentzen lezaketen kontuan hartuz, erreferente den pertsonaren eta senitarteen zenbait ezaugarrien arabera. Gipuzkoa 2014

		0 hilabetez	1-6 hilabete artean	7-12 hilabete artean	13-24 hilabete artean	25 edo gehiago	Dturik gabe	Guztira
Sexua*	Gizona	28,4	21,4	21,6	15,5	12,8	0,3	100,0
	Emaztea	37,9	20,0	15,9	12,5	13,4	0,3	100,0
Adina*	<45	39,1	24,2	17,1	14,8	4,9	0,0	100,0
	45-64	30,6	20,8	20,0	14,4	13,9	0,4	100,0
	65 edo hortik gora	25,3	18,4	22,3	14,6	19,0	0,4	100,0
Nazionalitatea*	Espainiakoa	28,3	21,8	20,8	15,1	13,6	0,3	100,0
	Atzerrikoa	78,9	7,4	5,3	6,1	2,3	0,0	100,0
Familia mota*	Pertsona bakarrekoa	32,4	22,4	16,8	16,2	12,0	0,2	100,0
	Seme-alabarik gabeko bikotea	21,0	18,9	23,1	18,5	17,8	0,6	100,0
	Bikotea, seme-alabekin	31,6	22,4	22,1	13,3	10,5	0,1	100,0
	Guraso bakarrekoa	47,6	19,1	14,6	6,4	11,9	0,3	100,0
	Beste	42,4	13,4	11,2	15,8	17,2	0,0	100,0
Pobrezia erlatiboa*	Bada	65,0	14,1	8,8	5,8	6,0	0,3	100,0
	Ez da	25,1	22,2	22,0	16,2	14,2	0,3	100,0
Eskasia material larria*	Bada	94,5	2,4	0,5	2,6	0,0	0,0	100,0
	Ez da	27,8	22,0	21,0	15,3	13,7	0,3	100,0
Gizarte bazterketa*	Bada	58,3	13,9	10,3	6,5	10,5	0,4	100,0
	Ez da	27,1	22,1	21,4	15,9	13,4	0,3	100,0
Guztira		31,3	21,0	19,9	14,6	13,0	0,3	100,0

* Aldeak badira, estatistikoki adierazgarriak, CHI-cuadrado probaren arabera, $p < 0.05$ entzat


Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014.

Ezustekoei aurre egiteko aurrezkiak ez dutelako ahulago diren senitarteei so eginez gero, ikus daiteke diruzko erreserba gutxien duten senitarreak guraso bakarrekokoak (% 47,6k ez du aurrezkiarik) eta pertsona nagusizat atzerriko nazionalitateko norbait dutenak (% 78,9) direla. Aldi berean, tasa hori handiagoa da ere emazte bat buru duten senitarreetan (% 37,9, gizonezko bat dutenen %28,4aren aldean) eta gazte bat buru duten senitarreetan. Izan ere, pentsa litekeen bezala, adina zuzenki lotua da aurrezkiekin: 65 urteko edo hortik gorako pertsona bat buruan duten senitarteen % 25,3k aurrezkiak ez duela esaten dutelarik, 45 urtez peko bat buru dutenen % 39,1 dira egoera horretan.

Aurrezkiak izatea lotzen badugu senitarreak pobrezia erlatiboaren atalasetik gora edo hortik behera izatearekin, taularen datuetatik, bi ideia nagusi ateratu daitezke, bederen. Alde batetik, erruz nabarmentzen dira aurrezkiak gabeko senitarreak, pobrezia erlatiboan diren senitarteen artean. Emaitzek erakusten digute aurrezkiak ez dutela pobreziaaren atalasearen azpian diren senitarteen % 65k eta diru sarreraren arabera pobre ez diren % 25,1ek. Halere, azken datu hau ere aipagarria da, zeren, dituzten diru sarreraren arabera, senitarreak horiek pobrezia egoeratik at badira ere, gaur egun pobre ez direla diogun senitarreak horietan, ia lautasun bat inolako aurrezkiak gabe baita; hartara, haien diruzko egoera erruz ahuldu liteke, baldin eta diru sarrerak murriztuko balitzaizkie.

Argazki honen osagarri, eskasia material larriaren tasa EB-SILC metodologiak kalkulatzeko balio duten adierazleetako bat dugu. (% 24,7; 2012an % 23,9 zelarrik), gaur egun dituen baliabideekin, 800 euroko ustegabeko gastu bati aurre egin ezinik litzateke.

17. grafikoa: Beren baliabideez, 800 euroko ustegabeko gastu bati aurre egiteko ahala ez duten senitarteen ehunekoaren bilakaera. Gipuzkoa 2012-2014




Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2012-2014.

2012an gertatzen zen bezala, ez dirudi, bestalde, pobre diren senitarteen aurrezki eta diru sarreren eskasiak konpontzen ari direnik, etxea erosteko ez beste helburuetarako harturiko mailegu pertsonalen bidez. 2014an ikusten denari jarraiki, halako maileguak askoz ohikoagoak dira diru sartzeko baliokide goragoak dituzten senitarteen artean. Senitarte pobreen artean gehiago erabiltzen da txartelaren kreditua, hila bururatzeko. 39. taulan ikus daitekeenez, azken urtean, bi aldiz baino gehiagotan baliatu behar izan dute diruztatze bide hori, diruzko pobrezian diren senitarteen % 7,6k, eta senitarte ororen artean, tasa hori % 4,2koa besterik ez da.

Senitarte pobreen eta pobre ez direnen arteko aldeak are eta nabarmenagoak dira, diruzko prekarietateari loturiko beste egoerak kontuan hartuz gero, hala nola, kontu korrontean zenbaki gorriak izatea edo hila bururatzeko, aurrezkiatara nabarmen jo behar izatea. Gipuzkoako senitarte ororen kasuan, egoera horietan % 6,2 eta % 15,5 senitarte diren bitartean, pobrezia egoeran diren senitarteen artean, bi arazo horiek bi aldiz gehiago ematen dira ia (% 12,4 eta % 32,2).

Ez da 2012rekiko aldaketa nabarmenik ikusten, Gipuzkoako senitarteek diruztatze bide horiek gehiago baliatzearen zentzuan, baina badirudi nabarmen dela beherakada, kontuan zorpeko izateari dagokionean.

18. grafikoa: Kreditu pertsonalak dituzten eta azken urtean, diruzko arazoengatik, diruztatze bide bereziak baliatu behar izan dituzten senitarteen kopuruaren bilakaera. Gipuzkoa 2012-2014



Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2014.

39. taula: Kreditu pertsonalak dituzten eta azken urtean, diruzko arazoengatik, diruztatze bide bereziak baliatu behar izan dituzten senitarteen kopurua, erreferente den pertsonaren eta senitarteen beraren zenbait ezaugarrien arabera. Gipuzkoa 2014

		Kreditu pertsonalen bat du [1]	Kontu korrontea zorpeko [2]	Txartelaren kreditua bi aldiz baino gehiagotan erabiltzea [3]	Aurrezkiak nabarmen baliatzea [4]
Sexua	Gizona	14,9	6,6	4,4	14,0
	Emaztea	6,9	5,4	3,8	19,1
Adina	<45	20,0	11,0	7,9	15,8
	45-64	13,7	5,9	3,9	14,7
	65 edo hortik gora	4,8	2,4	1,3	16,2
Nazionalitatea	Espainiakoa	12,6	5,5	3,8	15,7
	Atzerrikoa	11,5	17,1	10,5	12,6
Senitartea	Pertsona bakarrekoa	8,1	3,2	2,4	17,4
	Seme-alabarik gabeko bikotea	12,1	5,7	3,9	11,6
	Bikotea seme-alabekin	17,5	7,7	4,6	16,1
	Guraso bakarrekoa	8,7	8,5	6,4	17,0
	Beste	1,3	8,4	8,4	19,7
Senitarteen diru sarrera baliokideak, kintilka	1. kintila	7,3	14,8	9,4	30,1
	2. kintila	11,8	7,0	3,1	21,2
	3. kintila	12,4	4,9	3,1	13,8
	4. kintila	13,2	1,4	1,6	8,1
	5. kintila	17,8	2,8	3,6	4,0
Pobrezia erlatiboa	Bada	8,1	12,4	7,6	32,2
	Ez da	13,3	5,1	3,6	12,5
Gizarte bazterketa	Bada	11,1	11,5	7,7	23,1
	Ez da	12,7	5,4	3,6	14,4
Guztira		12,5	6,2	4,2	15,5

[1] Etxebizitza nagusirako ez beste zerbituetarako kreditu pertsonalen bat duten senitarteak (autoa, bidaiak, lanak, etab.); [2] Azken 12 hilabeteotan, senitarteen gastu nagusiak ordaintzeko baliatzen duten kontu korrontea behin baino gehiagotan zorpeko izan duten senitarteak; [3] Azken 12 hilabeteotan, hila bururatzeko, txartelaren kreditua bi aldiz baino gehiagotan baliatu behar izan duten senitarteak; [4] Diru arazoengatik, azken urtean, aurrezketuriko dirua nabarmen baliatu behar izan duten senitarteak.

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014.

3.5. Diru eskasiak bizi baldintzetan eta pobrezia hautemateko moduan duen eragina

3.5.1. Diru eskasiak senitarteen bizi baldintzetan duen eragina

Zenbait familien diru arazoak areagotu diren testuinguru honetan, edo, hala izan gabe ere, ekonomiaren egoera zalantzarriak, familia horietako askoren etorkizunera-ko asmoak aldatzea ekarri duen testuinguru honetan, zein estrategia baliatu dituzte Gipuzkoako senitar- teek?

40. taulan ikus daitekeenez, gehien hedatu diren estra- tegien artean, gastu zenbait mugatu eta murriztea dugu. Gipuzkoako senitar-teen % 38,1ek dio, azken urtean, diruzko arazoengatik, aisialdiko gastuak murriztu behar izan dituztela. Aldi berean, % 23,2k dio etxeko energia gastuak murriztu behar izan dituztela (argindarra, ura, gasa, berotzea, etab.) eta %18,8k gauza bera egin duela oinarrizko erropa eta oinetako gastuekin ere. Azkenik, Gipuzkoako senitar-teen % 6,9k –ia 46.900 pertsonak- dio, azken urtean, oinarrizko elikadura gas- tuak murriztu behar izan dituela. Oinarrizko gauzen kentze hori, larri oso diren elikadurari loturiko beste egoerekin ere litzateke loturik. GPGBIren datuek era- kuste digute Gipuzkoako senitar-teen % 3,1ek ezin due- la elikadura egokia egin, diru arazoengatik, eta % 2k ezin duela haragi, oilasko edo arrain janaldi bat egin, bi egunez behin bederen.

Estrategia horrekin batera, badira beharrei aurre egiteko kanpoko laguntza bilatzen dutenak. 2014ko datuek erakusten digute, halakoak, Gipuzkoako hamar senitar- tetatik ia batek egiten dituztela. Emaizten arabera, Gipuzkoako senitar-teen % 9,6k dio senideei edo adis- kideei eskatu behar izan dietela laguntza, eta % 8,2k gizarte erakundeei –publiko nola pribatuei- eskatu behar izan dietela laguntza.

Senitar- teek erabili dituzten estrategia horiez gain, hu- rrengo taulak erakusten dituen datuek azaltzen dituzten egoera batzuk, oso gutxitan ematen direnak izanik ere, egoera oso larriak dira. Halatan, bada, senitar-teen % 1,9k dio horniduraren bat moztuko ziotenaren abisua jaso dutela, % 1,1ek dio botikaren bat erosteari edota artamendu medikuren bat segitzeari utzi behar izan diotela, eta % 0,5ek, etxebizitzatik kanporatuko zutenaren mehatxuren bat jaso dutela. Bestalde, aipatzekoa da ere, Gipuzkoako senitar-teen ez direla asko, hilabe- te hotzetan, etxebizitza hotzbero egokian mantentzen ez dezaketena (% 8,5), edo, senitar-teen diruzko egoera okertzearen ondorioz, ohiko gizarte harremanak galdu dituztenak (% 9,6).

40. taula: Diru eskasiarengatik arazoak izan dituzten senitar-teen kopurua, pobrezia-erakundearen duteko egoeraren arabera. Gipuzkoa 2014

	Arazoak izan dituzten senitar-teen %				Ukituak diren kopurua
	Pobrezia larria	Pobrezia erlatiboa baina ez larria	Ez da pobrezian	Guztira	
Aisialdi gastuak murriztu behar izan dituzte	88,6	66,9	31,7	38,1	280.166
Ezin dute, etxetik kanpo, oporretan joan, urtean astebete, bederen	82,1	65,3	23,4	30,6	213.004
Etxeko energia gastuak murriztu behar izan dituzte	72,5	50,0	17,1	23,2	171.410
Oinarrizko jantzi eta oinetako gastuak murriztu behar izan dituzte	62,2	39,6	13,8	18,8	135.651
Adiskideei, auzoei edota senideei diruzko laguntza eskatu behar izan diete	42,5	26,3	5,7	9,6	69.135
Ohiko gizarte harremanak galdu dituzte	35,9	20,5	6,8	9,6	68.310
Ezin dute, hilabete hotzetan, etxebizitzan hotzbero egokia mantendu	63,0	20,8	4,1	8,5	59.894
Diruzko laguntza eskatu behar izan diete, gizarte erakunde publiko edo pribatuei	35,1	32,9	3,6	8,2	52.998
Oinarrizko elikadura gastuak murriztu behar izan dituzte	37,0	21,9	3,4	6,9	46.874
Ezin dute elikadura egokia izan	24,0	8,7	1,2	3,1	20.855
Argindarra, ura, gasa edo telefonoa moztuko zieten abisuak jaso dituzte	17,8	4,2	0,8	1,9	17.866
Ezin dute haragia, oilasko edo arraina bi egunez behin bederen jan	18,3	5,7	0,6	2,0	14.182
Botikaren bat erosteari edo artamendu medikuren bat segitzeari utzi behar izan diete	6,4	2,1	0,7	1,1	7.524
Etxebizitzatik kanporatuak izateko mehatxuren bat jaso dute	2,3	1,1	0,3	0,5	3.386
<i>Seniar-teen ororen arteko %</i>	<i>4,4</i>	<i>11,2</i>	<i>84,4</i>	<i>100,0</i>	--

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014.


Kasu guztietan, egoera horietako bakoitza gehiago ematen da, senitartearen diruzko egoera okerrago den neurrian. 40. taulak erakusten duen moduan, pobrezia larrian diren senitartearen % 60 baino gehiagok – Gipuzkoako senitarte ororen % 4,4 direlarik– murriztu behar izan dituzte aisialdiko gastuak (% 88,6), argindar, ur edo berotzekoak (% 72,5) eta jantziak eta oinetakoak erostekoak (% 62,2), eta hamarretatik ia lauk (% 37) gauza bera egin dute oinarritzko elikadura gastuekin. Era berean, kanpoko laguntzarako estrategiei dagokienean, % 42,5ek eskatu behar izan diete laguntza adiskide edo senideei eta % 35,1ek gizarte erakundeetara.

Baldin eta erkatze ikuspegi batetik, datu horiek, 2013ko FOESSA Inkestan lortu zirenekin erkatzen baditugu, ikus daiteke aipatu ditugun egoerak askoz gutxiago ematen direla gure lurraldean. Adibidez, Estatu osoarako, VII. FOESSA txostenak ematen dituen datuek erakusten digute senitartearen % 61,4k murriztu duela jantzi eta oinetakoetako gastua (Gipuzkoan, % 18,8k) eta % 59,4k eta % 51,1ek murriztu duela aisialdiko gastua eta argindar, ur edo berotze gastua (Gipuzkoan, % 38,1ek eta % 23,2k). Oinarritzko elikadura gastuetan, berriz, Gipuzkoan, senitarte ororen % 6,9 dira ukituak, eta Estatu osoan, aldiz, % 42,3; datu hori oso kezagarria da, senitarte horien ongizate eta osasunari dagokienean.

Erkaketarekin jarraituz, Gipuzkoaren egoera, alor horietan, Europako herrialde gehienena baino hobea da: haragia edo arraina bi egunez behin ezin jateari dagokionean, adibidez, Eurozonan, % 8,4 biztanle dira halako egoeran, eta Gipuzkoan, berriz, % 2. Etxebizitza hotzbero egokian mantendu ezina bizi du Eurozonako biztanleen % 10ak eta gipuzkoarren % 8,5ek.

Zein bilakaera izan du, azken bi urteotan, egoera horietako bakoitzak? 19. grafikoak azaltzen duenez, ezin da esan arazo horien tasa nabarmen aldatu denik. Izan ere, egoera guztietan hobetze txiki bat eman da. Orain dela bi urte baino handixeagoa da, ordea, beren inguruko elkar laguntze sarearen barnean laguntza eskatu behar izan dutenen kopurua (% 7tik, % 9,6ra), bai eta aisialdi gastuak murriztu behar izan dituztenak ere (% 36,4, 2012an eta % 38,1, 2014an) edo etxebizitzan, hilabete hotzetan, hotzbero egokia mantendu ezin dutenen kopurua ere, Gipuzkoako senitarte ororen % 7,4 izatetik % 8,5 izatera pasatu baitira.

19. grafikoa: Diru eskasiarengatik arazoak izan dituzten senitartearen ehunekoaren bilakaera. Gipuzkoa 2012-2014



Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2012-2014.

3.5.2. Pobrezia hautemateko norik bakoitzak duen modua

Hurrengo taulak adierazten digu, 2012 eta 2014 urteetako senitardeen banaketa, norik bakoitzak bere senitardeen egoera, ikuspuntu sozioekonomikotik, ikusten duen moduen arabera. 2014rako lortu diren maiztasunetatik abiatuz ikus daitekeen bezala, hamar senitarretatik, zortzi baino gehiago kokatzen dira erdiko bi taldeetan: egoera erosoan, batezbestekoaren gainean, direla uste dutenak (senitardeen % 45,9, 2014an) batzuk, eta moldatzen ari direla, baina batezbestekoaren azpitik dabilzala uste dutenak (% 36,9) besteak. Muturretan, kopuru beretsuetan, oso pobre, pobre edo pobre samar direla uste dutenak (% 8,4), eta diruz ongi dabilzala edo aberats edo oso aberats direla uste dutenak (% 8,8).

41. taula: Senitardeen pobrezia pertzepzio subjektiboaren arabera banaketaren bilakaera. Gipuzkoa 2012-2014

	2012	2014	2014-12 aldea
[1] Oso pobre	1,2	0,7	-0,6
[2] Pobre	2,2	2,6	+0,3
[3] Pobre samar	4,3	5,2	+0,9
[4] Moldatzen, batezbestekoaren azpitik	46,1	36,9	-9,1
[5] Batezbestekoaren gainean, eroso	41,3	45,9	+4,6
[6] Estutasunik gabe, dirudun	4,9	8,6	+3,7
[7] Aberats	0,0	0,08	+0,08
[8] Oso aberats	0,0	0,04	+0,04
Guztira	100,0	100,0	--

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2012-2014.

Erkaketa eginez, emaitzek erakusten dute senitardeen egoera hobetarako bide zerbait ibili dutela. Halatan, bi urteotan, 9,1 puntutan gutxitu da moldatzen baina batezbestekoaren azpian direla uste duten senitardeen

ehunekoa –senitarde ororen % 46,1 izatetik % 36,9 izatera pasa dira–, eta, aldi berean, batezbestekoaren gainetik kokatzen diren senitardeen ehunekoa emendatu da (% 41,3 izatetik % 45,9 izatera), bai eta dirudun edo aberats direla diotenak (% 4,9 ziren 2012an eta % 8,8, berriz, 2014an). Guztiarekin ere –oro har egonkor samar den egoera batean–, ikusten da ere zer edo zer emendatu dela pobre –gradu desberdinetan– direla dioten senitardeen kopurua, 2012an % 7,8 baitziren eta 2014an, berriz, % 8,4.

Zer nolako harremana du pobrezia pertzepzio subjektiboak, txosten honetan, diruzko pobrezia eta gizarte bazterketa egoerak neurtzeko, erabili ditugun adierazleekin? 42. taulan ikus daiteke diru sarreren arabera pobretzat hartu ditugun senitarde guztiek ez dutela beren egoera hala ikusten. Pobrezia erlatiboko egoeran diren senitarde gehienek, bai eta pobrezia larrian direnek ere, moldatzen direla uste dute eta, halatan, batezbestekoaren azpian direla. Senitarde horiek pobrezia erlatiboko egoeran diren % 59 dira eta pobrezia larrian diren % 53,6. AROPE adierazleak azaltzen dituen senitardeen banaketa, pobrezia erlatiboaren oso antzekoa litzateke.

Eskasia materialari loturiko egoerak, hau da, diru arazoengatik, oinarrizkotzat hartzen diren ondasunekin loturik diren 9 gauzetako zerrenda batetik 4 behintzat eskura ez ditzaketela dioten senitardeen egoerak, ordea, oso gertu dira pobrezia pertzepzio subjektibotik. Halatan, bada, eskasia material larrian diren hamar senitarretatik seik uste dute oso pobre, pobre edo pobre samar direla.

Azkenik, bazterketaren adierazleei dagokienean, eta bereziki, FOESSaren metodologiatik sorturikoari dagokionean, ikusten da, aurreko adierazleetan ez bezala, oraingoan, egoera gehiago sartzen direla, subjektiboki, ongizate sozioekonomikozkotzat har daitezkeenak. Adibidez, bazterketa egoeran (hala konpentsatuan nola larrian) diren hamar senitarretatik ia hiru, batezbestekoaren gainean kokatzen dira.

42. taula: Pobrezia, eskasia eta gizarte bazterketa jasaten duten senitardeen banaketa, pobrezia pertzepzio subjektiboaren arabera. Gipuzkoa 2014

	Pobre [1] + [2] + [3]	Batezbestekoaren azpian [4]	Batezbestekoaren gainean [5]	Aberats [6] + [7] + [8]	Guztira
Pobrezia erlatiboa	32,4	59,0	7,9	0,7	100,0
Pobrezia larria	44,2	53,6	2,2	--	100,0
Eskasia material larria	60,6	39,4	--	--	100,0
AROPE	32,0	56,2	11,0	0,8	100,0
Bazterketa	28,1	42,1	28,0	1,8	100,0
- Bazterketa konpentsatua	19,7	40,0	39,8	0,5	100,0
- Bazterketa larria	40,8	45,4	10,2	3,6	100,0
<i>Senitardeak guztira</i>	<i>8,4</i>	<i>36,9</i>	<i>45,9</i>	<i>8,8</i>	<i>100,0</i>

[1] Oso pobre. [2] Pobre. [3] Pobre samar. [4] Moldatzen, batezbestekoaren azpian. [5] Batezbestekoaren gainean, eroso. [6] Dirudun, estutasunik gabe. [7] Aberats. [8] Oso aberats

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014.

3.6. Etxebizitza eskuratzea, hornikuntza maila eta bizigarritasun baldintzak

3.6.1. Etxebizitza eskuratzea

Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketa Inkestak erakusten digu, 2014an, Gipuzkoako senitarteen % 83 bizi den etxebizitzaren jabe dela, osorik ordaindurik (% 53,2), nola oraindik ordainbidean dutelarik (senitarte ororen % 29,9), eta % 14 inguru, alokairuan dela, hala partikularren artekoa izan nola gizarte laguntzako alokairua. Aldi berean, % 3 inguruk doan edo doan antzean, enpresak, senideek edo beste norbaitek utzirik dute etxebizitza.

43. taula: Senitarreek etxebizitza eskuratu duten moduaren arabera banaketaren bilakaera. Gipuzkoa 2012-2014

	2012	2014
Jabe dira, dena ordaindurik	49,6	49,2
Jabe dira, ordainbidean	31,5	29,9
Jabe dira, oinordetzaz edo emaitzaz eskuraturik	3,9	4,0
Doan dute, enpresak utzirik	0,5	0,6
Doan dute, senideek utzirik	1,4	1,9
Doan dute, beste norbaitek utzirik	0,1	0,2
Partikularren arteko alokairuan	11,5	12,0
Gizarte laguntzako alokairuan/BOE/Bizigune	1,6	1,9
Beste egoerak	0,0	0,4
Guztira	100,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2012-2014.

Pentsa litekeen moduan, emaitza hauek ia ez dira, bi urteotan, aldatu eta erakusten digute, gure lurraldean jabetzak duen garrantzia, etxebizitza eskuratzeko bide nagusia baita.

Etxebizitza eskuratzeko modua estuki lotua da atal honetan lantzen ari garen aldagaiekin. Adibidez, ikus daiteke (ikus 44. taula) alokairua askoz gehiago erabiltzen dutela atzerriko norbait buru duten senitarreek (talde horrek, ia sei aldiz gehiagotan du etxebizitza alokairuan, Gipuzkoako senitarreak oro har hartuz gertatzen dena baino) bai eta emazte bat buru duten senitarreek ere (% 19,5 emazteen kasuan eta % 11,8, senitarreburu gizona dutenen artean).

Aldi berean, harreman nabarmena da ere senitardeen erreferentzia den pertsonaren adinaren eta etxea eskuratzeko moduaren artean. Senitardeen buru 65 urteko edo hortik gorako norbait duten senitardeen gehien-gehienak (% 93,9) bizi diren etxebizitzaren jabe dira. Kopuru hori % 85,8ra jaisten da 45-64 urte arteko norbait buru duten senitardeen kasuan, eta, azkenik, % 67koa da erreferente den pertsona 45 urtez pekoa bada.

Esan daiteke ere, etxea alokairuan izatea diruzko pobrezia eta gizarte bazterketa egoerekin oso lotua dela. Alokairuan bizi dira, adibidez, pobrezia erlatiboan diren senitardeen % 27,3, eta egoera hori jasaten ez dutenen artean, aldiz, % 11,7 besterik ez dira alokairuan. Beste ikuspuntu batetik, esan daiteke, bizi diren etxebizitzaren jabe direnen artean, pobrezia tasa % 12,9koa dela – senitarte oro harturik den % 15,6 baino apalagoa –, eta egoera hori, berriz, etxebizitza alokairuan duten senitardeen % 30,2etan besterik ez dela ematen.

Ia berdin gertatzen da gizarte bazterketaren adierazleekin: adierazle honetan, gizarte bazterketa egoeran diren senitardeen artean, alokairua, bazterketa egoeran ez diren artean baino ia hiru aldiz gehiago erabiltzen da.

44. taula: Senitardeen banaketa, etxebizitza eskuratzeko duten moduari dagokionean, erreferentziako pertsonaren eta senitardeen zenbait ezagurraren arabera. Gipuzkoa 2014

		Jabetzan			Alokairuan	Utzirik edo beste	Guztira
		Ordaindurik	Ordainbidean	Guztira	Guztira	Guztira	
Sexua*	Gizona	52,2	33,7	85,9	11,8	2,2	100,0
	Emaztea	55,3	20,9	76,2	19,5	4,3	100,0
Adina*	<45	10,4	56,6	67,0	28,8	4,2	100,0
	45-64	54,1	31,7	85,8	11,1	3,0	100,0
	65 edo hortik gora	88,9	4,9	93,9	4,7	1,5	100,0
Nazionalitatea*	Espainiakoa	56,1	31,2	87,2	10,2	2,6	100,0
	Atzerrikoa	6,1	9,5	15,6	77,7	6,7	100,0
Pobrezia erlatiboa*	Bada	53,6	14,9	68,5	27,3	4,2	100,0
	Ez da	53,1	32,7	85,7	11,7	2,6	100,0
Gizarte bazterketa*	Bada	40,9	19,5	60,3	33,1	6,6	100,0
	Ez da	55,1	31,5	86,6	11,2	2,3	100,0
Guztira		53,1	29,9	83,0	14,1	2,8	100,0

* Aldeak badira, estatistikoki adierazgarriak, CHI-cuadrado probaren arabera, $p < 0.05$ sentzat
Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014.

3.6.2. Etxebizitzaren eta ingurunearen baldintzak

Bestalde, etxebizitzaren egoerari loturiko arazoei dagokienean (ikus 45. taula), GPGBIren emaitzek erakusten digute Gipuzkoako senitarte ororen artean, % 13 inguruk dituztela itote, hezegune edo ustelgune arazoak etxebizitzako zenbait tokitan, bai eta auzoek edo kanpoko beste iturriek (ondoko fabrikak, negozioak, trafikoa, etab.) eginiko zarata arazoak. % 5 inguruk dio eguneko argia falta dutela edo arkitektura oztupoak dituztela etxean. Azkenik, % 2,7k dio eraikinak eskasia larriak dituela.

Etxea kokatua den auzo edo aldearen ezaugarriei dagokienean, ikusten da senitarte ororen % 12 eta % 15 inguru kexu direla kaleak zikin direlako (% 15), kutsadurarengatik (% 13,4), berdegune gutxi delako (% 12,9) eta delinkuentzia eta bandalismoarengatik (% 11,7). Aldi berean, % 5,7 etxebizitza kokatua den aldeak dituen komunikabide eskasetz kexu da

45. taula: Etxebizitzarekin eta kokatua den auzo edo ingurunearekin loturiko arazoaren bilakaera. Gipuzkoa 2012-2014

	2012	2014
Etxebizitzaren ezaugarriak		
Eraikitze eskasia larriak edo hondamen egoera	3,0	2,7
Itoteak, hezeguneak edo ustelguneak	9,2	12,9
Eguneko argi eskasa	5,6	5,1
Auzoek eginiko edo kanpotik datozen zaratak	16,2	12,9
Arkitektura oztupoak eta mugikortasun arazoak dituzten pertsonak izatea etxean	9,2	5,6
Auzoaren edo ingurunearen ezaugarriak		
Kutsadura, zikinkeria edo ingurumen arazoak	12,4	13,4
Delinkuentzia edo bandalismoa	9,2	11,7
Kaleko garbitasun eskasa	11,0	15,0
Komunikabide eskasak	6,1	5,7
Berdegune gutxi	12,8	12,9

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2012-2014.

2012 eta 2014 artean, oso-oso aldaketa gutxi gertatu da inguruneari loturiko arazoei dagokienean.

Oro har, arazo horietakoren bat izatea –hala etxearenak nola inguruarenak– hedatu samar da Gipuzkoako senitartearen artean. 46. taulan ikus daitekeenez, senitarte guztien ia % 46k aipatzen du GPGBIren galdetegiak dakartzan hamar arazoetako baten bat behintzat. Guztiarekin ere, hiru edo gehiago arazo aipatzen dituzten senitarteak askoz gutxiago dira (% 14,2).


46. taula: Etxebizitzarekin eta kokatua den auzo edo ingurunearekin loturiko arazoaren kopuruaren arabera banaturiko senitartearen bilakaera. Gipuzkoa 2014

	2012	2014
Etxebizitzaren ezaugarriak		
Arazorik ez	70,8	72,6
Arazoren bat	29,2	27,4
Bi edo gehiago arazo	9,5	9,1
Auzoaren edo ingurunearen ezaugarriak		
Arazorik ez	70,7	64,6
Arazoren bat	29,3	35,4
Bi edo gehiago arazo	14,3	15,1
Guztira		
Arazorik ez	56,7	54,1
Arazoren bat	43,3	45,9
Bi edo gehiago arazo	14,5	14,2

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2012-2014.

Azkenik, aipaturiko arazoaren eta pobrezia eta gizarte bazterketa egoeren arteko harremanari dagokienean, ditugun datuek erakusten digute (ikus 20, grafikoa) pobrezia erlatiboko edo eskasia material larriko egoera jasaten duten senitarteek, Gipuzkoako senitarte guztien kasuan aipatzen diren baino arazo gehiago aipatzen dituztela. Guztiarekin ere, estatistikoki adierazgarriak izanik ere, aldeak txiki samarrak dira.

20. grafikoa: Etxebizitzarekin eta auzoarekin edo kokatze ingurunearekin loturik aipatuak diren arazoaren kopurua, senitarte mota desberdinetan banaturik. Gipuzkoa 2014



Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014.

Azkenik, gizarte bazterketa egoeran diren senitarteek dagokienean, arazo gehiago agertzen da, neurri handi batean, adierazle hori eraikitzeko, egoera horietako batzuk hartu direlako.

3.6.3. Etxearen hornikuntza maila


47. taulak dakartzan datuek erakusten dutenez, Gipuzkoako senitarte gehien-gehienek, etxebizitza batetan oinarrizko diren instalazio eta hornidurak dituzte etxean.

Egoera aldatzen da, ordea, bestelako ondasun eta instalazio osagarrien kasuan. Hartara, ikus daiteke senitarteen % 15,6k ezin duela ordenagailua ukan eta % 16,2k, interneteko konexioa ukan. Emaitzek erakusten digute ere, hamar senitartetik ia bik (% 18,3) ez dutela autoa, diru faltaz, eta horregatik ere, ez dutela gas naturalako instalazioa edo berogailu galdara etxean, senitarteen ia % 12k..

Oro har, 47. taulan agertzen diren 15 itemetatik, non hainbat instalazio eta ondasun sartzen baitira, denak dituzten gipuzkoarren kopurua gora samarra da (% 70,6). Gainerako senitarteak dira, alde batetik, bat, bi edo hiru elementu ez dituztenak (% 22,8) eta, beste aldetik, 4 baino gehiago ez dituztenak (% 6,6). 2012an, azken kopuru hori % 6,2koa izan zen, hau da, 2014koaren oso-oso antzekoa, baino zer edo zertxo txikiagoa, halere.

Pentsa litekeen bezala, halako hornidurak ez izatea gehiago gertatzen da senitarte pobreen artean. Adibidez, pobrezia larriko egoeran diren senitarteen artean, % 28,3k bestetik ez ditu aipaturiko instalazio eta hornidura guztiak, oinarrizkoak edo bestelakoak; Gipuzkoako senitarteak oro har harturik, berriz, % 70,6 dira. Aldi berean, ikus daiteke ere, senitarte horietan, % 31,4 direla lau elementu baino gehiago falta dituztenak.

21. grafikoa: Senitartearen diru eskasiagatik, etxeak ez dituen oinarrizko eta bestelako horniduren kopuruak senitarte mota desberdinetan banatzea. Gipuzkoa 2014



Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestak 2014.

Lau elementu edo gehiago falta dituzten senitarteen ezaugarri soziodemografikoei dagokienean, esan behar da gehienak pertsona bakarrekokoak edo 65 urteko edo hortik gorako pertsona bat buru dutenak direla. Haien artean, gainera, presentzia nabarmena dute atzerriko nazionalitateko norbait edo emakume bat buru duten senitarteek, bai eta lanerako gai diren guztiak lan gabe dituzten senitarteek ere.

47. taula: Etxean zenbait hornidura izateari loturik eginiko senitarteen banaketaren bilakaera. Gipuzkoa 2012-2014 (% zeharka)


	2012			2014		
	Badu	Ez du, baina ukan lezake	Ez du eta ezinen luke	Badu	Ez du, baina ukan lezake	Ez du eta ezinen luke
+Oinarrizko hornidurak						
Ur korrontea	100,0	0,0	0,0	100,0	0,0	0,0
Ur beroa	99,9	0,0	0,1	100,0	0,0	0,0
Argindarra	99,9	0,0	0,1	100,0	0,0	0,0
Ur zikinen hustubidea	100,0	0,0	0,0	100,0	0,0	0,0
Bainugela osoa	100,0	0,0	0,0	100,0	0,0	0,0
Sukaldea	100,0	0,0	0,0	100,0	0,0	0,0
Hozkailua	99,9	0,0	0,1	99,8	0,2	0,0
Ikuzgailua	99,9	0,0	0,1	99,9	0,0	0,1
+Bestelako hornidurak						
Telefonoa (finko edo sakelakoa)	99,5	0,0	0,5	99,8	0,1	0,1
Kolorezko telebista	98,8	0,3	0,9	98,6	1,0	0,4
Ordenagailua	71,9	14,2	13,9	72,3	12,1	15,6
Internet konexioa	68,5	15,5	16,1	71,5	12,3	16,2
Autoa	73,6	8,8	17,6	73,8	7,9	18,3
Gas naturala	70,3	14,3	15,4	70,0	17,8	12,2
Berogailu galdara	82,0	7,7	10,3	75,1	12,8	12,2

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestak, 2012-2014.

3.6.4. Metatzea

Metatzea diogunean, ari gara kontuan hartzen, pertsona bakoitzeko, etxean, baliagarri diren 15m² baino gutxiago diren kasuak; Gipuzkoan, senitarteen % 3 dira egoera horretan, hau da, ia 34.900 pertsona, gipuzkoarren % 4,9. 2012ko emaitzekin alderatuz gero, aldaketa oso txikia izan da eta ezin da, hortik, joera argirik atera (ikus 22. grafikoa).

22. grafikoa: Etxebizitzetako metaketaren (<15m²/pertsona) gertatze mailaren bilakaera. Gipuzkoa 2012-2014



Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2012-2014.

Oro har, metatze egoerak gehiago ematen dira erreferentziako pertsona gizona duten senitarreetan eta, bereziki, gazte bat buru duten senitarreetan. Izan ere, metatze arazoak dituzten senitarteen ia erdiak (% 46,2), 44 urteko edo gutxiagoko erreferente du. Oso bestela, erreferente den pertsona 65 urteko edo hortik gorako norbait duten senitarreek ia ez dute halako arazoa bizi

Aldi berean, ikusten da ere –nahiz eta bildu ditugun kasuen kopuru txikiak ez duen fidagarritasun handirik eskaintzen– metatze kasuak askoz gehiagotan gertatzen direla atzerriko nazionalitateko pertsona bat buru duten senitarreetan.

Etxebizitza eskuratzeko moduari dagokionean, berriz, metatze arazoa nabarmen gehiago ematen da alokairuan diren senitarreetan (% 5,6), etxejabe direnen artean baino (% 2,6). Halere, metatze arazoa duten senitarteen ia % 74 jabetzan diren etxebizitzetan dira kokatuak.

48. taula: Etxeetan ematen den metaketa, erreferente den pertsonaren eta senitarreetan zenbait ezaugarrien arabera. Gipuzkoa 2014 (% zeharka)

		Gertatzen da (%)	Banaketa zuta (%)
Sexua*	Gizona	3,8	89,5
	Emaztea	1,1	10,5
Adina*	<45	4,7	46,2
	45-64	3,5	43,2
	65 edo hortik gora	0,9	10,6
Nazionalitatea	Espainiakoa	2,8	88,2
	Atzerrikoa**	6,0	11,8
Eskuratzeko modua*	Jabetza	2,7	73,9
	Alokairua	5,6	26,1
	Utzia edo beste	0,0	0,0
Pobrezia erlatiboa*	Bada	8,7	45,3
	Ez da	2,0	54,7
Gizarte bazterketa*	Bada	8,6	38,9
	Ez da	2,1	61,1
Guztira		3,0	100,0

* Aldeak badira, estatistikoki adierazgarriak, CHI-cuadrado probaren arabera, p<0.05entzat.

**Emitza hauek kontu handiz irakurri behar dira, kasu gutxi baitira bildu.

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014.

Azterturiko pobrezia eta gizarte bazterketa egoerei dagokienean, emaitzek erakusten dute diruzko pobrezia edo gizarte bazterketa egoerak bizi dituzten senitarreek lau aldiz aukera gehiago dutela etxebizitzan arazo hori izateko.

3.7. Gizarte harremanak eta herri bizitzan eta politikan parte hartzea

3.7.1. Gizarte harremanak

Gipuzkoako senitarre gehienek diote harreman onak dituztela inguruko pertsonekin, hala etxeokokin nola beste senideekin eta auzoekin.

Pertsona hurbilenei, etxekoei, dagokienean, senitarteen % 1,2k besterik ez du etxean nolabaiteko harreman edo giro txarra adierazten, esanez harremanik ez dela edo txar samarrak, txarrak edo oso txarrak direla. Gainerako senitarreak, on samarrak edo oso onak direla dioten % 76,6aren eta, bakarrik bizi direlarik, harremanik ez dutela dioten beste % 22,2aren artean banatzen dira. Oso txikia da ere, beste senideekin (% 1,5) edo auzoekin (% 3,4) harremanik ez duten edo harreman txarrak dituzten senitarteen kopurua; gehienek, haiekin dituzten harremanak onak edo oso onak direla diote.

49. taula: Senitartek ingurukoekin dituzten harremanen araberako banaketaren bilakaera. Gipuzkoa 2012-2014

	Etxekoekin		Beste senideekin		Auzoekin	
	2012	2014	2012	2014	2012	2014
[1] Oso txarrak edo txarrak	0,1	0,9	0,2	0,1	0,3	0,4
[2] Txar samarrak	0,6	0,2	1,0	0,8	0,6	1,3
[3] On samarrak	4,2	9,7	8,7	15,7	14,7	22,1
[4] Onak edo oso onak	75,3	66,8	90,0	82,3	80,9	73,6
[5] Harremanik gabe	0,0	0,1	0,1	0,6	3,2	1,7
[6] Ez dagokio*	19,9	22,2	0,1	0,5	0,2	0,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
+ txar samarrak, txarrak, oso txarrak edo harremanik gabe	0,7	1,2	1,3	1,5	4,1	3,4
+ On samarrak, onak edo oso onak	79,5	76,5	98,6	98,0	95,6	95,8

*Bakarrik bizi diren, seniderik ez duten edo auzokorik ez duten pertsonak.

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2012-2014.

50. taula: Senitarteen banaketa, ingurukoekin dituzten harremanei dagokienean, erreferente den pertsonaren eta senitarteen zenbait ezaugarrien arabera. Gipuzkoa 2014 (% zeharka)

		Etxekoekin			Beste senideekin			Auzoekin		
		Txarrak, erdipur-dikoak, harremanik gabe	Onak edo oso onak	Ez dagokio	Txarrak, erdipur-dikoak, harremanik gabe	Onak edo oso onak	Ez dagokio	Txarrak, erdipur-dikoak, harremanik gabe	Onak edo oso onak	Ez dagokio
Sexua	Gizona	11,8	75,5	12,6	17,3	82,2	0,5	25,6	74,0	0,4
	Emaztea	8,9	46,4	44,7	17,1	82,4	0,5	25,4	72,8	1,8
Adina	<45	12,1	66,8	21,1	18,4	80,5	1,1	33,0	66,6	0,4
	45-64	11,1	73,2	15,7	17,9	82,0	0,2	24,1	75,1	0,8
	65 edo hortik gora	9,8	59,9	30,3	15,5	84,1	0,4	20,7	78,1	1,2
Nazionalitatea	Espainiakoa	9,9	67,1	23,0	16,6	82,9	0,5	24,6	74,5	0,9
	Atzerrikoa	27,3	62,2	10,5	27,1	71,9	1,1	40,6	59,4	0,0
Jaiolekua	EAE	8,7	68,5	22,7	15,1	84,4	0,5	24,1	75,0	0,9
	Estatuan	14,5	62,0	23,5	22,4	77,2	0,4	26,7	73,1	0,2
	Estatutik at	24,4	62,6	13,0	25,0	74,1	0,9	37,8	60,5	1,8
Pobrezia erlatiboa	Bada	13,3	58,9	27,9	25,7	72,9	1,4	33,6	65,4	1,0
	Ez da	10,5	68,3	21,2	15,7	84,0	0,3	24,1	75,1	0,8
Gizarte bazterketa	Bada	22,5	48,9	28,6	27,4	70,5	2,2	38,5	60,3	1,2
	Ez da	9,1	69,6	21,2	15,6	84,1	0,2	23,5	75,7	0,8
Guztira		11,8	75,5	12,6	17,3	82,2	0,5	25,6	74,0	0,4

Oharra: Harreman txar edo erdipur-dikoetan, edo harremanik gabekoetan sartu dira honako erantzun hauek: "oso txarrak edo txarrak", "txar samarrak", "on samarrak" eta "harremanik gabe".

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2014.

Pertsona horiekin dituzten harremanak "onak edo oso onak" direla esatera heltzen ez diren senitarteen erantzunak bilduz gero, emaitzek erakusten digute (ikus 49. taula), oro har -pertsona bakarrek etxeak alde batera utziz-, pertsona nagusitzat emazte bat duten senitartek edo 65 urteko edo hortik gorako pertsona buru dutenek dituztela, besteek baino gehiago, etxebarneko harreman onak edo oso onak. Adineko pertsonen kasuan, gainera, joera hori mantentzen da, hala beste senideekiko harremanei dagokienean nola auzoko harremanei dagokienean ere.


Guztiarekin ere, alde nabarmenenak gertatzen dira senitarteen erreferentzia den pertsonaren jatorriari begiratzen zaionean. Atzerriko nazionalitateko norbait buru duten senitartean gerta daiteke, besteetan baino gehiago, harreman "txarragoak" izatea, hala etxeko artean nola beste senideekin eta, batez ere, auzoekin. Hartara, honako datu hau seinlatu behar da: EAEn

jaiotako norbait buru duten senitarteen % 75ek diote harreman onak edo oso onak dituztela auzoekin, baina ehuneko hori % 60,5ra apaltzen da Estatutik kanpo jaiotako norbait buru duten senitarteen kasuan.

Pobrezia erlatiboko egoeran diren senitarteen kasuan ere, beste senideekiko eta auzoekiko harremanak "txarragoak" dira, baina ez etxeko arteko harremanak.

Zehazki, sostengu edo laguntza sareak izateari dagokionean, 2014n, Gipuzkoako senitarte ia guztiek (% 92,3) diote badutela, arazoak izanez gero, lagun diezaiekeen pertsonaren bat²³. Senitarteen % 7,7 inguruk, aldiz, (% 8, 2012an) halakorik ez dutela diote.

23. grafikoa: Lagun diezaiekeen inor ez duten senitarteen kopuruaren bilakaera Gipuzkoa 2012-2014



Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2012-2014.

51. taulan ikus daitekeen moduan, ez da estatistikoki adierazgarri den alderik, sostengu sarea ez izatearen eta senitartearen erreferente den pertsonaren sexuaren edo adinaren artean. Guztiarekin, ikusten da egoera hori zer edo zer gehiago ematen dela emazte bat buru duten senitarteetan (haien guztien % 9,3) edo 65 urteko edo hortik gorako pertsona bat buru dutenen kasuan (%8,4).

Alde nabarmenenak gertatzen dira senitartearen erreferente den pertsonaren jatorriari begiratzuz gero. Emaitzek erakusten digute erreferentetzat atzerriko nazionalitateko norbait duten senitarteen % 22,8k eta erreferente den pertsona Espainiako Estatutik at jaio den norbait dutenen % 20,3k –hau da, hamar senitartetik ia bik- ez dutela sostengu sarerik, laguntzaren bat behar izanez gero.

Kontuan hartuz gero, behar egoeretan inolako laguntza ez duten senitarteak, pobrezia egoeraren arabera, emaitzek bi gauza erakusten dizkigute, nagusiki. Pobrezia erlatiboan ez diren senitarteek ez dute hala direnek bezainbeste pairatzen sostengu sareen falta. Halere, zenbat eta diruzko pobrezia maila larriagoa izan, gehiago ematen dira sostengu faltako egoerak.

Egoera horretan liriateke, beraz, pobrezia larriko egoeran diren senitarteen % 16,2 eta pobrezia erlatiboko edo diru sarrera eskaseko egoeran diren senitarteen % 12,2.

51. taula: Lagun diezaiekeen inor ez duten senitarteen kopurua, erreferente den pertsonaren eta senitartearen zenbait ezaugarriaren arabera. Gipuzkoa 2014 (% zeharka)

		Gertatzen da (%)	Banaketa zuta (%)
Sexua	Gizona	7,1	64,1
	Emaztea	9,3	35,9
Adina	<45	7,0	26,4
	45-64	7,7	36,8
	65 edo hortik gora	8,4	36,7
Nazionalitatea*	Espainiakoa	6,8	82,7
	Atzerrikoa	22,8	17,3
Jaiolekua*	EAE	6,6	62,5
	Estatuko beste nonbaitekoa	7,6	20,2
	Estatutik kanpoko	20,3	17,3
Pobrezia larria*	Bada	16,2	9,1
	Ez da	7,3	90,9
Pobrezia erlatiboa*	Bada	12,2	24,6
	Ez da	6,9	75,4
Gizarte bazterketa*	Bada	21,7	38,0
	Ez da	5,5	62,0
Guztira		7,7	100,0

* Aldeak badira, estatistikoki adierazgarriak, CHI-cuadrado probaren arabera, $p < 0.05$ entzat.

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014.

Senitarteen gizarte harremanak eta sostengu sareen eskuratzeko ahala aztertu ostean, epigrafe honetan, azkenik, jendeen ohitura edota jokamolde zenbaiti, nola edo hala, loturik diren gizarte arazoak senitartean izatea (ikus 52. taula)

52. taula: Senitarteko norbaitek izandako gizarte arazoaren kopuruaren 10 urteotako bilakaera. Gipuzkoa 2012-2014

	2012	2014
Arazoak alkoholarekin	0,5	1,4
Arazoak beste drogekin	1,4	0,5
Arazoak jokoarekin	0,3	0,2
Aurrekari penalak	0,9	0,4
Tratu txar fisikoak	0,8	0,6
Tratu txar psikologikoak	0,9	0,7
Ama nerabe, kiderik gabe, etxean	0,0	0,2
Indarkeria matxistaren biktimak	--	0,3
+ arazoren bat	3,1	2,2


Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2012-2014.

Bildu ditugun galderen bateriak –zortzi guztira, hau da, 2012an baino bat gehiago– zenbait egoera hartzen du kontuan, hala nola alkoholarekiko edo legez kanpoko drogekiko arazoak, jokoaren mendekotasuna, aurrekari penalak. Tratu txar fisiko eta psikologikoak, indarkeria matxista eta haurdun gertatzen diren nerabeak.

²³ Galdetegian esan bezala, laguntza litzateke dirua uztea, duten mendeko pertsonaren bat zaintzea, animo ematea edo zenbait kudeaketa egitea.

Galdera batera honen asmoa ez da, noski, egoera horietako bakoitza zehatz-mehatz zenbatzea, ezpada, horietakoren bat bizi duten senitarteak identifikatzea²⁴. Izan ere, aipaturiko zortzi arazoetatik, eragin handi samarra duen bakarra (Gipuzkoako senitarte ororen % 1,4) alkohol sobera edateak dakartzan arazoena da; gero tratatu txar psikologikoak (% 0,7) edo fisikoak (% 0,6) datoz eta legez kanpoko drogekin loturiko arazoak edo botika sobera hartzearenak (% 0,5)

24. grafikoa: Senitarteko norbaitek bizitako zenbait gizarte arazoren kopuruaren banaketa, senitarte mota desberdinetan. Gipuzkoa 2014



Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014.

Hartara, zentzuzkoa da ezen, kontuan harturik gizarte bazterketako adierazlea, galdera honi emaniko erantzunetatik osatzen dela, aipaturiko egoera horietako bat, bederen, gehiago agertzea halako senitarteetan. Hartara, gizarte bazterketa –hala moderatu nola larria- bizi duten senitarteak Gipuzkoako senitarte ororen % 13,6 izanik, senitarte horien guztien % 12,1tan ematen da aipaturiko zortzi arazoetako bat, bederen.


Horrez gain, ikus daiteke ere (ikus 24. grafikoa) diruzko zailtasunak dituzten senitarteetan ere gehiago ematen dela arazo horietakoren bat, bederen. Pobrezia larrian diren senitarten % 4,3k eta pobrezia erlatiboan direnen % 3,2k dio bere kideakoren bat izan dela halako egoeraren batean.

²⁴ Galdera horien erantzunak FOESSA Fundazioaren adierazle sistemaren parte dira. Erabiltzen dira gizarte ardatzari loturik diren bazterketa prozesuak aztertzen dituzten 28, 30, 31 eta 32 adierazleak prestatzeko.

3.7.2. Herri bizitzan eta politikan parte hartzea

Herri bizitzan eta politikan parte hartzea baztertzeko eta gizarteratze prozesuen funtsezko osagarria da eta, horregatik, ikerketa honetan kontuan hartu dugu, bazterketa adierazleak osatzerakoan. 2014ko GPGBIk ematen duen informaziotik ateratzen da Gipuzkoako senitarte ororen % 28,5etan, senitartearen erreferente den pertsona –hau da, diru sarreren aldetik, etxera diru gehien ekartzen duena– elkarteren bateko edo gizarte erakunderen bateko kide dela. 2012an, galdera honen erantzunetan % 36,9koa zen kopuru hori, baina orduan egin zen galdera, 2014koa den bezala, simple izan beharrean, zehatz-mehatz aipatzen zituen gure gizartean diren elkarte eta erakunde motak²⁵. Horregatik, kontuz irakurri behar dira emaitza horiek, zeren, seguruenik, hori ez da behar beste kontuan hartu.

25. grafikoa: Senitarteen banaketa, erreferente den pertsona elkarte edo gizarte erakunderen bateko kide izateari dagokionean. Gipuzkoa 2012



Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014.

Bestalde, hauteskundeetan parte hartzeari dagokionean –hemen ere, senitartearen erreferente denari buruzko informazioarekin– emaitzek erakusten digute senitarteen % 12,4 inguruk diotela, honengatik edo hartatik, ez dutela inoiz hauteskundeetan parte hartzen.

²⁵ GPGBIren galdetegi txikiago egin beharra genuenez, galdera berriak sartu ahal izateko, 104 galderaren formulazioa aldatzea erabaki genuen. 2014an, galdera honela egin zen: "Elkarte edo gizarte erakunderen bateko kide zara? Gogoan ditugu auzo elkarteak, kultura elkarteak, sindikatuak, alderdi politikoak, emakume elkarteak, adinekoen elkarteak, kirol elkarteak, etab.". 2012an, berriz, honela galdetu genuen: "Orain elkarte eta erakunde zenbaiten zerrenda irakurriko dizut. Horietako bakoitzarentzat, esan diezadakezu ea orain kide zaren ala ez?". Galderak 13 elkarte desberdin zekartzan.

Haien artean, senitarteen % 4,5, nazionalitateagatik, bozkatzeko eskubiderik gabe dira, % 4k interesik ez duela dio, eta gainerako % 3,9k politikak eraginik ez duela uste du. Aldi berean, senitarteen ia % 88k hauteskundeetan maiztasun desberdinekin parte hartzen duela dio. Haien % 14,1ek batzuetan baizik ez duela parte hartzen dio, eta gainerako % 73,5ek ia beti (%18,8) edo beti (%54,7). Emaitza horiek 2012koekin duten aldea oso-oso txikia da, honako taula honek erakusten duen bezala.

53. taula: Erreferentziako pertsonak hauteskundeetan parte hartzearen arabera senitarteen banaketaren bilakaera. Gipuzkoa 2012-2014

		2012	2014
Ez du parte hartzen	Bozkatzeko eskubiderik gabe	4,3	4,5
	Ez zaio interesatzen	3,4	4,0
	Ez du ezertarako balio	3,4	3,9
	+Guztira	11,1	12,4
Parte hartzen du	Batzuetan	8,7	14,1
	Ia beti	22,7	18,8
	Beti	57,6	54,7
	+ Guztira	89,0	87,6
Guztira		100,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2012-2014.

Gipuzkoako senitartek gizarte bizitzan eta politikan zenbateraino parte hartzen duten zehatz-mehatz neurterik haratago, GPGBIk eskaintzen dizkigun emaitzak interesgarriak dira datu horiek beste gaiekin lotzen dituztelako, hala nola pobrezia prozesuekin loturiko gaiekin

54. taulak, gizartean eta politikan duten parte hartzearen arabera banatzen ditu senitartek, epigrafe honetan, lehen azertu ditugun bi galderetatik abiatuz. Oso modu sinplean bereizten ditu, alde batetik inolako elkartetan parte hartzen ez duten eta hauteskundeetan ere parte hartzen ez duten senitartek eta, beste aldetik, parte hartze herritarren bi dimentsio horietako batetan bereiren parte hartzen dutenak edo bietan ari direnak.

Emaitzen artean, bereziki nabarmentzen da herritar parte hartzearen (bi dimentsiotan harturik, hala gizartean parte hartzea nola parte hartze politikoa) eta diru sarreren mailaren artean den harreman estua. Emaitzak argiki uzten dute ikustera, elkarre batetan parte hartzeaz gain, hauteskundeetan ere parte hartu ohi dutenen kopurua handitzen doala senitarteen diru sarreren kintila gora doan neurrian. Diru sarreren lehen kintileko senitarteen artean, % 11,5ek besterik ez dio bi prozesuetan parte hartzen duela; bosgarren kintileko senitartean, berriz, -hau da, diru sarrera baliokide gorenak dituzten senitarteen % 20- bi dimentsioetan parte hartzen dutenen kopurua % 38,3koa da.

Aldi berean, aipatzekoa da ere, parte hartzen ez dutela gehiago diotela emaitzak buru dituzten senitartek, 45 urtez peko norbait buru dutenek edo atzerriko nazionalitatekoek, azken horiek baitira elkarre batetik eta politikako parte hartzeari loturiko bazterketa prozesuetatik gertuen direnak. Senitarte ororen % 24,4k parte hartzen duen edo elkarre batetan edo hauteskundeetan, atzerriko norbait buru duten senitarteen % 3,9k besterik ez dio hala egiten duela.

54. taula: Senitarteen ehunekoa, erreferente duten pertsonaren gizarte bizitzan eta politikan parte hartzeari loturik, erreferente den pertsonaren eta senitarteen zenbait ezaugarriaren arabera. Gipuzkoa 2014**

		Zeharkako banaketa (%)			Banaketa zuta (%)			
		Parte hartzerik ez	Parte hartzea gizartean edo politikan	Parte hartzea gizartean eta politikan	Parte hartzerik ez	Parte hartzea gizartean edo politikan	Parte hartzea gizartean eta politikan	Guztira
Sexua*	Gizona	20,4	52,5	27,1	63,8	69,1	78,0	70,1
	Emaztea	27,1	54,9	18,0	36,2	30,9	22,0	29,9
	<45	33,6	41,3	25,2	43,8	22,7	30,2	29,3
Adina*	45-64	18,9	54,2	26,9	31,0	37,4	40,6	36,8
	65 edo hortik gora	16,6	62,4	21,0	25,1	39,8	29,2	33,9
		18,8	55,5	25,7	78,9	98,3	99,1	94,1
Nazionalitatea*	Espainiakoa	18,8	55,5	25,7	78,9	98,3	99,1	94,1
	Atzerrikoa	80,5	15,7	3,9	21,1	1,7	0,9	5,9
Jaiolekua*	EAE	19,1	53,4	27,5	62,2	73,2	82,1	72,9
	Estatua	18,1	63,0	18,9	16,6	24,4	15,9	20,6
	FEBrá Estado	72,6	20,1	7,3	21,3	2,5	2,0	6,6
Senitarteen diru sarrera baliokideak, kintilka*	1. kintila	37,8	50,7	11,5	34,0	19,2	9,5	20,2
	2. kintila	27,9	51,4	20,7	26,1	20,2	17,8	20,9
	3. kintila	21,2	55,8	23,1	18,0	19,9	18,0	19,0
	4. kintila	14,7	57,1	28,3	12,6	20,6	22,3	19,2
	5. kintila	10,2	51,5	38,3	9,4	20,0	32,4	20,7
Pobrezia erlatiboa*	Bada	37,6	49,4	12,9	26,2	14,5	8,3	15,6
	Ez da	19,6	53,9	26,5	73,8	85,5	91,7	84,4
Gizarte bazterketa*	Bada	41,3	46,3	12,4	25,0	11,8	6,9	13,6
	Ez da	19,5	54,3	26,3	75,0	88,2	93,1	86,4
Guztira		22,4	53,2	24,4	100,0	100,0	100,0	100,0

* Aldeak badira, estatistikoki adierazgarriak, CHI-cuadrado probaren arabera, $p < 0,05$ sentzat

** Gizarte bizitzan parte hartzea litzateke gizarte erakunde edota elkarre bat baten kide izatea. Politikan parte hartzean sartzen ditugu hauteskundeetan beti edo ia beti parte hartzen dutela diotenak.

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014.

3.8. Pobreziaren aurka borrokatzeko politiken erabilera, eskaera eta eragin-kortasuna

3.8.1. Oinarrizko gizarte zerbitzuen eta Lanbideren erabilera

Azken urtean zehar, oinarrizko gizarte zerbitzuetara noizbait joan direla diote Gipuzkoako senitarteen % 11,8k hau da, ia 33.700 senitarte. Aldi berean, azken 12 hilabeteotan, senitarteen % 23,8k dio (ia 67.800 senitarte) Lanbideren bulegoetako batera joan direla. Bestalde, Gipuzkoako senitarte guztien % 11,9k dio, orain dela urtebete baino lehenago, joan zela oinarrizko gizarte zerbitzuetara eta % 14,1ek Lanbidera. Hartara, esan daiteke Gipuzkoako lau senitartetatik bat inguru joan dela noizbait oinarrizko gizarte zerbitzuetara. Lanbideren kasuan, kopurua handixeagoa da, zeren, erantzun dutenaren arabera, hara joan baitira, hamar senitartetatik ia lau.

Bilakaerari so eginez gero, GPGBIk erakusten digu 2012tik 2014ra ia ez dela aldaketarik izan, nahiz eta bi zerbitzuen kasuan, joan direla diotenen kopurua zer edo zer txikiagoa den azken 12 hilabeteotan (ikus 55. taula). Aldi berean, gutxitzen da ere, azken urtean, hala Lanbidera nola oinarrizko gizarte zerbitzuetara jo dutela diotenen senitarteen zama erlatiboa, 2012ko % 8,8tik, % 7,2ra, 2014an.

55. taula: Oinarrizko gizarte zerbitzuak eta Lanbideren zerbitzuak erabiltzearen araberrako senitarteen banaketaren bilakaera. Gipuzkoa 2012-2014

	Oinarrizko gizarte zerbitzuak		Lanbide	
	2012	2014	2012	2014
Noizbait	24,9	23,7	40,0	37,8
- Azken urtean	13,0	11,8	26,9	23,8
- Urtebete baino lehenago	11,8	11,9	13,1	14,1
Inoiz ez	75,1	76,3	60,0	62,2
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2012-2014.

Zerbitzu publiko horien azken urteko erabilera senitarteen erreferente den pertsonaren ezaugarrien arabera aztertuz gero, ikusten da gehiago jotzen dutela haietako bietara, emazte bat buru duten senitarreek, bai eta atzerriko nazionalitateko norbait buru duten senitarreek edo lan intentsitate oso apala edo apala dutenek. Pertsona nagusiaren adina, aldiz, Lanbidera jotzeari soilik da lotua (baina ez oinarrizko gizarte zerbitzuak erabiltzeari, horretan bariazio gehiago ageri dutelarik), zerbitzu horretara gehiago jo baitute 45 urtez peko norbait buru duten senitarreek.

Azkenik, bereziki pobre edo baztertuak direnentzako zerbitzuak ez izanik ere, azken urtean, oinarrizko gizarte zerbitzuak eta enpleguaren euskal zerbitzua askoz gehiago erabili dituzte diruzko pobrezia edota gizarte bazterketa egoeran diren senitarreek.

56. taula: Senitarreak, oinarrizko gizarte zerbitzuak edota Lanbide erabiltzeari dagokionean, erreferente den pertsonaren eta senitarrearen zenbait ezaugarriren arabera. Gipuzkoa 2014

		Oinarrizko gizarte zerbitzuak*				Lanbide [†]			
		Noizbait		Azken urtean*		Noizbait		Azken urtean*	
		% zeharkal	% zuta	% zeharkal	% zuta	% zeharkal	% zuta	% zeharkal	% zuta
Sexua**	Gizona	20,4	60,2	10,3	61,0	38,0	70,3	22,7	67,0
	Emaztea	31,6	39,8	15,4	39,0	37,5	29,7	26,3	33,0
Adina [†]	<45	21,5	26,5	11,0	27,3	52,1	40,3	32,4	39,9
	45-64	21,9	33,9	12,2	38,0	43,1	41,8	28,3	43,8
	65 edo hortik gora	27,6	39,5	12,0	34,6	19,9	17,8	11,4	16,3
Nazionalitatea**	Espainiakoa	22,4	88,9	11,0	87,5	36,0	89,6	21,9	86,9
	Atzerrikoa	45,0	11,1	25,2	12,5	67,4	10,4	53,1	13,1
Lan intentsitateal ^{†**}	Apal sama redo apala	58,9	53,4	33,5	57,5	84,9	34,1	74,7	47,0
	Gora samarra edo gora	12,1	46,6	5,8	42,5	38,7	65,9	19,9	53,0
Pobrezia maila**	Larria	58,7	10,8	30,6	11,3	77,2	8,9	71,4	13,1
	Erlatiboa, ez larria	52,8	25,0	32,8	31,2	61,9	18,4	47,2	22,3
	Ez da	18,1	64,2	8,0	57,5	32,6	72,8	18,2	64,6
Gizarte bazterketa**	Erabat gizarteratua	13,4	32,5	6,3	30,7	26,6	40,4	13,3	32,2
	Halamoduz gizarteratua	31,5	38,4	13,7	33,7	48,4	37,0	34,0	41,4
	Bazterketa moderatua	34,4	12,0	22,4	15,7	59,1	13,0	41,1	14,3
	Bazterketa larria	77,2	17,1	44,6	19,9	69,5	9,7	54,8	12,1
Guztira		23,7	100,0	11,8	100,0	37,8	100,0	23,8	100,0

[†]Adierazle horrek senitarte baten lan maila neurtzen du, lanerako litezkeen pertsonen kopurutik abiatuz, azken urtean, bakoitzak lan egin duen hilabete kopurua eta egin duen lanaldi mota kalkulaturik. Kalkulu horretarako, soilik hartzen dira kontuan 60 urtez peko norbait duten senitarreak. Lan intentsitate apal samar edo apaleko senitartetat hartzen dira, 18tik 59 urte bitartekoek, egin lezaketen lanaren % 50 baino gutxiago lan egin duten senitarreak.

** + Aldeak badira, estatistikoki adierazgarriak, CHI-cuadrado probaren arabera, p<0.05entzat azken urtean oinarrizko gizarte zerbitzuak (*) edo Lanbide (†) erabiltzean, sinbolo bakoitzarekin seinaltaturiko aldagaietan.

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014.

3.8.2. Laguntza eta prestazio ekonomikoen eskaera

2014ko Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestak biltzen du, bestalde, beharretan direnen babeserako eta gizarteratzeko prestazio eta diruzko laguntzen pakete baten eskari berezia (ikus 57. taula). Horretan, inkestaren datuek erakusten digute, azken hamabi hilabeteotan, 31.300 senitarte inguruk, hau da, hamar senitartetik batek baino zertxobait gehiagok (% 11, 2012an % 9,8 zirelarik) eskatu dizkietela gizarte zerbitzuetako edo lan zerbitzuetako erakunde publikoei diruzko prestazio edo laguntzak, hala diru sarrerak bermatzeko laguntzak (DBE, EPO edo DBL), laguntza edo prestazio orokorrak edo diru sarrerak bermatzeko laguntza osagarriak (PAGAMlren hondarrak edo kotizatu gabekoen pentsioak) nola langabeziakoak eta sorospenekoak, langabezia saria bezala.

Diru sarrerak Bermatzeko Errentari dagokionez, guztietan eskatuena baita, azken hamabi hilabeteotan, Gipuzkoako senitarteen % 7,5ek eskatu dute, orain dela bi urte, % 6,2k eskatu zutelarik. Diru sarrerak Bermatzeko Errentaren ondoren, langabezi saria dator, Gipuzkoako senitarteen % 3,9k eskatu baitute, hau da, 2012an (% 4,2k) baino zertxobait gutxiagok. Aldi berean, senitarteen % 1etik beherako eskarrietan lirateke, gero, DBLa (% 0,9), kotizatu gabekoen pentsioak (% 0,8) eta Gizarte larrialdiko laguntzak (% 0,5). Oro har, denetan emendatu da zertxobait eskatze maila, salbu langabezia sariaren kasuan.

57. taula: Azken urtean zehar diruzko laguntzak eta prestazioak eskatu dituzten senitarteen bilakaera. Gipuzkoa 2012-2014

	2012	2014
Diru sarrerak Bermatzeko Errenta	6,2	7,5
Diru sarrerak Bermatzeko Laguntza	0,2	0,9
Gizarte Larrialdiko Laguntzak	0,4	0,5
Kotizatu gabekoen pentsioak	0,4	0,8
Langabezia saria	4,2	3,9
+Baten bat	9,8	11,0

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2012-2014.

Azken garaiko diruzko laguntza eta prestazioen eskariari osotasunean so eginez gero, emaitzek erakusten digute ezen atzerriko norbait buru duten hamar senitartetatik ia lauk eta lan intentsitate apal edo oso apala dutenen ia erdiak eskatu dutela aipaturiko prestazioetakoren bat. Emazte bat buru duten senitartek eta 45 urtez peko norbait buru dutenek ere eskatu dute gehiago prestazio edo laguntzaren bat.

Emaitzek erakusten digute ere zuzenki loturik direla diruzko prestazioak eskatzea eta egoeren larritasun maila, hala diruzko pobreziazi dagokionean nola gizarte bazterketari dagokionean ere. Diruzko pobrezia kasuan, adibidez, azken urtean, laguntza horietakoren bat eskatu dute pobrezia larrian diren senitarteen % 55,3k eta pobrezia erlatiboan (baina ez larrian) direnen % 35ek, eta, pobrezia diruaren ikuspuntutik ikusiz, pobre ez liratekeen senitarteen % 5,5ek.

58. taula: Senitartek, azken urtean diruzko laguntzak eta prestazioak eskatzeari dagokionean, erreferente den pertsonaren eta senitarteen zenbait ezaugarrien arabera. Gipuzkoa 2014

		Zeharkako banaketa (%)			Banaketa zuta (%)		
		Baten bat eskatu du	Ez du batere eskatu	Guztira	Baten bat eskatu du	Ez du batere eskatu	Guztira
Sexua*	Gizona	9,1	90,9	100,0	57,9	71,6	70,1
	Emaztea	15,5	84,5	100,0	42,1	28,4	29,9
Adina*	<45	15,0	85,0	100,0	39,9	28,0	29,3
	45-64	12,2	87,8	100,0	40,8	36,3	36,8
	65 edo hortik gora	6,2	93,8	100,0	19,3	35,8	33,9
Nazionalitatea*	Espainiakoa	9,2	90,8	100,0	78,9	96,0	94,1
	Atzerrikoa	39,5	60,5	100,0	21,1	4,0	5,9
Lan intentsitatea*	Apal samar edo apala	47,1	52,9	100,0	70,2	11,6	19,1
	Gora samarra edo gora	4,7	95,3	100,0	29,8	88,4	80,9
Pobrezia maila*	Larria	55,3	44,7	100,0	21,9	2,2	4,4
	Erlatiboa, ez larria	35,0	65,0	100,0	35,8	8,2	11,2
	Ez da	5,5	94,5	100,0	42,3	89,6	84,4
Gizarte bazterketa*	Erabat gizarteratua	3,7	96,3	100,0	19,2	62,2	57,5
	Halamoduz gizarteratua	12,2	87,8	100,0	32,2	28,5	28,9
	Bazterketa moderatua	32,9	67,1	100,0	24,8	6,2	8,3
	Bazterketa larria	49,5	50,5	100,0	23,7	3,0	5,3
Guztira		11,0	89,0	100,0	100,0	100,0	100,0

¹Adierazle horrek senitarte baten lan maila neurtzen du, lanerako litezkeen pertsonen kopurutik abiatuz, azken urtean, bakoitzak lan egin duen hilabete kopurua eta egin duen lanaldi mota kalkulaturik. Kalkulu horretarako, soilik hartzen dira kontuan 60 urtez peko norbait duten senitartek. Lan intentsitate apal samar edo apaleko senitartetatik hartzen dira, 18tik 59 urte bitartekoek, egin lezaketen lanaren % 50 baino gutxiago lan egin duten senitartek.


* Aldeak badira, estatistikoki adierazgarriak, CHI-cuadrado probaren arabera, p<0.05entzat

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014.

3.8.3. DBEa senitartearen funtsezko beharretara egokitzen den maila

2014ko GPGBItik ateratzen da, azken urtean, Gipuzkoako senitarte ororen % 7,8 eskatu zuela edo Diru sarrerak Bermatzeko Errenta edo Diru sarrerak Bermatzeko Laguntza. Orain dela bi urte bildutako informazioarekin erkatuz gero, datu horiek 1,5 puntuko emendatze bat adierazten dute²⁶. Datu horiekin jarraituz, GPGBIk erakusten digu ezen, noizbait DBEa edo EPOa eskatu dutela dioten senitarte ororen % 70ek –hau da, Gipuzkoako senitarte ororen % 6,3– gaur egun, diru sarrerak bermatzeko diruzko bi tranferentzietako bat jasotzen ari direla.

26. grafikoa: Noizbait DBEa edo EPOa eskatu duten senitartearen ehunekoaren bilakaera Gipuzkoa 2012-2014



Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2012-2014.

Zenbateraino pentsa daiteke senitartearen oinarriko beharretara egokitzen direla hartzen dituzten DBE bezalako diruzko kopuruak? Izan ere, gaur egun DBEa hartzen ari diren senitarteak dagokionean, haien % 13,9k bakarrik uste du hartzen duen diru horrek betetzen dizkiola oinarriko beharrak. Heren luze batek, ordea, uste du zati batean besterik ez dituela bere beharrak asetzen. Guztiarekin ere, senitartearen erdia inguruk uste du hartzen duen kopurua eskasa (% 24,5) edo oso eskasa (% 24,7) dela.

Bilakaerari dagokionean, 2014ko emaitzek erakusten dute, azken bi urteotan, DBEa jasotzen duten senitartearen artean, handiagoa dela hartzen duten kopurua eskasa dela uste dutenen zama erlatiboa.

²⁶ Eskariaren emendatze hori koherentea da aldi horretan bi laguntzen onuradunen kopuruetan ere izan den emendatzearekin. Gipuzkoako Gizarte Behatokiaren web orriak <Behagi.eus> eskaintzen dituen datuen arabera, 2012ko eta 2014ko bi abenduen artean, DBEaren onuradunen kopurua emendatu da, 12.402tik 15.314ra. EPOren kasuan, 2012ko uztailaren lehenean abiatu zen diruzko laguntza izanik, onuradunen kopurua, bi urteotan, 337tik 1.387ra emendatu da.

59. taula: DBEa jasotzen duten senitartearen banaketa-aren bilakaera, hartzen duten diru kopurua senitartearen oinarriko beharrak asetzeko duen ahalaz duten iritziaren arabera. Gipuzkoa 2012-2014

	2012	2014
Bai, erabat	19,3	13,9
Bai, baina ez erabat	35,0	36,9
Eskasa da	25,6	24,5
Oso eskasa da	13,0	24,7
Guztira	100,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2012-2014.

3.8.4. Gizarte tranferentzien sistemaren eta gutxieneko errenten sistemaren eragina

Epigrafe honetan, azkenik, gizarte tranferentzien egungo sistemak pobrezia tasak gutxitzen duen eraginaren azterketa egin nahi dugu, bai eta gutxieneko errenten egungo sistemak pobreziari aurrea hartzeko duen eragina ere.

3.8.4.1. Pobrezia larria apaltzeko gizarte tranferentzietatik eraginkortasuna

Pobrezia tasak, gizarte tranferentziak gertatu baino lehen eta ondoren erkatzea dugu, Europako esparruan, erreferente diren adierazleak bat, gizarte babeseko sistemaren birbanatze eraginkortasuna neurtzeko eta, hartara, pobrezia gutxitzeko duen eragina neurtzeko. Ikuspuntu honetatik, atal honetan, gizarte tranferentzietatik pobrezia larriko egoerak gutxitzeko duen eragintasuna aztertzen dugu, Gipuzkoako lurralderako.

60. taula: Pobrezia larria, gizarte tranferentzien aurretik eta ondoren. Tasak eta ukituak diren pertsona eta senitartearen kopurua. Gipuzkoa 2014

	Pertsonak		Senitarteak	
	Tasa	Kopurua	Tasa	Kopurua
Pobrezia larria, gizarte tranferentzien aurretik	11,9	85.297	12,8	36.580
Pobrezia larria, gizarte tranferentzien ondoren	5,4	38.743	4,4	12.424
Aldea (ehuneko puntutan)	6,5	46.554	8,4	24.156
Apaltze maila (%)	- % 54,6	--	-65,6	--

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014.

2014rako lortu ditugun emaitzek erakusten digute, 60. taulan ikus daitekeen moduan, gizarte tranferentziarik gabe²⁷, pobrezia larriaren tasak, Gipuzkoan, gipuzkoar ororen % 11,9 joko lukeela eta senitartearen % 12,8.

²⁷ Esan behar da, gizarte tranferentzietatik hartzen ditugula sistema publikoaren tranferentziak, hala gizarteratzerakoak (DBE, EPO, DBL, etab.) nola gizarte segurantzakoak eta langabeziakoak (langabeziagatik prestazioa, familia babesa, haurrengatik prestazioak, eritasunekoak, ezintasun prestazioak, 65 urtez pekoen kasuan, eta enpresa berregituratzeetatik eta birmoldatzeetatik datozen aurreerretiroak). Erretiro pentsioak, aldiz, ez ditugu sartu.

Gizarte transferentziak (langabeziagatik prestazioak, gutxieneko errentak, etab.) kontuan hartuz gero, ordea, tasa horiek % 5,4raino apalduko lirateke, pertsonen kasuan, eta % 4,4raino, berriz, senitarteen kasuan. Guztira, esan daiteke gizarte transferentziek biztanleen pobrezia larriaren tasak % 54,6an apaltzen dituztela eta, horrela, 46.600 pertsona inguru pobreziatik ateratzen dituztela.

Bilakaerari so eginez, erkatzen baditugu 2012ko eta 2014ko egoerak, 2014an ikusi dugun pobrezia larria apaltzeko ahal hori 2012koaren oso antzekoa, baina zer edo zer txikiagoa, da (ikus 61. taula); espainiar Estatu-koarekin erkatuz gero, handiagoa da –espainiar Estatuaren gutxieneko errenta sistema euskal sistema baino askoz ahulagoa baita– eta, EB-15eko herrialde esparrukoa baino apalagoa, han, gizarte transferentziek pobrezia larria apaltzen lortzen duten maila ia % 63koa²⁸ baitzen, 2013an.

61. taula: Pobrezia larria, gizarte transferentzien aurretik eta ondoren. Tasak eta ukituriko pertsona eta senitarte kopuruak. Gipuzkoa 2014

	Pobrezia larriaren tasak		Apaltze maila (%)
	Gizarte transferentzien aurretik	Gizarte transferentzien ondoren	
+Gipuzkoa			
2012	10,0	4,3	- % 56,6
2014	11,9	5,4	- % 54,6
+Espainia			
2012	16,9	9,6	- % 43,2
2014	19,1	10,6	- % 44,5
+EB-15			
2011	14,6	5,3	- % 63,7
2013	14,8	5,5	- % 62,8

iturriak: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014; INE. Encuesta de Condiciones de Vida; Eurostat. EU-SILC (European Union Statistics on Income and Living Conditions)-

Gizarte transferentzien aurretik eta ondorengo pobrezia larriaren tasak zenbait aldagai sozioekonomikoren arabera aztertzen baditugu, emaitzek erakusten digute, noski, pobrezia apaltzea ez dela modu homogeneoan ematen gizarte talde orotan.

Kopuru absolutuetan, 62. taulak dakartzan emaitzek erakusten digute ezen, transferentzien aurretik eta ondorengo tasetan gertatu den aldaketa handiena izan duten taldeak direla gizarte transferentziak egin aurretik pobrezia larriko tasa gorenak zituzten taldeak. Izan ere, atzerriko nazionalitateko pertsonak dira –bi tasean artean den aldea -14,1 puntukoa da–, edo bakarrik bizi direnak (-16,8 puntu), edo guraso bakarreko senitarteetakoak (-13,8 puntu) edo lan intentsitate oso apala dutenak (-37,5 puntu, lanerako litezkeen pertsona oro lan gabe dituzten senitarteen kasuan).

62. taula: Biztanleen pobrezia larriaren tasak, gizarte transferentzien aurretik eta ondoren, biztanleen eta senitarteen zenbait ezaugarrien arabera. Gipuzkoa 2014

		Aurretik	Ondoren	Aldea
Sexua	Gizona	11,6	5,1	-6,4
	Emaztea	12,3	5,7	-6,6
Adina	<18	15,9	8,8	-7,1
	18-44	13,3	6,8	-6,5
	45-64	13,3	4,2	-9,1
	65 edo hortik gora	4,7	2,1	-2,6
Nazionalitate	Espainiako	9,5	3,5	-6,0
	Atzerriko	47,5	33,4	-14,1
Senitarte	Pertsona bakarreko	21,1	4,3	-16,8
	Seme-alabarik gabeko bikotea	6,7	3,0	-3,7
	Bikotea, seme-alabekin	10,1	5,8	-4,2
	Guraso bakarrekoak	21,7	7,9	-13,8
	Bestelakoak	15,9	8,0	-7,9
Lanarekiko harremana	Lanerako guztiak edo erdia baino gehiago lanean	2,7	1,0	-1,7
	Lanerako erdia edo gehiago lan gabe	32,1	12,6	-19,4
	Lanerako inor ez lanean	77,7	40,2	-37,5
	Lanerakorik ez	10,7	5,0	-5,8
Guztira		11,9	5,4	-6,5

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014.

Oinarrizko aldagai soziodemografikoei dagokienez, ikus daiteke ere, gehiago apaltzen dela emakumeen kasuan eta 45 eta 64 urte artekoen artean. Oso deigarria da gizarte transferentziek horren eragin eskasa izatea –beste adin taldeetako emaitzak ikusirik– 18 urtez pekoen artean. Izan ere, 62. taulan ikus daitekeenez, gizarte transferentzien aurretik, beste taldeek baino egoera okerragoa dute eta, kopuru erlatiboetan, % 45ean besterik ez dute gutxitzen pobrezia larria –seme-alabak dituzten bikoteen oso antzekoa, azken hauek % 42an gutxitzen baitute–, nahiz eta gipuzkoarrak oro har harturik, apaltze hori % 55ekoa den.

3.8.4.2. DBE-EPO/DBL/GLL sistemaren eraginkortasuna pobrezia larria murrizteko

Gizarte transferentziek oro har duten eraginaz gain, zenbateraino lortzen dute gure lurraldeak duen diru sarreren bermatzeko sistemaren prestazioek (DBE/EPO, DBL eta GLL) pobrezia larria murriztea?

Emaitzek, 63. taulan ikus daitekeenez, erakusten digute Gipuzkoako pobrezia larriaren tasa, zeinak, lehen esan dugun bezala, biztanleen % 5,4 jotzen baitu, % 8,3koa izatera hel zitekeela, prestazio horiek hartzen dituztenek ez balituzte diru sarrera horiek. Hortik ondoriozta daiteke gutxieneko errenten euskal sistemak pobrezia larriaren tasa % 34,4 murrizten duela, haren eragina % 8,3tik % 5,4ra apaltzen baitu eta, hartara, 20.300 pertsona inguru ateratzen baititu pobrezia larritik.

²⁸ Eurostat-ek, 2013an, EB-15arentzat ematen dituen datuen arabera, gizarte prestazioek duten eragina, kopuru erlatiboetan, apal samarra da Europako hegoaldeko herrialdeetan, hala nola diren Grezia (- % 26), Italia (- % 28), Portugal (- % 40) eta Espainia (- % 48). Bereziki gora da, aldiz, Irlanda (- % 86), Finlandia (- % 84), Luxenburgoko eta Holanda (- % 79) edo Erresuma Batua (- % 77) bezalako herrialdeetan.

63. taula: Pobrezia larria DBE-EPO/DBL/GLL aurretik eta ondoren. Tasak eta ukituriko pertsona eta senitarte kopuruak. Gipuzkoa 2014

	Pertsonak		Senitarteak	
	Tasa	Kopurua	Tasa	Kopurua
Pobrezia larria DBE-EPO/DBL/GLL aurretik	8,3	59.053	8,5	24.176
Pobrezia larria DBE-EPO/DBL/GLL ondoren	5,4	38.743	4,4	12.424
Aldea (ehuneko puntutan)	2,8	20.309	4,1	11.753
Murrizketa (%)	- % 34,4		- % 48,6	

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014.

Baldin eta biztanleria oro har hartu beharrean, senitarteak hartzen baditugu, DBE/DBL/GLL sistemak, kopuru erlatiboetan, duen eragina are eta handiagoa da, laguntza horiek gabe pobrezia larrian liratekeen Gipuzkoako senitarteen ia erdia ateratzen baititu pobrezia larritik. Dena den, esan behar da ere, alde horiek, neurri handi batetan, DBEren onuradun direnen artean pertsona bakarreko senitarte asko direlako gertatzen direla. Izan ere, Lanbideren 2014ko datuen arabera, Gipuzkoan DBEa hartzen duten bizikidetzaren unitate ororen artean, % 41,2 pertsona bakarrekoak ziren, nahiz eta 2011ko Biztanleen eta Etxebizitzen Erroldaren datuen arabera, Gipuzkoako senitarte oro harturik, %25 besterik ez diren.

Bestalde, 2012 eta 2014 artean eman den bilakaerari so eginez gero, 64. taulak erakusten digu, bi urteotan, DBE/DBL/GLL sistema zertxobait indartu dela, pobrezia larria murrizte ahalaria dagokionean, zeren, ehuneko puntutan, transferentzien aurretik eta ondotik diren pobrezia larriaren tasen arteko aldea 2 puntukoa izatetik 2,8 puntukoa izatera pasa baita. Aldi berean, prestazio horiei esker pobrezia larritik atera direnen kopurua 14.000koa izatetik, 2012an, ia 20.300 pertsona izatera pasatu da, 2014an.

64. taula: Pobrezia larriaren bilakaera, DBE-EPO/DBL/GLL aurretik eta ondoren. Tasak eta ukituriko pertsona eta senitarte kopuruak. Gipuzkoa 2012-2014

	2012		2014	
	Tasa	Kopurua	Tasa	Kopurua
Pobrezia larria DBE-EPO/DBL/GLL aurretik	6,3	44.631	8,3	59.053
Pobrezia larria DBE-EPO/DBL/GLL ondoren	4,3	30.589	5,4	38.743
Aldea (ehuneko puntutan)	2,0	14.042	2,8	20.309
Murrizketa (%)	- % 31,5		- % 34,4	

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014.

Denbora tarte honetan, pobrezia larriaren ziren biztanleen kopurua handitu bada ere -% 4,3tik % 5,4ra emendatu da-, esan behar da, halere, 2012 eta 2014 artean, prestazioen ondorengo pobrezia larriaren tasa ez dela, oro har emendatu den bezainbeste emendatu. Datu horiek erakusten digute DBEren oinarrituriko sistemak duen eragin garrantzitsua, Gipuzkoan, diruzko pobreziako egoerak heda ez daitezten.

Baldin eta gure lurraldean, DBE/DBL/GLL bitarteko gizarte transferentzien sistemak lortzen duen murrizketa orokorra kontuan hartu beharrean, haien onuradunei so egiten badiegu, emaitzek erakusten digute diru sarrerak bermatzeko euskal sistemaren laguntzak hartzen dituztenen % 47 inguru ateratzen direla pobrezia larritik transferentzia horiei esker. Bildu ditugun datuek erakusten digute ere (ikus 65. taula), % 30 baino zertxobait gutxiago ez direla ateratzen, baina, dena den, pentsatzekoa da haiek hartzeak askoz txikiago egiten duela hautaturiko pobrezia atalasearen eta familia horiek dituzten baliabideen arteko arrakala. 2012 eta 2014 urteen artean diren aldeak txikiak dira eta ezin da, horietatik, joera argirik ondorioztatatu. Dena den, aipatzekoa da pobreziatik ateratzea lortu dutenen kopuruaren emendatzea, bai eta nolabait mantentzen dela ateratzen ez direnen zama erlatiboa.

65. taula: DBE-EPO/DBL/GLL sistemaren eraginkortasunari buruzko zenbait adierazleren bilakaera. Gipuzkoa 2012-2014

	2012			2014		
	Ukituriko biztanleria	Erreferentziako biztanleria-rekiko %	Biztanleria osoarekiko %	Ukituriko biztanleria	Erreferentziako biztanleria-rekiko %	Biztanleria osoarekiko %
DBE-EPO/DBL/GLL onuradun pertsonak	28.070	100,0	4,0	37.068	100,00	5,2
- Pobrezia larritik atera dira	14.042	50,0	2,0	17.575	47,4	2,5
- Ez dira pobrezia larritik atera	8.848	31,5	1,3	10.978	29,6	1,5
- Ez ziren pobrezia larrian*	5.180	18,5	0,7	8.514	23,0	1,2
Pobrezia larriaren izanik ere, DBE-EPO/DBL/GLL onuradun ez diren pertsonak	21.741	100,0	3,1	27.765	100,0	3,9
- DBE/DBL/GLL azken urtean eskatu dute	4.051	18,6	0,6	6.499	23,4	0,9
- Ez dute DBE/DBL/GLL eskatu azken urtean	17.689	81,4	2,5	21.266	76,6	3,0

* Azken urtean, aipatu ditugun laguntza eta prestazioetakoren bat hartu duten senitarteetako pertsonak dira, dituzten diru sarrera garbi baliokideen arabera, pobrezia larriaren ez direnak. Horrek ez du esan nahi beharretan ez zirenik edota prestazioak hartzeko baldintzak betetzen ez zituztenik.

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2012-2014.

66. taula: Biztanleen hileko diru sarrerren banaketa, motaka, pobrezia mailaren arabera. Gipuzkoa 2014

	Pobrezia larria	Pobrezia erlatiboa, ez larria	Ez da pobrezian	Guztira
[1] Lanekoa	24,8	40,2	68,4	66,4
[2] Higigarri edo higiezinetiko diru sarrerak	3,1	2,9	4,7	4,6
NORK BERAK EKARRIAK	27,8	43,1	73,0	70,9
[3] Pentsioak	23,1	33,3	23,4	23,9
[4] langabeziagatiko prestazioak	16,3	6,3	1,3	1,7
GIZARTE SEGURANTZAK EMANAK	39,4	39,6	24,7	25,7
[5] DBE/DBL/GLL sistema	22,6	11,3	0,4	1,3
[6] Bestelako gizarte laguntzak	3,7	1,9	1,0	1,1
GIZARTE LAGUNTZEN BIDEZKOAK	26,3	13,2	1,4	2,4
[7] Senide edo kidego laguntzak	6,2	4,0	0,8	1,1
[8] Erakunde pribatuen laguntzak	0,3	0,1	0,0	0,0
GIZARTEAREN BARNEKO TRANSFERENTZIAK	6,5	4,1	0,8	1,1
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0
Biztanle ororen %	5,4	10,2	84,4	100,0

* Zenbakitan diren kategoriak, diru sarrera hauen arabera osatu ditugu: [1] Soldatak eta lansariak; ordainsari bereziak; laneko kalteordainak; autoenplegutik edo nork bere enpresa ustiatzetik ateratako diru sarrerak; ikastaroak, hitzaldiak edo antzekoak eginez bilduriko diru sarrerak. [2] Jabetzak emaniko errentak; kapital higiezinaren edo pentsio funtsen edo antzekoen emaitzak; Ogasun Sailak itzuliak; loteria edo bestelako sarien emaitzak. [3] Erretiro pentsioak eta eritasun, alarguntza edo ezintasun prestazioak. [4] Langabeziatik datozen diru sarrerak. [5] DBE, EPO, AGI edo GLLtik datozen diru sarrerak. [6] Familia babesteko prestazio edo laguntzak, haurrengatiko edo lana eta familia batera eramateko laguntzak; mendeko egoeran diren pertsonak zaintzeko laguntzak edo ordainsariak; ikasketa laguntzak, adin txikikoentzat (besteak beste, jantoki eta haurtzaindegi laguntzak); eta udaletxeen edo aldundiaren bestelako gizarte laguntza publikoak. [7] senideek edo adiskideek emaniko diruzko laguntzak eta ezkontide edo gurasoak emaniko pentsioa. [8] erakunde pribatuek emaniko diruzko laguntzak (Caritas, Gurutze Gorria, etab.).

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, 2014.

Beste alde batetik kontuan hartuz gero, pobrezia larrian izanik ere, DBE/DBL/GLL sistemaren onuradun ez direnak, ikusten da, 2014an, % 23,4k prestazio horietatik bat eskatu zuela. Datu hauek argigarri besterik ez dira –hala DBE nola DBL eta GLL laguntzak eskuratzeko diren baldintzak desberdinak direnez eta baliokide ez direnez atalase berezi baten azpiko diru sarrera eskasiko egoera batekin–, datu hauek 2012koekin erkatzean agertzen zaigu prestazio hauen eskatze maila zer edo zer emendatu dela (2012an, % 18,6 besterik ez ziren), baita diru sarrera eskasagoko egoera dutenen artean ere.

Epigrafe honekin bukatzeko, taula bat ematen dugu, non –PGDlren emaitzen azken txostenetan egin den bezala– biztanleen diru sarrera garbiak iturrika banaturik eta pobrezia eskalan kokatuak diren bezala ematen diren. 66. taulan ikus daitekeenez, emaitzek erakusten dute DBE/DBL/GLL sistemak pobrezia egoeran direnen artean duen zama erlatiboaren garrantzia. Pobrezia larrian direnen kasuan, adibidez, transferentzia horiek haien diru sarrera guztien ia % 23 dira.

I. ERANSKINA

Pobrezia, bazterketa eta gizarte desberdintasunen adierazle nagusiak Gipuzkoan

I. eranskina

Pobrezia, bazterketa eta gizarte desberdintasunen adierazle nagusiak Gipuzkoan

Hurrengo orrialdeotan, zehatz-mehatz ematen dira 2014ko Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestak (GPGBI) gure lurraldeko pobrezia, gizarte bazterketa eta desberdintasun egoerak neurtzeko erabili ditugun adierazle nagusietarako eskaintzen dizkigun emaitzak. Epigrafe hau lau ataletan banaturik da, zeinetan biltzen baitira, guztira, 17 adierazle. Atal bakoitzean, ikuspuntu edo metodologia jakin batetan bil daitezkeen adierazleak biltzen dira –lehen bien kasua da– edo gai jakin batzuk lantzen dituztenak.

Hona hemen eranskin honetan bilduriko atalen zerrenda:

1. EU-SILC ikuspegia. Errentari eta Bizi Baldintzei buruzko Europar Batasunaren Estatistikak – ingelesez: Statistics on Income and Living Conditions (EU-SILC)– 2004an jarri ziren abian (POGHE edo Europar Batasunaren Senitarteen Panelaren ordez) eta, gaur egun, Europar Batasunaren kide guztiak, gehi Islandia eta Norvegia biltzen dituzte. Eragiketa estatistiko horren helburu nagusia EBren estatu kideak pobrezia eta gizarte bazterketaren aurkako borrokan egiten ari diren aurrerapenak ikuskatzea da. Metodologiaren ikuspegitik, estatistika hauek ematen dituzten datuak, batez ere pobrezia eta alderdiei eta alderdi materialei dira loturik. Ikuspuntu horretatik garatu da, adibidez, Pobrezia eta Gizarte Bazterketa jasateko arriskuaren europar adierazle deiturikoa (AROPE), pobrezia soilik diruzko arazoei begira kontuan hartzeko joerak gainditu eta ikuspegi osoagoa eskaini nahi duena.
2. Pobrezia eta adierazleak, mantentzearen dimentsioan, PGDIren metodoaren arabera. Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta lau urtez behin egiten du Eusko Jaurlaritzak, 1986tik hona, eta alor honetan diren tresna finkatuenetako bat da, ez bakarrik Euskadin, Estatu osoan ere bai. Estatistika operazio horrek ematen dituen datuak pobrezia eta osagaiari eta alde materialari loturik dira, batez ere, eta dituen ezaugarrietako nagusi bat bere adierazle zenbait (pobrezia eta ongizate eza) pobrezia eta ikuspegi subjektibotik ematea da. Ikuspuntu horretatik aztertzen diren pobrezia eta dimentsioetatik –mantentzea eta pilatzea–, horietako lehenari loturiko adierazleei buruzko datuak ematen dira hemen.

Mantentze pobrezia, metodologia horren arabera, oinarrizko beharrei (elikadura, etxebizitza, jantzia, oinetakoak) epe laburrean aurre egin ahal izateko diruzko baliabide eskasia gertatzen den egoerei lotzen zaie.

3. FOESSA ikuspegia. Azken urteotan, FOESSA Fundazioa gizarte bazterketa egoerak neurtzeko sistema berezi bat garatzen ari da; hiru inkesta egin ditu (2007, 2009 eta 2013an) eta horietatik, fenomeno horren hedapena eta intentsitatea neurtu dute. Hurbilpen modu horren onura nagusia da, hartzen dituen bazterketa adierazleek kontuan hartzen dituztela, diruzko arazoez eta alde materialez gain, bazterketan eragiten duten gainerako dimentsioak ere (osasuna, etxebizitza, parte hartzea), fenomeno hori dimentsioanitzeko eta prozesu gisa ikusiz –inkesta panel moduan baita–.
4. Gizarte desberdintasunen adierazleak. Pobrezia eta bazterketaren adierazleak fenomeno horien eragina eta intentsitatea neurtzera zuzendurik dira; adierazle horiez gain, badira beste adierazleak ere –maiz korapilatsuagoak eta interpretatzen gaitzagoak– ikuspegi horren osatzeko, hala nola diren, adibidez, desberdintasunen adierazleak. Atal honetan, gehien baliatuak diren gizarte desberdintasunen adierazleetako bi ematen ditugu: Gini koefizientea eta S80/S20 indize edo erlazioa. Horrez gain, gizarte transferentzien eraginkortasunaren adierazlea ere baliatzen dugu, pobrezia larria murrizteari dagokionean.

Hautaturiko adierazleei dagozkien datuak fitxetan ematen ditugu eta haietako bakoitzean, honako elementu hauek zehazten dira.

- Adierazlearen definizioa: atal honetan, modu sinple batez jasotzen da hautaturiko adierazleen deskribzioa, kasu bakoitzerako adieraziz, zer den bakoitza, zehatz-mehatz.
- Gipuzkoa 2014ko datuak: hala datu erlatibotan nola absolututan ematen dira, Gipuzkoarako emaitza osoak, adierazle bakoitzerako.
- Oinarrizko gurutzaketak: batzuetan, senitarteei begira eta besteetan, senitarte horiek osatzen dituzten pertsonen begira aurkezten ditugu, adie-

razle bakoitzerako, zenbait ezaugarri soziodemografikoren arabera sortzen diren emaitzak.

- Erkaketa: argigarri gisa ematen ditugu, beste herrialde edo lurraldetako datuak, Gipuzkoan lortu diren emaitzekin erkatzeko aukera eman nahiz.
- 2012-2014 bilakaera: hautaturiko adierazleen azken bilakaeretako datuak eskaintzen ditugu, hala Gipuzkoaren kasuan nola beste herrialdeen kasuan ere.

1. POBREZIAREN ETA GIZARTE BAZTERKETAREN ERAGINA EU-SILC METODOLOGIAREN ARABERA

1.1. Sarrera apalen tasa

Definizioa

Sarrera apalen tasa, pobrezia arrisku gisa ere ezagun da eta adierazten digu zenbat pertsona bizi den, pertsonen kontsumo unitate bakoitzaren erdiko balioko errenta balioaldearen % 60 baino apalago den errenta garbi balioidea duten senitarteeetan.

Erdiko balioak, norbanako guztiak, sarrera apalenetik goraka zerrendatuz, norbanakoen erdia balio horretatik behera eta beste erdia gora banatzen ditu.

Senitarteen errenta pertsonen errenta bihurtzeko, ELGAREN balioak eskala zuzendua erabiltzen da: senitarteko lehen pertsona helduari 1 ematen zaio balio eta gainerako pertsona helduei, 0,5 ; 14 urtez pekoiei, berriz, 0,3.

Gipuzkoa 2014ko datuak

	Pertsonak		Senitartekak	
	Tasa (%)	Ukituen kopurua	Tasa (%)	Ukituen kopurua
Sarrera apalak	15,6	111.655	15,6	44.470

Oinarrizko gurtzaketak

Sarrera apalen tasa eta ukituriko pertsonen kopurua, zenbait ezaugarri soziodemografikoren arabera 2014

		Tasa (%)	Ukituriko pertsonak
Sexua	Gizonak	14,0	48.885
	Emakumeak	17,2	62.770
Senitarteko pertsona nagusiaren sexua	Gizonak	13,4	73.724
	Emakumeak	22,9	37.931
Adina	<18 urte	19,2	23.795
	18-44 urte	15,5	37.801
	45-64 urte	13,8	27.272
	65 edo hortik gora urte	15,2	22.787
Nazionalitatea	Espainiakoa	13,1	87.648
	Atzerrikoa	52,1	24.008
Jaiolekua	EAE	12,6	70.950
	Estatua	17,7	17.518
	Atzerrian	46,6	23.187
Guztira	Guztira	15,6	111.655

Erkaketa

Biztanleria osoaren sarrera apalen tasa eta pobrezia atalasea

	Tasa (%)	Atalasea*
EB-28 2013¹	16,6	--
EB-15 2013¹	16,4	--
- Grezia (gehien)	23,1	418,6
- Holanda (gutxien)	10,4	1.042,0
Espainia 2014²	22,2	663,4
EAE 2014³	18,5	811,9
Gipuzkoa 2014	15,6	852,4

Iturriak: (1) Eurostat. EU-SILC. European Union Statistics on Income and Living Conditions. (2) INE. Encuesta de Condiciones de Vida. (3) O.E.E. Departamento de Empleo y Políticas Sociales. Encuesta de Necesidades Sociales 2014.PGDI modulua-Pobrezia.

*Atalasea: zifra horrek adierazten du pertsonen kontsumo unitate bakoitzaren hileko sarreren erdiko balioaren %60. taulan ageri den zifrak erakusten digu pertsona bakarrek senitarte baten sarrera apalen edo pobrezia arriskuaren atalasea. Zifrak herrialde bakoitzeko eurotan emanak dira.

Bilakaera 2012-2014

Biztanleria osoaren sarrera apalen tasa

	2011/12	2013/14	Bilakaera
Gipuzkoa (2012-14)	16,8	15,6	▼
EAE (2012-14)	15,4	18,5	▲
Espainia (2012-14)	20,8	22,2	▲
EB-15 (2011-13)	16,6	16,4	=

Sarrera apalen atalasea (pertsona heldu bakarrek etxea)

	2012	2014	Bilakaera
Gipuzkoa	842,5	852,4	% 1,2
EAE	828,7	811,9	- % 2,0
Espainia	693,4	663,4	- % 4,3

1. POBREZIAREN ETA GIZARTE BAZTERKETAREN ERAGINA EU-SILC METODOLOGIAREN ARABERA

1.2. Pobrezia larriaren tasa

Definizioa Pobrezia larriaren tasak azaltzen digu zenbat pertsona bizi diren pertsonen kontsumo unitate bakoitzeko erdiko balioko errenta baiokidearen % 40tik beherako errenta garbia duten senitateetan. Erdiko baliokak, norbanako guztiak, sarrera apalenetik goraka zerrendatuz, norbanakoen erdia balio horretatik behera eta beste erdia gora banatzen ditu. Senitatearen errenta pertsonen errenta bihurtzeko, ELGAREN baliokidetzak eskala zuzendua erabiltzen da: senitateko lehen pertsona helduari 1 ematen zaio balio eta gainerako pertsona helduari 0,5; 14 urtez pekoen, berriz, 0,3.

Gipuzkoa 2014ko datuak

	Pertsonak		Senitateak	
	Tasa (%)	Ukituen kopurua	Tasa (%)	Ukituen kopurua
Pobrezia larria	5,4	38.743	4,4	12.424

Oinarritzko gurutzetak

Pobrezia larriaren tasa eta ukituriko pertsonen kopurua, zenbait ezaugarri soziodemografikoren arabera

		Tasa (%)	Ukituriko pertsonak
Sexua	Gizonak	5,1	17.835
	Emakumeak	5,7	20.908
Senitateko pertsona nagusiaren sexua	Gizonak	5,0	27.673
	Emakumeak	6,7	11.070
Adina	<18 urte	8,8	10.870
	18-44 urte	6,8	16.423
	45-64 urte	4,2	8.245
	65 edo hortik gora urte	2,1	3.206
Nazionalitatea	Espainiako	3,5	23.332
	Atzerrikoa	33,4	15.411
Jaiolekua	EAE	3,7	21.043
	Estatua	3,3	3.238
	Atzerrian	29,1	14.462
Guztira	Guztira	5,4	38.743

Erkaketa

Biztanleria osoaren pobrezia larriaren tasa eta pobrezia larriaren atalasea

	Tasa (%)	Atalasea*
EB-28 2013¹	5,7	--
EB-15 2013¹	5,5	--
- Grezia (gehien)	11,1	279,0
- Finlandia (gutxien)	2,2	775,8
Espainia 2014²	10,6	442,3
EAE 2014³	4,9	541,3
Gipuzkoa 2014	5,4	568,3

Iturriak: (1) Eurostat. EU-SILC. European Union Statistics on Income and Living Conditions. (2) INE. Encuesta de Condiciones de Vida. (3) EOE. Enplegu eta Gizarte Politiken Saila. Encuesta de Necesidades Sociales 2014. PGDI-Pobrezia modulua.

*Atalasea: zifra horrek adierazten du pertsonen kontsumo unitate bakoitzaren hileko sarreraren erdiko baliokaren % 60. Taulan ageri den zifrak erakusten digu pertsona bakarreko senitate baten sarrera apalen edo pobrezia arriskuaren atalasea. Zifrak herrialde bakoitzeko eurotan emanak dira.

Bilakaera 2012-2014

Biztanleria osoaren pobrezia larriaren tasa

	2011/12	2013/14	Bilakaera
Gipuzkoa (2012-14)	4,3	5,4	▲
EAE (2012-14)	3,5	4,9	▲
Espainia (2012-14)	9,6	10,6	▲
EB-15 (2011-13)	5,3	5,5	=

Pobrezia larriaren atalaseak (pertsona heldu bakarreko etxea)

	2012	2014	Bilakaera
Gipuzkoa	561,7	568,3	% 1,2
EAE	552,4	541,3	- % 2,0
Espainia	462,3	442,3	- % 4,3

1. POBREZIAREN ETA GIZARTE BAZTERKETAREN ERAGINA EU-SILC METODOLOGIAREN ARABERA

1.3. Eskasia material larriaren tasa

Definizioa

Adierazle honek biltzen ditu, diru arazoengatik, honako 9 itemetatik gutxienez lau eskura ez ditzaketela dioten senitarteetan bizi diren pertsonak:

- (1) diru arazoengatik, atzerapenak etxebizitzaren alokairua edo hipoteka ordaintzen edota etxebizitza nagusia mantentzeko gastuak ordaintzen (argia, gasa, etxe zerga, etab.);
- (2) etxea behar bezain bero mantentzea;
- (3) 800 euroko ustegabeko gastuari aurre egitea;
- (4) haragi, oilasko edo arrain janaldi bat (edo horien baliokide begetarianoak), gutxienez astean 3 aldiz;
- (5) urtean astebeteko opor bidaia ordaintzea;
- (6) autoa;
- (7) ikuzgailua;
- (8) koloreko telebista;
- (9) telefonoa (finko nahiz sakelakoa).

Gipuzkoa 2014ko datuak

	Pertsonak		Senitarteak	
	Tasa (%)	Ukituen kopurua	Tasa (%)	Ukituen kopurua
[1] Atzerapenak fakturretan	4,5	31.832	4,1	11.731
[2] Hotzbero egokia	8,4	59.894	8,5	24.273
[3] Ustegabeko gastuak	24,2	172.454	24,7	70.536
[4] Dieta egokia	2,0	14.182	2,0	5.577
[5] Urteko oporraldia	29,8	213.004	30,6	87.414
[6] Autoa	12,9	92.104	18,3	52.206
[7] Ikuzgailua	0,0	353	0,1	176
[8] Koloreko telebista	0,3	2.313	0,4	1.176
[9] Telefonoa (finko edo sakelakoa)	0,0	332	0,1	332
Eskasia material larria	5,2	36.834	5,2	14.778

Oinarritzko gurutzetak

Biztanleen eskasia material larriaren tasa, zenbait ezaugarri soziodemografikoren arabera

		Tasa (%)	Ukituriko pertsonak
Sexua	Gizonak	5,2	17.976
	Emakumeak	5,2	18.859
Senitarteko pertsona nagusiaren sexua	Gizonak	4,2	22.964
	Emakumeak	8,4	13.870
Adina	<18 urte	6,8	8.456
	18-44 urte	6,3	15.277
	45-64 urte	4,4	8.703
	65 edo hortik gora urte	2,9	4.399
Nazionalitatea	Espainiakoa	3,7	24.646
	Atzerrikoa	26,4	12.188
Jaiolekua	EAE	3,6	20.252
	Estatua	4,7	4.625
	Atzerrian	24,0	11.957
Guztira	Guztira	5,2	36.834

[Jarraitzen du]

[Jarraipena]

1. POBREZIAREN ETA GIZARTE BAZTERKETAREN ERAGINA EU-SILC METODOLOGIAREN ARABERA**1.3. Eskasia material larriaren tasa**

Erkaketa

Biztanleen eskasia material larriaren tasa

	Tasa (%)
EB-28 2013 ¹	9,6
EB-15 2013 ¹	7,3
- Grezia (gehien)	20,3
- Suedia (gutxien)	1,4
Espainia 2014 ²	7,1
EAE 2014 ³	5,2
Gipuzkoa 2014	5,2

Iturriak: (1) Eurostat. EU-SILC. European Union Statistics on Income and Living Conditions. (2) INE. Encuesta de Condiciones de Vida. (3) EOE. Enplegu eta Gizarte Politiken Saila. Encuesta de Necesidades Sociales 2014. PGDI-Pobrezia modulua.

Bilakaera
2012-2014**Biztanleen eskasia material larriaren tasa**

	2012	2014	Bilakaera
[1] Atzerapenak fakturretan	5,9	4,5	▼
[2] Hotzbero egokia	6,1	8,4	▲
[3] Ustegabeko gastuak	21,7	24,2	▲
[4] Dieta egokia	1,9	2,0	=
[5] Urteko oporraldia	34,4	29,8	▼
[6] Autoa	12,7	12,9	=
[7] Ikuzgailua	0,2	0,0	=
[8] Koloreko telebista	0,4	0,3	=
[9] Telefonoa (finko edo sakelakoa)	0,2	0,0	=
Eskasia material larria	5,2	5,2	=

Biztanleen eskasia material larriaren tasa

	2011/12	2013/14	Bilakaera
Gipuzkoa (2012-14)	5,2	5,2	=
EAE (2012-14)	5,8	5,2	▼
Espainia (2012-14)	5,8	7,1	▲
